# EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO EMAKUMEEN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GIDALIBURUA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

GIDALIBURUA

2

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE JUSTICIA

EMAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
VITORIA - GASTEIZ 1992

# EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO EMAKUMEEN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GIDALIBURUA

**Izenburua:** «Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarrizko eskubideen gidaliburua»

**Egilea:** EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier kalea, 36 - 01005 VITORIA-GASTEIZ

Zuzentza Saila
Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco
Duque de Wellington kalea, s/n - 01011 VITORIA-GASTEIZ

**Koordinatzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia

**Autoreak:** Fabiola Alberdi, Elizabete Bizkarralegorra
y Concha de la Peña

**Itzultzailea:** K. Biguri

**Data:** Apirila 1992

**Ale zenbakia:** 2.000

**Deskriptoreak:** Gidaliburuak, emakumearen eskubideak, familia eskubidea, gizarte zerbitzuak, lana, heziketa, osasun laguntza

**Fotokonposatzailea:** DIDOT, S.A.
Nervión kalea, 3-6.° - 48001 BILBO
**Inprimatzailea:** Gráficas Santa María, S.A.
Becolarra, 4 - GASTEIZ
**Diseinu Grafikoa:** D. G.

**ISBN:** 84-87595-10-3
**Lege Gordailua:** VI-353/92

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA .................... 19

1. ESKUBIDE BERDINTASUNETIK EMAITZA BERDINTASUNERA .................... 23

1.1. BERDINTASUNA EUSKAL ESTATUTUAN .................... 25
Estatutuaren aitorpena .................... 25
Betetzeko derrigorrezkotasuna .................... 25
1.2. EMAKUMEEN OHOREA, INTIMITATE PERTSONALA ETA IRUDIA. BERMEAK 26
1.3. BERDINTASUNA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAN .................... 26
1.4. EKINTZA POSITIBORAKO NEURRIAK .................... 28
Ekintza Positiborako Neurriak .................... 28
Euskal Autonomi Elkarteko Emakumeentzako Ekintza Positiboen Plangintza (1991-1994) .................... 28
1.5. EMAKUMEEN ENPLEGURAKO LAGUNTZAK .................... 29
1.6. AUKERA BERDINTASUNA HIZKUNTZAREN MAILAN .................... 29

2. EMAKUMEA PERTSONA DEN ALDETIK .................... 31

2.1. JAIOTZA .................... 33
Erroldan izena ematearen derrigorrezkotasuna .................... 33
Izena emateko Errolda Zibila .................... 33
Nortzuk dauden izena ematera behartuta .................... 33
Epe barruan izena ematea .................... 33
Epez kanpo izena ematea .................... 33
Deituren hurrenkera eta hurrenkera aldatzea .................... 34

2.2. EMANTZIPAZIOA ETA ADIN HELDUTASUNA ..... 34
Emantzipazioa eta bere eraginak ..... 34
Emantzipaziorako baldintzak ..... 34
Noiz iristen den adin heldutasunera ..... 34
2.3. NAZIONALITATEA ETA HIRITARTASUNA ..... 35
Nazionalitatea zer den ..... 35
Euskal herritarraren izatasun politikoa ..... 35
Atzerrian bizi denaren eskubide politikoak ..... 35
Espainiako nazionalitatea ..... 35
Aita atzerritarra ..... 36
Espainiako nazionalitatea jasotzea ..... 36
Nazionalitatea galtzea. Zergatiak eta epeak ..... 37
Atzerritar batekin ezkondutako emakumea ..... 37
Gurasoek nazionalitatea galtzeak zernolako eraginak dituen seme-alabentzat 38
2.4. AUZOTASUN ZIBIL AMANKOMUNA ETA/EDO FORALA ..... 38
Auzotasuna zer den eta zernolako eraginak dituen ..... 38
Auzotasun zibilaren adierazgarriak ..... 38
Auzotasuna jasotzea eta/edo aldatzea ..... 38
Emakume ezkonduen eta seme-alaben auzotasuna ..... 38
Auzotasun aforatua ..... 39

3. EMAKUMEA, FAMILIA ETA ELKARBIZITZA ..... 41

3.1. EMAKUMEA ETA FAMILIA ..... 43
3.1.1. Ezkontza ..... 43
Ezkontza Zibila ..... 43
Behar diren agiriak ..... 43
Ezkontza erlijiosoa ..... 43
Errolda Zibilean inskribatzeko derrigorrezkotasuna ..... 43
Famili liburua ..... 43
3.1.2. Ezkontzaren ondorioak ..... 44
Eskubide eta betebehar mailako berdintasuna ..... 44
Etxeko zereginak egin beharra ..... 44
Ezkontide batek bestea ordezkatzea ..... 44
Ezkontideen helbidea aukeratzea ..... 45
Emakumea ezkontideen etxetik irtetzea ..... 45
3.1.3. Familia abandonatzea ..... 45
Etxea abandonatzea ..... 45
Abandonu ekonomikoa ..... 45
Enpresak soldatari eustea ..... 46
Emakumeak familiaren mantenuan lagundu beharra ..... 46

3.1.4. Ezkontideen fideltasunik eza .................... 46
Fideltasunik eza eta adulterioa .................... 46
3.2. IZATEZKO BIKOTEAK .................... 46
Eskubide eta betebeharrak .................... 46
Emakumea bizilagunaren osasun kartilan sartzea .................... 47
Alargun saria bizilaguna hilez gero .................... 47
Gizonaren bizilagunarentzako kalte-ordainak .................... 47
Etxe alokatuan bizitzea .................... 47
Bikotea haustean etxetik alde egitea .................... 47
Adin gutxiko seme-alaben kustodia .................... 48
Etxea adostasunik gabe abandonatzea .................... 48
Izatezko elkarbizitza agiri bidez arautzea .................... 48
3.3. SEME-ALABAK .................... 48
3.3.1. Berdintasun legala .................... 48
Semeen eta alaben berdintasuna .................... 48
3.3.2. Guraso boterea .................... 48
Guraso boterea zer den .................... 48
Erabilera .................... 49
Amaiera .................... 49
Adin gutxikoak etxetik botatzea .................... 49
Guraso boterea kentzea .................... 49
Alabek gurasoekiko dauzkaten betebeharrak .................... 49
3.3.3. Adopzioa .................... 50
Adopzioa zertan datzan .................... 50
Nortzuek har dezaketen seme-alabatzakorik .................... 50
Emakume ezkongaiak edo bakarrik bizi denak seme-alabatzakoak hartzea 50
Nor har daitekeen seme-alabatzat .................... 50
Emakumea bere semea/alaba adopziotan ematera ukatzea .................... 50
Nora jo behar duen adin gutxiko bat seme-alabatzat hartu nahi duenak 51
3.3.4. Ezkontzaz kanpoko seme-alabak .................... 51
Aitak emakume ezkongaiaren seme-alabak aitortzearen ondorioak .................... 51
Amak aitaren aitorpenari uko egitea .................... 51
Amak aitari aitorpena egitera behartzea .................... 52
Emakume ezkonduak ezkontzaz kanpo edukitako umea seme-alabatzat aitortzea .................... 52
Gizon ezkonduak ezkontzaz kanpo edukitako umea seme-alabatzat aitortzea 52
Ezkontzaz kanpoko seme-alaben kustodia .................... 52
3.3.5. Lagunduriko ernalketak .................... 53
Lagunduriko ernalketarako teknikak .................... 53
Nortzuek erabil ditzaketen .................... 53

Noiz erabil daitezkeen .......... 53
Adin muga .......... 53
Teknika horiek bertan behera uztea .......... 53
Senarraren baimena .......... 54
Emakumea banatuta egonez gero .......... 54
Izatezko bikoteak eta lagunduriko ernalketa .......... 54
Nor izan daitekeen emailea .......... 54
Emailearen nortasuna .......... 54
3.3.6. Lagunduriko ernalketak eta seme-alabatasuna .......... 55
Emakume ezkondua .......... 55
Ezkondu gabeko bikote iraunkorrak .......... 55
Emakume ezkongaia .......... 55
3.3.7. Amatasun subrogatua. «Alokaturiko amak» .......... 56
Kontratuen baliorik eza eta amatasun biologikoaren aitorpena .......... 56
3.3.8. «Post mortem» ernalkuntza .......... 56
Aukerak eta mugak .......... 56
Seme-alabatasuna nola finkatu .......... 56
3.3.9. Senitarteen arteko elikadura .......... 57
Elikadura zer den .......... 57
Nor dagoen behartuta elikadura ematera .......... 57
18 urtetik gorakoen mantenua eta ikasketak .......... 57
Emakume heldu ezkongaia haurdun geratu eta erditzeagatik gertatzen diren gastuak .......... 57
3.3.10. Adin gutxikoekiko tratu txarrak eta abandonua .......... 57
Zernolako erantzunkizuna dute gurasoek semealabak abandonatu edo tratu txarrak emateagatik? .......... 57
Zer egin tratu txarrak gertatuz gero? .......... 58
3.4. EZKONTIDEEN ERREGIMEN EKONOMIKOA .......... 58
Ezkontideen erregimen ekonomikoa .......... 58
Erregimen ekonomikoaren aukerak .......... 58
Nola aukeratu: ezkontzako hitzarmena .......... 58
Ezkontzako hitzarmenik egon ezean ordezko erregimen ekonomikoa finkatzea 58
Ezkontzako hitzarmena ezkondu aurrean egitea .......... 59
Ezkontzako hitzarmena tajutzeko derrigorrezkotasunik eza .......... 59
Ezkontzako erregimen ekonomikoa aldatzea .......... 59
3.4.1. Irabazizko elkartea .......... 59
Noiz hasten den indarrean .......... 59
Zeintzuk diren irabazizko ondasunak .......... 59
Zeintzuk diren ondasun pribatiboak .......... 60
Ezkontide batak bestearen ondasunak erabiltzea baimenik gabe .......... 60

Nork administratu behar dituen irabazizko ondasunak ..................... 60
Ezkontideetako batek bakarrik egindako zorrak nork ordaindu behar dituen 60
Dirusarrera eta jarduera ekonomikoen berri elkarri ematea ................ 61
Kredituak eskatzea ezkontidearen baimenik gabe .......................... 61
Banku edo finantz etxeen informazioa jasotzeko eskubidea ................ 61
Familiaren etxebizitza ................................................... 62
— Etxea ezkondu aurretik erosia bada ..................................... 62
— Ezkondu ondoren eta epeka erosia bada ................................... 62
— Adin gutxikorik egonez gero saldu beharrik ez egotea ................... 62
Irabazizko elkartearen deuseztapena ...................................... 62
— Irabazizko Elkartearen amaiera ......................................... 62
— Noiz bana daitezkeen irabazizko ondasunak ............................... 63
— Deuseztapena auzibidez egitea ........................................... 63
3.4.2. Ondasun banaketa .................................................. 63
Ondasun banaketaren erregimena ........................................... 63
Familiaren beharrizanei laguntzea ........................................ 64
Etxea ezkontide bakar baten jabetzakoa izatea ............................ 64
Ondasun banaketaren erregimenak emakumearentzat dituen alde txarrak 64
Ondasun banaketaren erregimenaren amaiera ................................ 64
3.4.4. Partaidetza erregimena ............................................. 64
Partaidetza erregimena ................................................... 64
3.4.4. Erregimen ekonomiko forala edo aforatua ........................... 65
Ondasunen komunikazio forala ............................................. 65
Ondasunen komunikazio forala nola gertatzen den .......................... 65
Komunikazio forala eta irabazizko ondasunak biak batera egotea .......... 66
Onibar komunikatuak inorenganatzeko bi ezkontideek baimena eman beharra ... 66
Ezkontide baten zorrak ................................................... 66
Sortetxeko ondasunak erosi edo inorenganatzeko mugak ...................... 66
Erregimen aforatuan banatu edo dibortziatzeagatik ezkontideen ekonomi elkartea deuseztatzea ... 67
3.5. EZKONTZAREN BALIOGABETASUNA, BANAKETA ETA DIBORTZIOA ....... 67
3.5.1. Ezkontzaren baliogabetasuna ........................................ 67
Ezkontza baliogabea ...................................................... 67
Ezkontza baliogabetzeko arrazoiak ........................................ 67
Baliogabetasun epaiaren ondorioak ........................................ 68
Baliogabetasunaren eta dibortzioaren arteko aldea ........................ 68
Elizaren epaiaren baliozkotasuna ......................................... 68
3.5.2. Senar-emazteen banaketa ............................................ 69
Senar-emazteak banatzearen ondorioak ..................................... 69

Senar-emazteak banatzeko moduak ... 69
Bien arteko adostasunez banatzea ... 69
Jarraitu beharreko bidea: Komenio Arautzailea ... 69
Epaileak akordioak onartzea ... 70
Adostasunik gabe auzibidez banatzea ... 70
Senar-emazteak banatzeko arrazoiak ... 70
Izatezko banaketa ... 71
Izatezko banaketaren ondorioak ... 71
3.5.3. Dibortzioa ... 71
Dibortzioaren arrazoiak ... 71
Dibortziatzeko adostasun beharrik eza ... 72
Zer egin behar den dibortziatzeko ... 72
Banaketa eta dibortzioaren arteko aldea ... 72
3.5.4. Aurretiazko neurriak ... 72
Banatu, ezkontza baliogabetu edo dibortziatu aurretiazko edo guztiz behin-behineko neurriak ... 72
Epaileari eskatzea ... 73
Aurretiazko neurriak ... 73
Nola eskatu aurretiazko neurriak ... 73
Larrialdian eskatzea komeni diren neurriak ... 73
Derrigorrez elkarrekin bizi beharra ... 73
Senarra ezkontideen etxebizitzatik irtetzera ukatzea ... 74
3.5.5. Banaketa, ezkontzaren baliogabetasuna eta dibortzioaren ondorio amankomunak ... 74
Adin gutxikoen kustodiari buruzko erabakiak: bisitaldiak, pentsioak, eta ezkontzako erregimen ekonomikoaren deuseztapena ... 74
3.5.6. Seme-alaben kustodia ... 74
Adin gutxiko seme-alaben kustodia ... 74
Kustodiari buruz seme-alabek duten eritzia ... 74
Kustodia aldatzea ... 75
3.5.7. Familiaren etxebizitza ... 75
Familiaren etxebizitza erabiltzen jarraitzeko lehentasuna ... 75
Kustodia ez duen ezkontideak seme-alabak bisitatzea ... 75
Familiaren etxebizitza alokatua denean ... 75
3.5.8. Seme-alabentzako pentsioa ... 76
Seme-alabak mantentzeko beharra ... 76
Pentsioaren zenbatekoa ... 76
Seme-alabak adin heldutasunera iritsi ondoan pentsioa eman beharra ... 76
Zer egin senarrak ez badu ordaintzen pentsioa ... 76
Pentsioak ez ordaintzeagatik salatzea ... 76

3.5.9. Konpentsaziozko pentsioa .......... 77
Emakumeak pentsioa jasotzeko eskubidea .......... 77
Pentsioa aldatzea .......... 78
Senarrak pentsioa jasotzeko eskubidea .......... 78
Pentsioa jasotzeko eskubidearen amaiera .......... 78
Ordainketa egin behar duen ezkontidea hiltzen denean .......... 78
Zer egin konpentsaziozko pentsioa ez bada ordaintzen? .......... 78
3.5.10. Ezkontzako ondasunen banaketa .......... 78
Finkatutako Erregimen Ekonomikoari jarraitzea .......... 78
3.6. OINORDEKOTZAK .......... 79
Testamentua .......... 79
Testamentua egiteko moduak .......... 79
Lurralde aforatuetako testamentu bereziak .......... 80
Beste ezkontidearen baimen beharrik eza .......... 80
Elkarren arteko testamentua .......... 80
Nola jakin testamenturik badagoen ala ez .......... 80
Testamentu gabeko oinordekotza .......... 81
Testamentua erabakitzeko askatasuna eta senipartea .......... 81
Derrigorrezko oinordekoak .......... 81
— Amankomuneko Erregimena .......... 81
— Foru Erregimena .......... 81
Senipartea edo derrigorrezko oinordekotza amankomuneko legerian .......... 82
Senipartea edo derrigorrezko oinordekotza foru legerian .......... 82
Testamentua erabakitzeko askatasun forala .......... 82
Emakume alargunaren oinorde eskubideak testamenturik ez dagoenean .......... 82
Usufruktuaren eskubideak .......... 83
Usufruktuaren amaiera. Moduak .......... 83
Senarra hiltzean emakumea haurdun egotea .......... 83
Alarguna berriz ezkontzea .......... 83
Senar-emazteak izatez banatuta egotea .......... 83
Senar-emazteak epailearen aginduz banatuta egotea .......... 84
Senar-emazteak dibortziatuta egotea .......... 84

4. ETXEAN JASATEN DIREN INDARKERIA, TRATU TXARRAK ETA ASKATASUN SEXUALAREN AURKAKO ERASOAK .......... 85

4.1. TRATU TXARRAK .......... 87
Tratu txarrak jasotzen dituenak zer egin dezake? .......... 87
Zauririk gabeko tratu txarrak salatzea .......... 87
4.2. ASKATASUN SEXUALAREN AURKAKO ERASOAK .......... 87

4.2.1. Bortxaketa ........ 87
Bortxatzeko delitua ........ 87
Zer egin bortxaketa gertatuz gero? ........ 88
Emakume bortxatuaren abortatzeko aukerak ........ 88
Senarrak emaztea bortxatzea ........ 88
4.2.2. Bestelako eraso sexualak ........ 89
Bortxaketa ez diren beste eraso sexualak ........ 89
Zer egin edozein eraso sexual jasanez gero ........ 89

5. DOHANEKO JUSTIZIAREN ONURA: OFIZIOKO ABOKATU ETA PROKURADOREA . 91

Dohaneko justizia zer den ........ 93
Nork daukan dohaneko justizia jasotzeko eskubidea ........ 93
Emazteak baliabiderik ez duenean ........ 93
Nola eskatu dohaneko justiziaren onura ........ 93
Ofizioko Abokatua zer den ........ 93
Noiz eska daitekeen ........ 94
Ofizioko Prokuradorea eskatzea ........ 94
Ordaindu beharra ........ 94

6. HEZIKETA ........ 95

6.1. Haurren irakaskuntza ........ 97
Haurtzaindegiak ........ 97
Sei urtetik beherako haurrak eskolaratzeko aukera ........ 97
6.2. Derrigorrezko irakaskuntza ........ 97
Derrigorrezko irakaskuntzaren edukiak ........ 97
Bigarren Mailako Hezkuntzako Graduatua ........ 98
Eskola-Graduatua eta Eskola-Ziurtagiriaren arteko aldea ........ 98
6.3. Euskara edo euskaraz ikasteko eskubidea ........ 98
Euskara irakaskuntzan ........ 98
Irakaskuntz eredu elebidunak ........ 98
6.4. Ikasteko dirulaguntzak ........ 100
Irakaskuntzaren dohanekotasuna ........ 100
Ikasteko, jantegietan jateko eta garraiorako dirulaguntzak ........ 100
6.5. Irakaskuntza Ertainak ........ 100
Zer ikasi OHO amaitu ondoren ........ 100
Matrikulak eta epeak ........ 101
Atzerrian BBB, UBI eta LH ikastea eta konbalidatzea ........ 101
6.6. BBB eta UBI ........ 102
BBBra sartzeko baldintzak ........ 102
BBB eta UBI gauez edo urrutitik ikastea ........ 102

6.7. Lanbide heziketa ..... 102
Nola sartu Lanbide Heziketan ..... 102
— Ikasketarik eduki ezean ..... 102
— Lehenengo Gradura sartu ..... 102
— Bigarren Gradura sartu ..... 102
— Lanbidean titulurik gabe aritzea ..... 103
Ofizialak ez diren irakaskuntzak ematen dituzten ikastegiak ..... 103
Lanbide Heziketa norbere kasa, urrutitik edo gauez egitea ..... 103
Lanbidean Sartzeko Proiektuak ..... 104
6.8. Unibertsitateko hezkuntza ..... 104
Unibertsitatera sartzeko baldintzak ..... 104
Euskara eta Selektibitatea ..... 104
Unibertsitate mailako ikasketak urrutitik egitea ..... 105
Espedientea lekuz aldatu eta konbalidatzea ..... 105
6.9. Helduen hezkuntza iraunkorra ..... 105
Eskola-Graduatua nola lortu ..... 105
25 urtetik gorakoak unibertsitatera nola sartu ..... 106
6.10. Osabidezko hezkuntza ..... 106
Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa ..... 106
6.11. Hezkuntza berezia ..... 107
Norentzat. Dirulaguntzak ..... 107
6.12. Atzerriko ikasketak eta prestakuntza ..... 107
«Erasmus» egitaraua ..... 107
«Europako Langile Gazteak» egitaraua ..... 108

7. LANA ..... 109

Zein lanbide eduki dezake emakumeak? ..... 111
Emakumeak lan egiteko behar duen adina ..... 111
Emakume ezkonduaren lan-kontratua ..... 111
Haurdun dauden emakumeak baztertzea ..... 112
Lanpostu bat nola aurkitu ..... 112
— Enpresa pribatuan ..... 112
— Enpresa publikoan ..... 112
Ahozko ala idatzizko kontratua? ..... 112
Idatzizko lan-kontratuaren mamia ..... 113
7.1. Aldibaterako lan-kontratuak ..... 113
Aldi baterako kontratu motak ..... 113
— Behin-behineko langileak, enpresako lana pilatzen denean ..... 113
— Halako lan jakin baterako ..... 113
— Beste langile bat ordezkatzeko ..... 113

— Enplegua sustatzeko ........ 113
— Jarduera berri bat bultzatzeko ........ 113
Beste kontratu motak ........ 114
— Prestatzeko praktikaldietarako kontratua ........ 114
— Lanegun partzialekoa ........ 114
— Etxean lan egitekoa ........ 114
— Denboraldi baterakoa ........ 114
Aldibaterako kontratuak ematen dituen eskubideak ........ 115
Aldibaterako kontratuek baliodunak izateko bete beharreko baldintzak eta eskakizunak ........ 115
7.2. Soldata ........ 115
Soldata eta Lanbidearteko Gutxienezko Soldata zer diren ........ 115
Nola jakin soldata zuzena jasotzen den ala ez ........ 116
Nomina zer den eta zeintzuk diren haren funtsezko edukinak ........ 116
Nominaren erreziboen garrantzia ........ 117
Lan berak balio bera ........ 117
7.3. Kategoria profesionala ........ 117
Zer den eta nola arautzen den ........ 117
Zer egin zalantzarik edo desadostasunik egonez gero ........ 117
Bazterkeria dagoenean frogak duen pisua ........ 117
7.4. Lanaldia ........ 118
Lanaldia zer den ........ 118
7.5. Lan-kontratua etenda uztea ........ 118
Etenda uzteko arrazoiak ........ 118
7.6. Lan-kontratuen amaiera ........ 119
Nola amai daitezkeen lan-kontratuak ........ 119
7.7. Despidoa ........ 119
Noiz gertatzen den ........ 119
Despeditzeko arrazoi ez diren kausak ........ 120
Zer egin despidoarekin ados ez dagoenak ........ 120
Despidoagatik egindako auziaren ondorioak ........ 120
7.8. Lana eta amatasuna ........ 121
Seme-alaba bat jaiotzearen inguruko baimen eta eskubideak ........ 121
Elkarren seme-alabaz arduratzeko aitak duen erantzunkizuna ........ 121
7.9. Adin gutxikoak seme-alabatzat hartzea ........ 122
Adin gutxikoak seme-alabatzat hartzeagatik amak edo/eta aitak atsedena hartzea ........ 122
7.10. Familia baten etxean lan egiten duten emakumeak ........ 122
Nor den etxeko enplegatua ........ 122
Etxeko enplegatuaren lan-kontratua ........ 122

Legezko soldata .......... 122
Lanaldiak eta atsedenak .......... 123
Ordukako lan-kontratua .......... 123
Kontratuaren amaiera eta kalteordaina .......... 123
Dagokion arautegia betetzen ez denean salatzea .......... 123
Derrigorrezkoa al da Gizarte-Segurantzako alta? .......... 123
Gizarte-Segurantzako kuotaren ordainketa .......... 124
Langabezi ordaina jasotzeko eskubiderik eza .......... 124
7.11. Emakume enpresaria .......... 124
Aukerak .......... 124
Norberaren ustiaketarako legezko baldintzak .......... 124
Elkarte moduko ustiaketarako baldintzak .......... 125
Kooperatiben alde onak .......... 125

8. ERRENTA AITORPENA .......... 127

Errentak eta soldatagatik jasotzen diren dirusarrerak .......... 129
Pentsioengatik jasotzen diren dirusarrerak (jubilatu, alargun eta abarren kasuan) . 129
Emakume ezkonduaren zerga-ordainketa banaka edo senarrarekin batera egitea . 129
Emakume banatuaren errenta aitorpena .......... 129
Ezkontideen arteko konpentsaziozko pentsioak .......... 130
Emakume ezkongaiaren errenta aitorpena .......... 130
Ama ezkongaiaren errenta aitorpena .......... 130
Seme-alabengatik dedukzioak egitea .......... 130
Etxean hartutako adin gutxikoengatik dedukzioak egitea .......... 130
«Etxekoandrearen dedukzioa» deritzana .......... 131
Adin gutxiko ondorengo bat edo gehiago zaintzeko langileak edukitzeagatik gastuen dedukzioa egitea .......... 131
Etxean hartutako ondorengo edo adin gutxikoak haurtzaindegi edo eskolara eramateagatik ordaindutakoaren dedukzioa egitea .......... 131

9. AURRIKUSPEN SOZIALA .......... 133

Zer da Aurrikuspen Soziala? .......... 135
Pentsio zergadunak eta zergagabeak .......... 135
Zergagabeko pentsioak. Baldintzak .......... 135
Nork jasotzen ditu Gizarte-Segurantzaren onurak eta zerbitzuak? .......... 136
Onuradun izateko nahitanahiezko baldintzak .......... 136
Emakumea senarraren kartilan onuradun modura agertzen denean .......... 136
Gizarte-Segurantzan afiliatuta egon beharra, eta egon beharra duena .......... 136
Lanaldi partzialari dagokion kotizazioa .......... 137

Nola jakin Gizarte-Segurantzan inskribatuta eta altan zauden ..................... 137
Aurrikuspen Sozialerako beste sistema batzuk: Mutuak, Pentsio-Planak eta aseguru pribatuak ..................... 137
Zer da Elkarkidetza? ..................... 137
Pentsio-Planak eta aseguru pribatuak ..................... 137
Norberaren edo familiaren negozioa duen langile autonomoaren aurrikuspen soziala ..................... 138
Emakume nekazarien aurrikuspen soziala ..................... 138
Etxeko enplegatuen aurrikuspen soziala ..................... 138
9.1. Gizarte-Segurantzaren prestazioak ..................... 139
Zein prestazio eskeintzen ditu Gizarte-Segurantzak eta zein baldintzatan? ... 139
— Gaisotasunagatik ..................... 139
— Lan istripuagatik ..................... 139
— Ama izateagatik ..................... 139
— Ezintasun iraunkorragatik ..................... 140
Lanerako ezintasun aitorpenak dakartzan eskubideak ..................... 140
Ezintasun aitorpena berraztertzea ..................... 140
Bajagatik jaso beharreko portzentaia aldakorra ..................... 141
9.2. Pentsioak ..................... 141
Pentsioak zer diren ..................... 141
Pentsio motak ..................... 141
— Alargunak ..................... 141
banatzeko dagoen emakumea ..................... 141
izatezko bikotea ..................... 141
— Umezurtzak ..................... 141
— Jubilatuak ..................... 142
— Guraso eta anai-arreben aldekoa ..................... 142
Zer da SOVI delakoa (Zahartasun eta Elbarritasunerako Derrigorrezko Asegurua)? ..................... 142
9.3. Lanik eza edo langabezia ..................... 143
Langabezi laguntza ..................... 143
Langabezi laguntza jasotzeko baldintzak ..................... 143
Langabezi laguntzaren iraupena eta zenbatekoa ..................... 143
Langabezi laguntzaren osagarrizko sariak ..................... 143
Familiarentzako laguntza eta haren zenbatekoa ..................... 144

10. OSASUNA ETA OSASUN LAGUNTZA ..................... 145

Nork dauka osasun laguntza jasotzeko eskubidea? ..................... 147
Zein eskubide ematen ditu Gizarte-Segurantzan afiliatuta egoteak? ..................... 147
Euskadin osasun laguntza nola jaso ..................... 147

Adinez nagusi diren alabak ..... 147
Eskola-Aseguruaren onuradunak ..... 148
Osasun laguntzak zer eskaintzen du? ..... 148
Zer egin behar du banatu edo dibortziatu den emakumeak osasun laguntza izateko? 148
Nola zaindu osasuna lanean ..... 148
Haurdun dagoen langilearen eskubideak ..... 149
Nori zuzendu behar zaio laneko osasunari buruzko arautegia betetzeko eskabidea? 149
Beste osasun zentru bereziak ..... 149
— Famili-plangintzarako zentruak ..... 149
— Laguntza psiko-sozialerako moduluak ..... 149
Esterilizazioa ..... 149
Zentru publikoetan lagunduriko ernalketa egitea ..... 150
Haurdunaldia norbere borondatez etetea: kasuak ..... 150
Legearen arabera abortatzeko baldintzak ..... 150
Legezko kasu bakoitzaren baldintzak ..... 150
Baimena duten Osasun Zentruak ..... 151
Haurdunaren intimitate eskubidea ..... 151
Beste pertsona batzuk Gizarte-Segurantzako onuradun egitea ..... 152
Emakumea Gizarte-Segurantzako onuraduna izatea ..... 152
Sendagilea eta sendagaiak edukitzeko eskubidea eta langabezia ..... 152

11. BALIABIDEAK ..... 153

11.1. Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera ..... 155
Zer da gizarteratzeko gutxienezko dirusarrera? ..... 155
Emakumeen artetik, nortzuek jaso dezakete? ..... 155
Zenbatekoa ..... 155
11.2. Emakumearentzat interesgarriak diren bestelako laguntza sozialak ..... 156
Etxerako Laguntza Zerbitzua ..... 156
Tele-alarma ..... 156
11.3. Orientazio zentruak ..... 157
Emakumeentzako baliabide orokorrak ..... 157
Osasun alorrean ..... 157
Lan alorrean ..... 157
11.4. Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea ..... 158
EMAKUNDE ..... 158
Ekintzak eta zerbitzuak ..... 158
Egoitza eta harremanetan jartzeko modua ..... 159



# AURKEZPENA

EMAKUMEEN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GIDALIBURU honek modu erraz eta argian bildu nahi ditu azken urteotan ezarri diren arau oinarrizkoak eta legeetan gertatu diren aldaketak, bai eta gure elkarte autonomoan indarrean dagoen Foru Zuzenbidearen berezitasunak ere.

Gidaliburu honetan daude, besteak beste, seme-alabatasun alorrean Zuzenbide Zibilean egin diren aldakuntza garrantzitsuak, eta ezkontzaren baliogabetasuna, banaketa eta dibortzioa egiteko motibuen ingurukoak arautzen dituen 1981eko uztailaren 7ko Legea. Lan zuzenbideari dagokionez, neskametzaren lan harremana arautzen duen abuztuaren 1eko 1424/85 Erret Dekretua; martxoaren 3ko 3/1989 Legea, amatasun-baimenaren epea zabaltzen, laneko sexu-jazarpenaren figura sartzen eta lan prozeduran ustezko bazterkeria kasuetan zama lekuz aldatzen duen araua biltzen duena. Liburuak jasotzen du, orobat, nola aldaketak egin diren Kode Penalean, abortoa hiru kasutan zigorgabetzeko, bortxaketa eta eraso sexualak «honestasunaren» kontrakotzat ez baizik eta askatasun sexualaren kontrako delitutzat jotzeko, eta legearen araberako banaketa, dibortzioa edo ezkontzaren baliogabetasuna gertatzean ezkontide eta seme-alabentzako dirulaguntzak ez ordaintzea delitutzat emateko.

Nahiz eta azken lege aldaketa hauekin aurrerapausuak eman diren sexuagatik bereizketarik ez egiteko oinarri konstituzional eta estatutarioan, esan behar da oraindik ere bete gabeko hutsuneak badirela, eta Herri Erakundeek politika orokor eta anitz bat ekin behar diotela emakumeentzako aukera eta tratu berdintasunaren alorrean indarrean dauden edo etorkizunean egongo diren ebazpenak hobe bete daitezen.

Oinarrizko arauetan aurrerakuntza nabarmena lortu bada ere, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasun teorikoak emaitza berdinetara joko badu, beharrezkoa da bultzada finko bat ematea Estatuaren eskumeneko eta gure elkarte autonomoaren beraren eskumeneko legeriak, oraindik dirauten ebazpen baztertzaile hondarrak eta ohitura judizial sexistak aldarazteko.

Ildo honetatik, EMAKUNDEk prestatu eta Eusko Jaurlaritzak 1991ko maiatzaren 7an onartu zuen Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiborako 1991-1994 Plangintzak Antolakuntza Juridikoan ezartzen du zer nolako neurriak hartu behar diren apurka-apurka datozen lau urteotan alor honetan.

Neurri horien artean dago, esaterako, gure Elkarteko emakumeei euren oinarrizko eskubideei buruzko argibide egokiak emateko beharra. Horregatik, EMAKUNDEk eta Zuzentza Sailak guztiz baliagarri eritzi diote elkarren artean Gidaliburu hau argitaratzeari, emakumeek dauzkaten eskubideen berri zabaldu, azken aldaketak jaso eta eskubide horiek gauzatzen laguntzeko.

Iz. José Ramón Rekalde
Zuzentza Sailburua

Iz.Txaro Arteaga Ansa
Emakunde / Emakumearen Euskal
Erakundeko Zuzendaria



# 1. ESKUBIDE BERDINTASUNETIK EMAITZA BERDINTASUNERA

## 1.1. Berdintasuna Euskal Autonomi Estatutuan

Aitortzen al du Euskal Estatutuak emakumeen eskubide berdintasuna?

Estatutuko 9. artikuluak Konstituzioan aipatutako eskubide eta betebehar funtsezkoak aitortzen dizkie Euskal Herriko hiritar guztiei, gizonezkoak zein emakumezkoak izan, sexu bereizketarik gabeko berdintasun eskubidea ezartzen duen Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluarekin bat.

Horretarako, euskal aginte publikoek, beren ahalmenaren esparruan, emakumeei euren eskubideez baliatzea bermatu, pertsonen berdintasuna eta askatasuna benetakoak izatea galerazten duten oztopoak kentzeko neurriak hartu eta bultzatzen dituzte, eta, halaber, gizon-emakume guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartu ahal izateko erraztasunak eman behar dituzte.

Nor arduratzen da eskubide eta betebehar horiek kunpli daitezen zaintzeaz?

Edozein pertsonak eska dezake funtsezko eskubide eta askatasunen zaintza ohizko auzitegien aurrean, lehentasunezko prozeduraren bitartez, bai eta auzitegi Konstituzionalera jo babes errekurtsoaren bidez. Babes errekurtsoa aurkezteko beharrezkoa da ahaldun batek ordezkatua izatea bai eta abokatu batek parte hartzea.

Beste alde batetik eta otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bidez Eusko Legebiltzarrak Emakumearen Euskal Erakundea, EMAKUNDE, erakunde autonomoa eta zuzenean Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren menpean dagoena, sortu zuen. Emakundek Euskadiko Elkartearen esparruan bi sexuen arteko berdintasun benetakoa eragozten edo galerazten duten trabak desagertarazteko neurri-plangintza bat aurkezten du legegintzaldi bakoitzaren hasieran, onartua izan dadin.

Era berean Arartekoak, Euskadiko Autonomi Elkartean Herriaren Defendatzaile funtzioak betetzen dituen Legebiltzarreko goi komisionatu unipertsonalak, Autonomi Estatutuko 9. artikuluan azaldutako printzipio demokratikoak bete daitezen arduratzen da. Horretarako herritarren kexak jaso eta eskubideen kalterako izan litezkeen ekintzetako Euskal Administrazio Publikoen jardunak aztertzen ditu, kalte horien

erantzule diren funtzionarien jardunak horien gaineko jakineraziz eta, horien kontrako erantzunkizun ekintza bera ere burutuz.

Dena dela, justizi auzitegiak izaten dira azken buruan berdintasun alorreko legeek diotena betetzeaz ebazten dutenak.

## 1.2. Emakumeen ohorea, intimitate pertsonala eta irudia. Bermeak

Nola bermatzen dira emakumeen ohorea, intimitate pertsonala eta irudia?

Emakumeen ohorea, intimitate pertsonala eta irudia, gizonezkoena bezalaxe, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluak eta Euskadiko autonomi Estatutuko 9. artikuluak babesten dute. Horrez gain eskubide pertsonal hauek babestu eta horien kontrako jarduna gaitzesten duen legeria berezia ere badago:

— Ohore, intimitate pertsonal eta familiar eta norberaren irudirako eskubidearen Babes Zibilerako maiatzaren 5eko 1/82 Lege Organikoa.

— Pertsonaren Funtsezko Eskubideen babes jurisdikzionalerako abenduaren 26ko 62/78 Legea.

Era berean komunikabide baten bitartez (prentsa, irratia, TB) egindako ohore eskubidearen hausketaren kontrako lege babesa ere eskeintzen da.

## 1.3. Berdintasuna nazioarteko zuzenbidean

Zeintzu nazioarteko arauk babesten dute emakumeen berdintasun eskubidea?

Hurrengo hau da honetarako erabil daitekeen nazioarteko arautegia:

— Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (N.B.E., 1948/12/10)

— Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (N.B.E. 1966/12/16). Espainiak 1977.4.24ean berronetsia.

— Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (N.B.E. 66/12/16). Espainiak 1977/4/24ean berronetsia.

— Giza eskubideen eta funtsezko askatasunen babeserako Konbenioa (Europako Kontseilua, 1950/11/4) Espainiak 1980/5/6an berronetsia.

— Europako Gutun Soziala (Europako Kontseilua, 1961/10/18) Espainiak 1980/5/6an berronetsia.

— Emakumeen kontrako diskriminazio modu oro ezabatzeko Konbentzioa (N.B.E. 79/12/18). Espainiak 1981/2/5ean berronetsia.

— Erromako Tratatua, III. atalburua, neurketa eta denbora unitate berberaz zenbatutako balio bereko lanaren ordainketa berdinari buruzkoa, 1957/3/25, Espainiak 1985/6/12an berronetsia.

— Nazioarteko Lan Erakundearen (N.L.E.) Konbenioak:

- 100.a, balio bereko lanaren ordainketa berdinari buruzkoa (N.L.E., 1951/6/29). Espainiak 1967/10/26an berronetsia.
- 103.a, amatasunaren babesari buruzkoa (N.L.E. 1952/6/28). Espainiak 1985/9/11ean berronetsia.
- 111.a, enplegu eta lanbideen sarbideko bereizketarik ezari buruzkoa (N.L.E. 1958/6/25). Espainiak 1967/10/26an berronetsia.
- 156.a, sexu bietako langileen arteko aukera eta tratamendu berdintasunari eta familia erantzunkizunei buruzkoa (N.L.E. 1981/6/23). Espainiak 1985/9/11ean berronetsia.

— Europako Ekonomi Elkarteko (E.E.E.) Aginduak:

- 1975/2/10ekoa, balio berbera duten lanetarako ordainketa berdintasuna ezartzen duena, langilearen sexuagatiko bereizketa guztiak ezabatuz, hala nola lanpostuen sailkapenetarako.

  1976/2/9koa, enplegua eskuratzeko, lanbide hezkuntza eta sustapenerako eta lan baldintzetako berdintasunari buruzkoa.

  1978/12/6koa, gizarte segurantzaren alorreko gizon eta emakumeen eskubide berdintasunari buruzkoa.

— Euskadiko Autonomi Elkarteko Autonomi Estatutuko 20.3 artikulua, 10-39ari dagokionean, bere eskumen esparruaren barruko Nazioarteko Itun eta Konbenioen exekuzio alorrean.

## 1.4. Ekintza positiborako neurriak

Zer nolako neurriak hartu dira Euskadin emakumeen aukera berdintasunaren alde?

- Ekintza positibozko neurriak

1989. urtearen bukaeran EMAKUNDEko Zuzendaritza Batzarrak, euskal aginte publiko guztien ordezkaritza duen sailak, «Euskadiko Autonomi Elkarteko Emakumeen Aukera eta Tratu Berdintasunaren aldeko ekintza positiborako Neurriak» onartu zituen, 1990. urtean zehar praktikan jarri zirenak.

- Emakumeentzako Ekintza Positiboen Plagintza Euskadiko Autonomi Elkartean, 1991-94

Emakundek burututako 1991-1994 epealdirako Ekintza Positiboen Plangintza, gizartearen parte hartze zabalarekin, Eusko Jaurlaritzak 1991eko maiatzaren 7an onartu eta Lege Biltzarrari aurkeztu zuen. Zazpi iharduera alor biltzen ditu: Ordenamendu Juridikoa; Kultura; Hezkuntza; Enplegua, heziketa, lan harremanak eta gizarte segurantza; Zerbitzu soziokomunitarioak eta Lankidetza.

Elkarteko Erakundeek ezarritako filosofia politikoan kokaturik, Euskal Agintari Publikoek plangintza hori praktikan jartzean aukera berdintasunetik erresultatu berdintasunera pasatu nahi da.

Plagintza honen helburua benetako berdintasuna lortzea, ez bakarrik legezkoa edo teorikoa, eta horrek nahitanahiez bai esparru publikoan bai familia erantzunkizunen alorrean gertatzen diren oztopoetan eragitea esan nahi du, emakumeen erabateko partehartzea bultzatuz bizitza publikoan (lan merkatua, kultura, politika, etab.) eta xede berberetarako baliabide publikoen birbanaketa erraztuz, beharrezko zerbitzu sozio-komunitarioak sortuz eta familia alorreko lanetan gizon eta emakumeen elkar-erantzunkizuna bultzatuz.

## 1.5. Emakumeen enplegurako laguntzak

Eta emakumeen enpleguari dagokionez?

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak, gizon-emakumeen enplegu eta prestakuntzaren aldeko hainbat neurri ezartzen dituen Lan eta Gizarte Segurantza Sailak erabakiak argitaratu zituen, eta bertan jasota gelditzen direla famili ardurak dituzten 45 urtetik beherako emakumeak kontratatzearen aldeko laguntzak zehazten ditu.

## 1.6. Eskubideak hizkuntzaren mailan

Aukera berdintasunik ba al dago euskara edo erdara ezagutu eta erabiltzerakoan?

Euskadiko Autonomi Estatutuaren 6. artikuluak ezartzen duenez, euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, gaztelerarekin batera Euskadiko hizkuntza ofiziala izango da, eta bertoko biztanle guztiek dute bi hizkuntzak jakin eta erabiltzeko eskubidea.

Zentzu berean, euskararen normalkuntzarako 10/1982 Oinarrizko Legeak pertsona guztiei aitortzen die Euskal Autonomi Elkarteko lurralde-esparruaren barruko Administrazio Publikoarekiko harremanetan nahi duten hizkuntza ofizialean atendituak izateko eskubidea.



# 2. EMAKUMEA PERTSONA DEN ALDETIK

## 2.1. Jaiotza

Derrigorrezkoa al da pertsona baten jaiotza Errolda Zibilean inskribatzea?

**Bai, Legearen aginduz errolda zibilean inskribatzera behartzen duen lehen nortasun-gertakaria da jaiotza; errolda horretan, gainera, beste hainbat gertakari ere inskribatu beharko dira, hala nola seme-alabatasuna, emantzipazioa, ezgaitasuna, ezkontza, banakuntza, dibortzioa edo heriotza.**

**Jaiotzaren froga da Errolda Zibilean egindako inskribaketa, hau da, gertatuaren fede ematen duena eta ordua, lekua, sexua, eta, behar izanez gero, inskribatutakoaren seme-alabatasuna adierazten dituena.**

Zein Errolda Zibiletan inskribatu behar da jaiotza?

**Sorlekuari edota gurasoen ohizko bizitokiari dagokion Errolda Zibilean.**

Nortzuk daude behartuta jaiotza inskribatzera?

**Aita, ama, hurbileneko senidea edo, halakorik izan ezean, jaiotza gertaturiko lekuan presente zegoen edozein pertsona heldu.**

**Jaioberri abandonatuei dagokienez, haiek jaso dituzten pertsonak.**

Zein epe dago jaiotza inskribatzeko?

**Jaiotza bat gertatu dela hogeita lau ordu igaro direnetik jaiotzaren ondoko zortzi egunera bitartean adierazi beharra dago; dena dela, lehenago ez egiteko arrazoizko motiburik azalduz gero, hogei eguneko epea eduki daiteke.**

Legezko epea igaro eta gero inskriba daiteke pertsona baten jaiotza?

**Bai, baina espediente gubernatibo bat tramitatu behar da orduan, hartan frogatu beharko direlarik, besteak beste, jaio denaren nortasuna eta lehenago jaiotza inskribatu ez izana ere bai.**

Deituren kokapena aldatzerik badago, hau da, amarena aurreneko lekuan jartzerik?

Pertsonak, beren izenez eta aitaren eta amaren deiturez izendatzen dira, eta izendapen hori Legeak babesten du denen aurrean.

Dena dela, guraso botereaz baliatzean Auzitegian eska daiteke amaren deitura aitarena baino lehenago jartzea umearen jaiotza inskribatzen denean.

Nolanahi ere, Legeak ezartzen duenez, adin heldutasunera iritsi bezain laster edozein pertsonak alda ditzake lekuz bere deiturak, eta beraz, amarena lehenengo tokian jarri. Horretarako, jaiotza inskribatuta dagoen errolda zibileko arduradunarekin egoteko eskaria baino ez da egin behar.

## 2.2. Emantzipazioa eta adin heldutasuna

Emantzipazioa zer da eta zer nolako eraginak ditu?

Emantzipazioa, adin gutxikoa den pertsonari bere burua gobernatzeko eta bere ondasunez heldua balitz bezala baliatzeko gaitasuna ematen dion ekintza da; dena dela, adin heldutasunera iritsi bitartean pertsona emantzipatuak baditu halako muga batzuk, hala nola dirua mailegutan hartzeko, ondasun higiezinak grabatu edo besteganatzeko ezintasuna, etab.

Nola gertatzen da?

— Adin gutxikoa ezkontzeagatik.
— Guraso boterea duen pertsonak emana; horretarako, adin gutxikoa denak gutxienez 16 urte eduki behar ditu, bai eta emantzipazioa onartzeko prest egon ere. Emantzipazioaren ematea eta onarpena eskritura publikoan konstarazi behar dira edo Errolda Zibilaz arduraturiko Epailearen aurrean agertuz adierazi eta aldaezina izango da.
— Adin gutxikoa denaren eskariz, epaileak erabakita, eta halako zertzelada berezi batzuk gertatuz gero.

Noiz lortzen da adin heldutasuna?

Ondorio zibil zein politikoetarako, 18 urte betetzean.

## 2.3. Nazionalitatea eta hiritartasuna

Zer da nazionalitatea?

Estatu gisa antolatuta izan zein ez bere buruaren jabe izateko nahia duen komunitate nazional bateko kide izateak eta/edo izateko sentimenduak pertsona bati ematen dion ezaugarria.

Nazionalitatetzat, hiritartasun zentzuz, pertsonaren funtsezko egoera zibila ere jotzen da, haren arabera ezartzen bait zaizkio famili eskubide zein betebeharrei, biziegoerari, pertsonaren legezko gaitasunari eta hil ondoko oinordekotzari dagozkion legeak.

Nor da edo izan daiteke euskal herritarra?

Euskal herritar izaera politikoa daukatenak estatuaren lege orokorren arabera auzotasun administratiboa Euskal Erkidego Autonomoko edozein udalerritan duten pertsonak dira.

Eta atzerrian bizi izanez gero?

Atzerrian bizi direnek, bai eta beren ondorengoek ere, hala eskatzen badute behintzat, Euskal Herriko biztanleen eskubide politiko berberak eduki ditzakete, haien azken auzotasun administratiboa Euskal Herrian izan badute, eta oraindik espainiar nazionalitatea baldin badute; horretarako, jaiotza dagokion herriko kontsulatu espainiarrean inskribatu behar da.

Nori ematen dio ordenamendu juridikoak nazionalitate espainiarra?

— Espainiar hiritartasuna du(t)en aita edo/eta ama daukaten pertsonak dira espainiar hiritarrak.
— Espainiako hiritarrak dira Espainako hiritartasun daukaten gurasoen seme-alaba direnak.
— Gurasoak atzerritarrak izanda ere, gutxienez guraso bietatik bat jaiotzez espainiarra daukaten pertsonak. (Salbuespena izango dira kontsulatuetako zerbitzu diplomatikoari atxekitako aita edo ama atzerritarren seme-alabak.)

— Guraso atzerritarrak izanda Espainiako lurraldean jaiotako pertsonak, baldin eta guraso biek nazionalitaterik ez badute edota haietako edozeinen legeriak nazionalitaterik ezartzen ez badio seme-alabari.
— Espainian jaio eta aita-amatasun jakinik ez dutenak. Horretarako Espainiako lurraldean jaiotzat jotzen dira, lehen egontoki ezaguna lurralde espainiarra duten adin txikikoak.

Aita atzerritarra izanez gero, zein izango da seme-alabaren nazionalitatea?

Seme-alabak amaren nazionalitatea izango du oraindik, atzerrian jaioa bada ere; alabaina, hala izanez gero, haren jaiotza kontsulatu espainiarrean inskribatu beharko da.

Seme-alabatzakoek ere, atzerritarrak izan arren, 18 urte baino gutxiagokoak badira, amaren nazionalitatea eduki dezakete.

Nola eskura daiteke nazionalitate espainarra?

— Espainian gutxieneko denboraldi bat bizitzen egon ondoren; urtebete eta 10 urte bitartekoa izan daiteke eskatzailearen zirkunstantzia pertsonalen eta nazionalitatearen arabera.
— Adopzioz, hartzaileetako edozein espainola denean eta osorik adoptaturiko pertsona atzerritarra edo 18 urtetik beherakoa denean.
— Horrela erabakirik, pertsona espainar baten guraso boterearen edo babesaren menpe dauden edo egon diren atzerritarrek nazionalitate espainarra eskuratzeko aukera izango dute 14 urtetik aurrera eta emantzipazioa edo adin nagusitasuna lortu eta bi urte pasa arte. Aukera hori egiten duenaren ordezkaritza legalak ere egin dezake aukeraren aitorpena, aukeratzaileak hamalau urteak bete baino lehen.
— Errege Dekretuaren bidezko emakida bereziaz, interesatuaren zirkunstantzia bereziak direla eta eta berorrek eskaturik.

Ezkontzak ez du aldatzen ezkongaien nazionalitatea; alabaina, senarrak emaztearen nazionalitatea edukitzea eskatu ahalko du urtebete badarama bizitzen legez eta modu jarraituan Espainiako lurraldean. Emakumeak gutxienez hiru urte badaramatza atzerrian bizitzen, senarraren nazionalitatea eska dezake bere jatorrizko nazionalitateari uko eginez. Hori eginez gero, jatorrizko nazionalitatea berreskuratu ahalko du, jasotakoari uko ekin ondoren, Espainiako lurraldean bizi ez izan arren ere.

## Zein arrazoirengatik galtzen da nazionalitate espainiarra?

Hurrengo hauek galtzen dute nazionalitate espainiarra:

— Normalean atzerrian bizi diren emantzipatuek, borondatez beste nazionalitate bat hartzen dutenean edo emantzipazioa baino lehen zuten atzerriko nazionalitatea baino erabiltzen ez dutenean.
  Galera atzerriko nazionalitatea eskuratu zenetik edo emantzipazioa gertatu zenetik kontaturik gutxienik hiru urte pasa ondoren gertatuko da. (Salbuespena izango da hartutako nazionalitatea herri jakin batzuetakoa denean, esaterako Iberoamerikako herrietakoa).

— Nazionalitatearen uko espresua egiten duten espainiar emantzipatuek, beste nazionalitate bat baldin badute eta normalean atzerrian bizi baldin badira.

— Jatorriz espainiarrak ez diren pertsonek nazionalitate espainiarra galduko dute Epai tinkoak horretarako zigorra ezarriz gero, bai eta beren borondatez eta Espainiako Gobernuaren debeku espresoaren kontra Estatu atzerritar batetako armadan sartu edo kargu politikoan arituz gero.

## Nazionalitate espainiarra galtzen al du atzerritar batekin ezkondutako emakumeak?

Ezkontzagatik ez da nazionalitate espainiarra galtzen, eta ezkontide atzerritarrak ere ez du nazionalitate espainiarra eskuratzen emakume espainarrarekin ezkontzeagatik, baina horrela eska dezake ezkonduta urtebete pasa ondoren eta legez edo ekintzez banandurik ez balego.

Gurasoek espainiar nazionalitatea galduz gero, seme-alabek ere galtzen al dute?

Ez, gurasoek galdu arren, seme-alabek ez dute galtzen espainiar nazionalitatea, ez eta atzerritar baten guraso boterearen pean egonda ere.

## 2.4. Auzotasun zibil amankomuna eta/edo forala

Zer da auzotasun zibila?

Pertsonaren egoera bat da, bere ekiteko gaitasunean eragina izan dezakeenez gero, Kode zibil amankomuna ala forala aplikatu behar ote den zehazten duena. Horrek eraginik eduki dezake ondasunen gorabeheretan, oinordekotza kasuetan esaterako, bai eta eskontzaren erregimen ekonomikoan ere.

Ohizko helbide edo bizilekua al da «auzotasuna» zehazten duena?

Ez beti. Halako udalerriko «auzokide» izateko, udalerri horretan erroldatuta (Udalean inskribaturik) egon beharra dago.

Nola jaso edo alda daiteke auzotasun zibil amankomuna eta aforatua?

Zuzenbide amankomuneko lurraldeko edo zuzenbide foraleko lurraldeko auzotasun zibila bi urte jarraian bertan biziz (eta erroldatuta egonez) eskuratzen da, emakumeak nahi hori adierazten badu.

Hamar urte jarraian biziz ere eskura daiteke, epe horretan aurkako azalpenik egiten ez den bitartean.

Azalpen bata zein bestea Errolda Zibilean jasoko dira, berretsi beharrik egongo ez delarik.

Emakume ezkonduaren eta seme-alaben auzotasun zibila

Ezkontzak ez du aldatzen ezkontideen auzotasun zibila, baina, hala ere, batak bestearen auzotasun zibila eska dezake legez eta izatez bananduta daudenean izan ezik.

Seme-alabek gurasoen auzotasun zibila bera daukate.

Dena dela, auzotasun hori ez bada sorlekuari dagokiona, seme-alabek, 14 urte bete ondorengo urtean edota emantzipatzean, sorlekuari dagokiona eskatu ahal dute errolda zibilaren arduradunaren bidez.

## Zer nolako ondorioak ditu auzotasun aforatuak?

Auzotasun zibil aforatua edukitzeak esan nahi du Bizkaiko Foru Zuzenbidearen mende egotea, eta ez Kode Zibilaren mende, hainbat alorretan; esaterako, ezkontideen erregimen ekonomikoan, oinordekotzaren eskubideetan, alargunen usufruktuan, testamentuak komisari bidez egitean, testamentu mankomunatuetan, seniparteen zenbatekoan, oinordekoa aukeratzeko askatasunean, etab.

Bizkaitarra izatea, berez auzotasun zibila ez badakar ere, kontutan hartzen da, baita ere, sortetxezkotasunetik etorritako eskubide edo betebeharretarako, batez ere sortetxezko ondasunei dagokienetarako (hau da, Bizkaiko Lur Lau edo Infantzonatuan kokatuta egonda, sortetxetik datozen ondasun higiezinetarako).

## Nor dago Bizkaiko foru zuzenbide zibilaren mende?

Ebazpen batzuek bizkaitar guztiak hartzen dituzte beren mende, baina arau gehienek foru lurretan auzotasun zibila dutenak hartzen dituzte beren mende.
Foru Lurra gaur egungo Bizkaiko Lurralde Historikoa da, alde batera utzirik ondoko hiriotako hiriguneak: Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina, Otxandio, Ondarroa, Portugalete, Plentzia, Balmaseda eta Urduña hiria.

Bilboko udalerri osoa ere Foru Lurretik kanpo geratzen da.

Aldiz, foru lurren artean daude Arabako Laudio eta Aramaioko udalerriak.

Etorkizun hurbilean, hirien lur aforatugabeek aukeratu ahalko dute Foru Zuzenbidepean egotea ala ez.

Oharra: Bizkaia eta Arabako Batzarre Nagusiek foru zuzenbide zibilaren eguneratzeari buruzko Lege Proposamena prestatu dute Eusko Legebiltzarrari igortzeko, eta gertatzen diren aldaketak edo moldaketak onartu eta argitaratu ondoren, berauek kontutan eduki beharko dira.



# 3. EMAKUMEA, FAMILIA ETA ELKARBIZITZA

## 3.1. Emakumea eta Familia

### 3.1.1. Ezkontza

Zer da ezkontza zibila?

Ezkontideetako edozeinen bizilekuko Errolda Zibileko arduraduna den Epailearen aurrean gertatzen dena da. Horrelako Epailerik ez dagoen udalerrian Alkatea edo arauz izendaturiko ordezkoa izango da eskuduna. Atzerrian bestetik, Errolda Zibilaren ardura duen funtzionari diplomatiko kontsularra izango da eskuduna.

Zer agiri behar dira ezkontza zibila egiteko?

Ezkonduko direnen jaiotze-ziurtagiri hitzez-hitzezkoak, N.A.N.en fotokopiak, eta bizilekuko errolda-agiria behar dira, eta bietakoren bat dibortziatuta egonez gero edo ezkontza baliogabekotzat hartua izan bazen, dibortzioa nahiz baliogabetasuna inskribaturik agertzen duen ezkonagiri hitzez-hitzezkoa.

Zein alde dago ezkontza zibilaren eta erlijiosoaren artean?

Formari dagokionez, Estatuak erlijioaren arabera egindako ezkontzak balio osoz onartzen ditu, baina gaur egun Eliza Katolikoaren errituen arabera ospaturikoari bakarrik aitortzen dizkio ondorio zibilak.

Hortaz, era batera zein bestera egindako ezkontzek balio berbera dute eta legearekiko ondorio berberak eragiten dituzte.

Modu erlijiosoan ezkontzen denak modu zibilean ezkondu beharra al dauka?

Ez, Eliza Katolikoaren bidez egindako ezkontzak gertatzen den une beretik eragiten ditu legearekiko ondorioak; alabaina, eragina izan dezan, leku bakoitzari dagokion Errolda Zibilean inskribatu behar da, horretarako Elizak luzaturiko ziurtagiria aski delarik.

Zer da Familia Liburua?

Ezkontzaren ziurtagiriarekin hasten den liburua da eta ondorengo orrialdeetan ipintzen dira, ziurtagiri indarrez, abizenen aldaketari buruzko gorabehera guztiak, semealaba amankomun eta adoptatuen jaiotza eta heriotzak (emantzipazioa baino lehen gertatuz gero), ezkontz-sozietatearen erregimen ekonomikoa... Ezkontza Erroldan inskribatu ahala ematen zaie ezkontideei eta beraiek edo guraso boterearen titulartasuna duenak gorde behar dute. Ezkontzatik kanpoko seme-alaba du(t)en gurasoari(ei) ere Familia Liburua ematen zaio(e). Ezkontideek eta tituludunek edota guraso boterearen titularrak Familia Liburua gorde beharra dute eta, galdu edo hondatuz gero bikoiztua eska dezakete Erroldan.

### 3.1.2. Ezkontzaren ondorioak

Eskubide eta betebehar berberak al dauzkate senarrak eta emazteak?

Bai, hala da; legeak ezartzen duenez, senarra eta emaztea berdinak dira eskubide eta betebeharrei dagokienez: elkarri begirunea eduki, lagundu eta familiaren onerako aritu behar dute biek; elkarrekin bizi behar dute, elkarrenganako fideltasuna eduki eta elkarri lagundu. Elkarlaguntzaren kontzeptu honetan elikadura hornitzekoa ere sartzen da.

Emakumearen betebeharra al da etxeko lanak egitea?

Eskubide eta betebehar berditasuna dagoenez gero, etxeko lanak ezkontide bien artean banatuko dira, biak ados jarririk.

Senarrak emaztearen ordezkotza har al dezake?

Ez, ezkontide batek ezin du bestearen ordezkotza hartu, ematen ez zaion bitartean. Horregatik, ezkontide bakoitzak bestearen baimenik gabe egin ditzake familiaren ohizko beharrizanak asetzeko egin beharrekoak.

Nork erabakitzen du ezkontideen helbidea?

Ezkontideen helbidea biek erabaki behar dute ados jarrita. Adostasunik egon ezean, Epaileak erabakiko du, familiaren onura kontutan harturik.

Senarraren baimenik gabe, emakumeak ba al du ezkontideen etxetik irtetzerik?

Senar-emazteek elkarrekin bizi beharra badute ere, etxetik irten ahal izateko ez dute elkarren baimenik behar lan egiteko, senitarteak ikustera joateko, oporretara joateko, gurasoak gaisotzen direnean ikustera joateko, eta antzeko arrazoizko motibuengatik.

### 3.1.3. Familia abandonatzea

Zer gertatzen da ezkotide batek etxea abandonatzen badu?

Abandonua gaiztoz egiten bada, eta ezkontideak bere betebeharrak bertan behera uzten baditu, delitutzat har daiteke jokamolde hori, bai eta kartzelaz (hilabete batetik sei hilabetera bitartean) eta ehun milatik bostehun mila pezetara bitarteko isunez zigortu ere.

Delitutzat joko da halaber, jokaera desordenatuagatiko legezko laguntza betebeharrak abondonatzea.

Nolanahi ere, Legeak ezartzen duenez, arrazoizko motibuagatik etxetik irten eta hogeita hamar eguneko epean banatzeko eskaria aurkezten edo behin-behineko neurriak eskatzen dituenak ez du elkarrekin bizi beharra hausten.

Zer egin daiteke senarrak ez badu dirurik ematen familiaren betebeharrak asetzeko?

Emaztearen eta seme-alaben mantenurako ezinbestekoa den laguntza emateari utziz gero, senarrak delitua egin lezake familia abandonatzeagatik, eta, beraz, haren aurkako salaketa egin edo auzitara eraman daiteke horregatik.

Elikaduraren auzibidezko erreklamazioa ere aurkez daiteke haren aurka, epaileak beharrizan horretarako dirukopuru bat ordaintzera zigor dezan senarra. Bestela, behin-behineko neurriak ere eska daitezke, ezkontideak banatzeko eskatu baino lehen, horrek ere janarietarako pentsioa ezarriko bait du.

Emakumeak lortu al dezake senarrak lan egiten duen enpresak soldataren zati bat berari ematea?

Ez, enpresak epailearen aginduz bakarrik egin dezake horrelakorik. Horretarako goian aipaturiko auzi prozeduretakoren bati ekin beharra dago.

Emakumeak familiaren mantenuan derrigorrez lagundu beharra al dauka?

Bi ezkontideek daukate betebehar hori, baina emakumea etxeko lanetan besterik aritzen ez bada, lan hori familiaren mantenurako berak egiten duena dela ulertzen da.

### 3.1.4. Fideltasunik eza

Zer gertatzen da fideltasunik ezean?

Elkarri zor dioten fideltasuna hausten duen ezkontideari, nahiz egun adulterioa delitu ez izan, banatzeko demanda aurkez dakioke arrazoi horregatik, aldez aurretik izatez eta elkarren adostasunez banatuta ez badaude, edota fideltasuna hautsi duenari besteak ezarritako erabakiagatik.

## 3.2. Izatezko bikoteak

Zer nolako eskubide eta betebeharrak dauzkate ezkondu gabe elkarrekin bizi diren pertsonek?

Era honetako elkarbizitzak bizilagunentzat eskubide eta betebehar berezirik ez duela sortzen esaten da. Puntu honetaz ez dago gaur egun inolako legeriarik, baina etorkizunean gerta daiteke egotea. Epaile eta Auzitegiek ere erabakiak hartuz joango dira elkarbizitza mota honetatik sortutako arazoak gertatu ahala, eta modu horretan nolabaiteko jurisprudentzia finkatuz joango da hari buruz.

Beraz, harreman honek zentzu legalean bizilagunen artean inolako elikatze beharrik ez dakarrela jotzen da, eta beste horrenbeste gertatzen da elkarrekin bizitzen jarraitzeko eta elkarlaguntza ekonomikoa emateko beharrarekin; hortaz, elkarbizitza hautsiz gero, oso kasu berezietan eskatu ahalko zaio ordainik hausketa hori eragiten duenari.

Ezkongabeko bikoteek ez dute Legeak ezkontideei ezartzen dizkien obligazioak bete beharrik.

Ba al du emakumeak bere bizilagunaren osasun laguntzarako kartilan sartuta egoteko eskubiderik?

Bai, dirubideei dagokienez bizilagun horren menpe badago.

Ba al du emakumeak alargun saririk jasotzeko eskubiderik bizilaguna hilez gero?

**Ez, kasu horretan emakumeak ez dauka alargun saria jasotzeko eskubiderik.**

Ba al du emakumeak kalte ordainik jasotzeko eskubiderik legez kanpoko ekintza penal edo zibil batengatik bizilaguna hilez gero?

**Bai, balizko kasu horietan emakumea kalteduntzat hartzen da, eta, beraz, bizilagunaren heriotzagatik zentzu guztietan jasaten duen galeraren truke ordaina jasotzeko eskubidea dauka.**

Bikotea osatzen dutenak haietako bakar batek alokaturiko etxean bizi badira elkarrekin, ba al du beste bizilagunak alokera kontratua bere izenean jartzeko eskubidea, kontratu horren titularra den bizilaguna hilez gero?

**Auzitegiren batek ebatzi du Hiri-Alokerarako Legeak aipatzen duen ezkontidearekin pareka litekeela bikote iraunkor bateko kidea, baina, nolanahi ere, etxebizitzaren alokatzailearekin ados jartzerik ez balego auzibidera jo beharko litzateke arazo hori konpontzeko.**

Bikote bat etxe berean bizitzen egon eta banatzea erabakitzen badute, nork aldegin behar du etxetik?

**Etxearen jabetzaren edo alokeraren titularrak biak badira, eskubide bera izango dute biek geratzeko. Bestela izanez gero, titulartasuna duen bizilagunak izango du etxean geratzeko eskubidea.**

**Dena dela, bikoteak adin gutxiko seme-alabarik edukiz gero, eta legeak horretaz ezer esaten ez badu ere, komenigarria litzateke epaileen laguntza eskatzea titularra ez dena umeekin batera etxean geratzeko, ume horien onurari begira.**

Bikotea banatuz gero, adin gutxiko umerik badute, nork hartuko du ume horien ardura?

**Bikotea osatzen dutenak ados jartzen ez badira, Epaileak erabakiko du, beti ere adin gutxikoen on beharrez.**

Etxea utz lezake emakumeak, bakarrik edo ume eta guzti, bizilagunak kontra egiten badio ere?

**Bai, ez dagoelako elkarrekin derrigorrez bizi beharrik; alabaina, bizilagunak aita gisa seme eta alabekiko eskubide eta betebehar guztiak edukiko lituzke oraindik.**

Bikoteak ba al du bere harremanak, bai eta gerta litekeen hausketaren ondorioak ere arautzerik?

**Bai, Notariaren aurrean agiri pribatua eginez.**

## 3.3. Seme-alabak

### 3.3.1. Berdintasun legala

Seme-alaba guztiak berdinak al dira Legeari dagokionez?

**Konstituzioak jaiotzagatik eta sexuagatik gerta daitekeen edozein bazterkeria debekatzen du, eta, beraz, seme-alabek eskubide berberak dauzkate. Herri aginteek babesten dituzte seme-alabak, ezkontzakoak, ezkontzaz kanpokoak zein adoptatuak izan, eta denek dauzkate gurasoen abizenak eramateko eskubide bera.**

### 3.3.2. Guraso boterea

Zer da guraso boterea?

**Gurasoek adin gutxiko beren seme-alabekiko eta berauen ondasunekiko dauzkaten eskubide eta betebehar multzoa da: hau da, seme-alabak beraiekin edukitzea, elikadura ematea, hezitzea, prestakuntza fisiko eta intelektuala ematea, bai eta haien ordezkoak izatea eta haien ondasunak administratzea adin heldutasunera iritsi bitartean, beti ere adin gutxikoen on beharrez.**

### Noren esku dago guraso boterea?

Guraso boterea aitaren eta amaren esku dago aldi berean, edo bestela haietako baten eskuan bakarrik, besteak berezko zein isilezko baimena emanez gero.

Gurasoak ados ez badaude, auzi agintariengana jo beharko dute, erabakitzeko gaitasuna amari ala aitari ematea ebazteko.

Gurasoak banatzen badira, guraso boterea seme-alabekin bizi denaren esku geratuko da, baldin eta epaileak bi gurasoen esku uzten ez badu edo aita eta amaren artean banatzen ez baditu guraso botereari dagozkion zereginak.

### Noiz amaitzen da guraso botereaz baliatzeko ardura?

Guraso boterea adin gutxiko umeekiko ardura da, hau da, emantzipatu gabe dauden 18 urte baino gutxiagoko seme-alabak hartzen ditu mendean.

### Bidal daiteke etxetik 18 urte baino gutxiagoko semerik edo alabarik?

Ez, etxean edukitzea derrigorrezkoa delako. Gainera, zenbaitzutan halako jokamoldea abandonu delitutzat jo ere egin liteke.

### Aitari edo amari guraso boterea kentzerik ba al dago?

Bai, epailearen sententziaz kendu dakioke aitari zein amari guraso boterea, guraso botereari dagozkion betebeharrak ez betetzeagatik.

### Zein betebehar dute seme-alabek gurasoekiko?

Haien mende dauden bitartean obeditzea, haiekiko begirunea izatea eta familiarekin batera bizi diren bitartean eta beren ahalbideen arabera familiako zamak arintzen laguntzea.

### 3.3.3. Adopzioa

Zertan datza adopzioa?

Adopzioa negozio juridiko bat da, pertsona adoptatzaile eta pertsona adoptatuaren artean guraso eta seme-alaben arteko harremanaren antzeko lotura ezartzen duena.

Nortzuek har dezakete seme-alabatzakorik?

25 urtetik gorako pertsonek adopta dezakete, baldin eta adoptatzen denak baino hamalau urte gehiago badute.

Adoptatzaileak ezkonduta badaude edo bikote iraunkorra osatzen badute, aski da haietako batek edukitzea esandako adina.

Emakume batek bere kasa har dezake ume bat seme-alabatzat?

Bai, adinari dagozkion baldintzak betez gero.

Nor har daiteke seme-alabatzat?

Emantzipatu gabe dauden adin gutxikoak bakarrik har daitezke seme-alabatzat. Adinez heldua den norbait edo emantzipatuta dagoen adin gutxiko norbait ere har daiteke, baldin eta emantzipazioa gertatu aurretik seme-alabatzat hartutako pertsona adoptatzailearen etxean bizitzen egon bada 14 urte zituenetik.

Legeak zenbait senitarteko seme-alabatzat hartzea debekatzen du.

Emakume bat bere seme/alaba adopziotan ematera behartzerik ba al dago?

Ez. Adopzioa gertatu ahal izateko adoptatu nahi den pertsonaren guraso biek eman behar dute baimena, legez guraso boterea kendu zaienean edo botere hori kentzeko auzitan daudenean, edota adin gutxiko pertsona hori emantzipatuta dagoenean izan ezik.

Amak ezin dezake baimenik eman erditu ondoren 30 egun igaro bitartean.

Nora jo behar du adin gutxiko bat seme-alabatzat hartu nahi duen emakumeak?

Hasteko, adopzioa egin nahi duen pertsonaren bizilekuari dagokion Aldundiaren Gizarte-Ongizate Saileko Adin Gutxikoentzako Sailera jo behar da.

Gero, adopzioa burutu ahal izateko, auzi-espediente bati ekin behar zaio, Aldundiak eginiko adopzio proposamen batekin hasita; hartan, aukeratutako adoptatzailearen edo adoptatzaileen ezaugarri pertsonal, familiar, sozialak eta bizibidea azalduko dira, bai eta adoptaturiko pertsonarekin zer nolako harremanak dituen, eta abar.

Espedientea auzitegiaren erabaki batez amaitzen da, beti ere adoptatu nahi den pertsonaren onura kontutan hartuz.

Aldundiaren proposamenik ez da beharko seme-alabatzat hartu nahi dena ondoko egoera hauetako batean aurkitzen bada:

— Umezurtz eta odolkidetasunez edo kidetasunez adoptatzailearen hirugarren graduko senitartekoa izanez gero.
— Adoptatzailearen ezkontidearen seme-alaba izanez gero.
— Adoptatzailearen ardurapean hartua edo haren tutelapean urtebetetik gora eramanez gero.
— Adinez heldua edo adin gutxiko emantzipatua izanez gero.

## 3.3.4. Ezkontzaz kanpoko seme-alabak

Emakume ezkongai batek umea egiten badu, zer nolako ondorioak ekarriko ditu aitak seme-alabatzat aitortzeak?

Aitak bere seme-alabatzat aitortzen badu, hura elikatzeko beharra eta bisitatzeko eskubidea izango du bi gurasoak elkarrekin bizi ez badira; honelako kasuetan, guraso boterea bien artean banatuko dute.

Emakumeak aitorpen horri kontra egin diezaioke?

Adin gutxikoen kasuan, aitorpen horrek amaren baimen ageria behar izaten du, baina honelakorik gertatzen ez bada, orduan aitak auzibidera jo dezake aitorpen hori lortzeko, eta amak aitatasuna ukatuz baino ezin diezaioke kontra egin. Gai-

nera, aitak testamentuan aitor dezake, edota jaiotza inskribatzeko legez ezarrita dagoen epearen barruan; honelako kasuetan, hala ere, aitatasunaren inskribapena bertan behera utz daiteke jaiotzaren ondoko urtebetean, amak hala eskatzen badu. Aitak inskribapena ziurta dadila eskatuz gero, epaileak onartu beharko du.

Emakume batek bere umearen aita berau seme-alabatzat aitortzera behartzerik ba al du?

Bai, eta aita ukatzen bada, auzibidez eska dezake aitatasuna aldarrika dadin, abokatu eta prokuradorearen partaidetzaz gauzatu beharko den prozedura baten bidez.

Demandarekin batera froga moduko zerbait ere aurkeztu beharko da, eta auzian era guztietako frogak onartuko dira, baita biologikoak ere. Aita proba biologikoak egitera ukatzen bada, Auzitegiek haren aurkakotzat hartuko dute ukapen hori.

Epaileak aitatasuna egozten badio aitatasun hori ukatu zuen aita bati, beronek umearekiko guraso boterea galduko du, baina aita gisa dituen betebehar guztiek bere hartan jarraituko dute.

Emakume ezkonduak seme-alabatzat aitor dezake ezkontzaz kanpo edukitako umea?

Hasteko, aitatzat senarra hartzen da, baina kontrakoa frogatzen bada, orduan bai aitor lezake ezkontzaz kanpo edukitako umetzat.

Ezkontzaz kanpo edukitako umea seme-alabatzat aitortzerik ba al du gizon ezkonduak?

Bai, kasu honetan legeak ez du inolako oztoporik jartzen.

Aitak umea seme-alabatzat aitortuz gero, amari kustodia kentzerik izango luke?

Legeak dionez, adin gutxiko neska-mutilak epailearen eritziz adin gutxikoaren onerako egokiena den gurasoaren kustodia edo zaintzapean egongo dira.

Epaileak bere ustez egokiena den gurasoari ematen dio adin gutxikoaren kustodia harekin bizi dadin, beti ere seme-alaben onerako; horretarako, adin gutxikoen eritzia ere aintzat har dezake ezaguera edo adimen nahikoa badute, eta ezinbestez hartuko du hamabi urte baino gehiago badute.

### 3.3.5. Lagunduriko ernalketak

**Zer dira lagunduriko ernalketarako teknikak?**

Giza antzutasunari aurre egin nahirik, ernalketa bideratzearren beste bitarte terapeutikoak egokiak edo aski ez direla eta, medikuntzaren baliabideak erabiltzea da.

**Nortzuek erabil ditzakete teknika horiek?**

Legeak gizon-emakume bikoteei ematen die baimena horrelako teknikak erabiltzeko, ezkonduta egon zein ez, bai eta edozein emakumeri ere, gizonezko batekin bizi zein ez, baldin eta askatasunez, konszienteki, espreski eta idatziz onartzen badute teknika horiek erabiltzea, eta gutxienez hamazortzi urte badituzte.

**Noiz erabil daitezke teknika horiek?**

Bakar-bakarrik arrakasta lortzeko arrazoizko posibilitatea dagoenean eta horien erabilpenak emakumearen edo balizko seme-alaben osasuna arrisku larrian jartzen ez badute.

Teknika horietaz baliatu nahi duen emakumeak osasun fisiko eta psikiko ona eduki behar du.

**Adin mugarik ba al dago teknika horietaz baliatu nahi duen emakumearentzat?**

Legeak ez dio emakumeari inolako adin mugarik ezartzen, baina adina ez bada egokia, haurdunaldia bitartean eta seme-alabentzat arriskuak gerta daitezkeela adierazi behar zaiola agintzen du.

**Emakume bat teknika horietaz baliatzen hasita jarraitu nahi ez badu, bertan behera uzteko eska dezake?**

Bai; hasieran onartu arren, teknika horien erabilpena bertan behera uzteko eska dezake edozein momentutan, eta derrigorrez bete beharko da eskari hori.

**Teknika horietaz baliatzen den emakumea ezkonduta badago, senarraren baimena behar al du?**

Bai, ezkontidearen baimena beharko du, espreski, askatasunez, idatziz eta konszienteki emana. Bestela, gerta daitekeena da jaiotzen den umea ezkontzaz kanpokotzat jotzea.

**Eta emakumea banatuta badago?**

Emakumea banatuta egonez gero, auzibidez edo izatez, ez du ezkontidearen baimena behar.

**Eta «izatezko bikote» direnek?**

Honelakoetan emakumea ezkongaitzat hartzen denez, ez du ohizko ezkontidearen baimena eduki beharrik.

**Zein izan daiteke emaile?**

Emailea gizonezkoa zein emakumezkoa izan daiteke. Lagunduriko ernalketarako teknikak erabili ahal izateko behar den gai genetikoa, gametoak edo aurreenbrioiak baimendutako zentru bati ematen dizkiona da.

Emaileak 18 urtetik gorakoa izan behar du, eta beharrezkotzat jotzen diren azterketa psikofisikoak gainditu beharko ditu; baimendutako zentruak behartuta daude emaileak gaisotasun genetiko, hereditario edo infekzio kutsakorrik ez duela ziurtatzera.

**Jakin daiteke nor den emailea?**

Ez, emailearen nortasuna Ospital Zentruan bakarrik jasota dago, eta hartzaileak bezala jaiotako umeak ere ez dute haren berri; alabaina, emailearen datu biogenetikoak eta argibide orokor batzuk jakiterik badute, ez ordea izena, aparteko egoera baten eraginez umearen bizitza arriskutan badago, edota auzibidezko legeen arabera jokatzen bada izan ezik.

### 3.3.6. Lagunduriko ernalketak eta seme-alabatasuna

Lagunduriko ernalketarako teknikez baliatzen den emakumea ezkonduta badago, teknika horien eraginez jaiotzen den umeak zer nolako seme-alabatasuna izango du?

Senarraren hazia erabiliz egin bada ernalketa, orduan umea ezkontzakoa da.

Halaber, hazia eman duena emakumearen senarra ez bada, baina ernalketarako baimena eman badu senarrak, orduan ere umea ezkontzakoa izango da.

Aldiz, senarraren gai genetikoa erabili arren, emakumearen ernalketa egiteko senarrak espreski bere baimena ematen ez badu, umea ezkontzakoa izango da hasteko, baina senarrak seme-alabatasuna inpugnatu ahalko du.

Senarrak baimena eman ez badu eta erabili den gai genetikoa berea ez bada, umea ezkontzaz kanpokoa izango da.

Eta ezkongabeko bikote iraunkorren kasuan?

Ernalkuntza bizilagunaren haziaz egin bada, haren aitatasuna ukaezina da, baina formalki zehaztu beharko da, bai berak Errolda Zibilaren arduradunari adieraziz, bai testamentuan edo beste edozein agiri publikotan agertuz, edo Errolda Zibilaren legeriaren arabera osaturiko espediente baten bidez, edota horretarako hasitako auzi prozedura batean emandako epaiaz.

Erabilitako gai genetikoa bizilagunarena izanda, haren baimenik gabe erabilia bada, ezin dakioke aitatasunik egotzi, berak nahita onartzen ez badu.

Halaber, ezezagun baten hazia erabiltzen denean, bizilagunaren aitatasuna ez da aldarrikatuko ernalketa egiteko berak baimenik eman ez bazuen. Aitzitik, beste inoren gai genetikoa erabiltzea onartu bazuen, ez du biderik izango harreman biologiko ezaren argudioa erabiliz aitatasuna inpugnatzeko.

Eta lagunduriko ernalketaz baliatzen den emakumea ezkongai badago?

Honelako kasuetan, umeak amaren aldeko seme-alabatasuna izango du, eta ez du inolako eskubiderik izango emaileari aitatasuna erreklamatzeko ekintzarik egiteko.

### 3.3.7. Amatasun subrogatua. «Alokaturiko amak»

Kontraturik egin al daiteke emakume batekin ume batez erditu, eta gero hari uko egin eta kontratatzailearen esku utz dezan?

**Ez, Legeak ezartzen duenez, lege indarrik gabekoak dira halako ernalkuntza egiteko kontratuak, hau da, ordaina emanda zein eman gabe ere, emakume bat hartu eta bere amatasuna kontratatzailearen edo beste inoren esku uzteko egiten direnak.**

**Honelakoetan, erditzeak erabakitzen du amatasuna, hau da, ama biologikoa izango da beti ama. Emakume hori ezkonduta badago, aitatzat haren senarra hartuko da, baina honek aitatasun hori inpugnatzeko aukera izango du.**

**Gainera, aitatasuna aita biologikoari erreklamatzeko aukera egongo da beti.**

### 3.3.8. «Post mortem» ernalkuntza

Emakume baten ernalkuntza haren senar edo bizilaguna hil ondoren ere egin daiteke?

**Legeak onartu egiten du ernalkuntza hildako senar edo bizilagunaren haziaz egitea, edota senar edo bizilagunaren haziaz ernaldutako enbrioi bat umetokian ezartzea, baina ondoko baldintza hauekin:**

- **Senar edo bizilagunaren baimena behar da.**
- **Baimen horrek formala izan behar du, idazki publikoan edo testamentuan agertu behar bait du.**
- **Senar edo bizilaguna hil ondoko sei hilabeteen barruan bakarrik erabili ahal da gai genetikoa.**

Honelakoetan nola finkatzen da seme-alabatasuna?

**Gurasoak ezkonduta bazeuden, umea ezkontzakoa izango da legearen ondorio guztietarako, oinordekotzari buruzkoak barne.**

**Izatezko bikotea bada, hots ezkongabea, bizilagunaren baimenak, legeak eskatzen dituen baldintzak beteaz emanda egonez gero, eskubidea ematen dio jaiotakoari hildakoaren ezkontzaz kanpoko umetzat hartua izateko eskaria egiteko.**

### 3.3.9. Senitarteen arteko elikadura

Zer adierazi nahi du «elikadura» hitzak?

**Legearen arabera, elikaduratzat hartzen dira mantenurako, bizitzeko, jazteko, heziketarako, osasun babesa edukitzeko eta haurdunaldiaren eta erditzearen gastuak ordaintzeko behar diren guztiak.**

Nor dago behartuta elikaduraz elkar hornitzeko?

**Ezkontideak, aurrekoak (gurasoak, aiton-amonak...) eta ondorengoak (seme-alabak, ilobak...), eta nebarrebak; azken hauek, hala ere, bizitzarako eta heziketarako behar diren laguntzak bakarrik eman behar dizkiote elkarri.**

Behartuta al daude gurasoak 18 urtetik gorako seme-alabak mantendu eta haien ikasketak ordaintzera?

**Bai, betebehar horiek elikaduraz hornitzeko beharraren barruan daudela ulertzen bait da. Ekonomikoki euren kasa moldatzeko gauza izan daitezen arte ordaindu behar diete, baina ez, ordea, eurei leporatu beharreko arrazoiren bategatik ondasunik edo lanik ez badute.**

Alaba ezkongai bat haurdun geratu eta erditzeagatik gertatzen diren gastuak ere ordaindu behar lituzkete gurasoek, alaba adinez nagusi izanda?

**Bai, alabak bestelako baliabide ekonomikorik ez badu.**

### 3.3.10. Adin gutxikoekiko tratu txarrak eta abandonua

Zer nolako erantzunkizuna dute beren seme-alabez arduratzen ez diren eta/edo haiek tratu txarrez erabiltzen dituzten gurasoek?

**Euren beharrak betetzen ez badituzte, familia abandonatzearen delituan erori eta horregatik kartzela zigorra jasan dezakete, eta guraso boterea galdu.**

**Tratu txarrik gertatuz gero, zauriak eragitearen delitu edo hutsagatik zigorra ere jasan dezakete, zenbait kasutan kartzelaz zigortuak izan daitezkeelarik.**

Zer egin daiteke horrelakorik gertatuz gero?

Betebeharrak betetzen ez dituena gurasoetako bat izanez gero, besteak egoera hori salatu behar du, ezkontideen banaketa edo elikadura eman beharra ere eska dezakeelarik, bai eta guraso horri guraso boterea kentzeko ere.

Tratu txarrik gertatuz gero, gurasoek bezala egoera horren berri dakien beste edonork ere salatu beharko dio Ertzaintzari, Polizia Komisaldegiari edo Goardiako Epaitegiari.

## 3.4. Ezkontideen erregimen ekonomikoak

Zer da ezkontideen erregimen ekonomikoa?

Ezkontideen ekonomia antolatu eta arautzen duten arau juridikoen multzoa da.

Derrigorrezko erregimen ekonomikorik ba al da ezkontideentzat?

Ez. Ezkontideek ezkon kapitulazio edo hitzarmenen bidez erabaki dezakete zer nolako arau ekonomikoak nahi dituzten, baina normalean ezagunak diren sistemetako bat aukeratu ohi da, alegia, irabazizko elkartea, ondasun banaketa, partaidetza edo ondasun komunitate unibertsala, edo haien aldagairen bat.

Nola aukeratzen da bide bat edo bestea?

Aukera hori egiteko, ezkontzako hitzarmen idazki bat egin beharra dago, haren bidez ezkontideek ezkontzaren ondasunak araupetuko dituen bidea ezarriko dutelarik.

Idazkia notari aurrean tajutu behar da derrigorrez.

Eta espreski inolako aukerarik egin ez badute?

Ezkontideek ezkontza hitzarmenik egin ez badute, aforatugabeen ordezko erregimena irabazizko elkartea izango da, eta aforatuena, aldiz, ondasunen komunikazio forala.

Ezkontzako hitzarmena ezkondu aurretik egin daiteke?

Bai, ezkontzako hitzarmena ezkondu aurretik bezala ondotik ere egin daiteke, baina ezkondu aurretik egindakoak balioa eduki ahal izateko, ezkontza urtebeteko epean egin beharko da.

Senarrak ba al du bere emaztea hitzarmena egitera behartzerik?

Ez, ezkontide biek ados egon behar dute hitzarmena egiteko, eta gainera klausularen batek ezkontide bien eskubide berdintasuna mugatzen badu baliorik gabekoa izango da.

Zenbat aldiz egin daiteke ezkontzako hitzarmena?

Ezkontzaren erregimen ekonomikoa aldatzea onartzen du Legeak, eta, hortaz, mugarik ez dago aldien kopuruari dagokionez, baina kontutan hartu behar da ezkonbizitzan eginiko ezkontzaren erregimen ekonomikoaren aldaketak ez duela hirugarrenek eskuratutako eskubiderik eragozten. Hau da, ezkontideetako edozeinen hartzekodunak ez luke inolako eraginik jasango aldaketa horren medioz.

### 3.4.1. Irabazizko elkartea

Noiz hasten da indarrean «irabazizko elkartea»?

Hitzarmenik egon ezean, irabazizko elkartea ezkontza egiten den une berean hasten da indarrean, lurralde aforatuan izan ezik.

Zeintzu dira irabazizko ondasunak?

Oro har, irabazizko ondasunak dira ezkontide bietako edozeinen lan edo industriagatik lortutakoak; ondasun pribatiboek zein irabazizkoek ematen dituzten fruitu, errenta edo interesak; irabazizko erako erretraktu eskubidez lortutakoak, eta elkarteak dirauen bitartean ezkontide bietako edozeinek elkarren ondasunen bidez sortutako enpresa eta establezimenduak.

### Zeintzuk dira ondasun pribatiboak?

Ezkontide bakoitzaren jabetzakoak baino ez diren ondasunak dira, hau da, elkartea indarrean hasterakoan ezkontide bakoitzak zeuzkan ondasun eta eskubideak; halaber, ondoren heredentzia, doaitza edo legatu bidez eskuratutakoak, ezkontideetako baten erretraktu eskubidez jasotakoak; pertsonari atxekitako ondarezko ondasun eta eskubideak; ezkontideetako bati edo haren ondasunei eginiko kalteei dagozkien ordainak; jantziak eta aparteko baliorik ez duten norberaren gauzak, nork bere lanbidean aritzeko behar dituen tresnak, elkarren establezimendu edo negozio baten osagaiak direnean izan ezik.

### Erabil ditzake ezkontideetako batek bestearen irabazizko ondasunak haren baimenik gabe?

Ez, ondasun horietaz baliatzea bi ezkontideei batera dagokie, baina legeak onartu egiten dio ezkontide bakoitzari bere izenean duen diru edo balore-tituluak (akzioak, bonoak, etab.) erabiltzea.

Gainera, ezkontideetako batek bestearekin batera jardun nahi ez badu edo ezin badu, eta jarduera hori familiaren onerako bada, auzitegiaren baimena eska daiteke halako ekintza jakin baterako edo batzuetarako.

### Nork administratu behar ditu irabazizko ondasunak?

Administrazioa bi ezkontideei batera dagokie, baina baliozkoak dira ezkontide bakoitzak bere izenean dituen ondasunak administratzeko ekintza guztiak.

Gainera, ezkontideetako edozeinek egin ditzake familiaren beharrizanak asetzeko egin beharreko ekintzak, eta aski da ezkontide bakarraren onespena beharrezkoak diren premiazko gastuak direnean.

### Nork ordaindu behar ditu ezkontideetako batek bakarrik egindako zorrak?

Beti ere, irabazizko ondasunek erantzun behar diete bi ezkontideek batera eginiko zorrei, bai eta haietako batek bestearen onespen garbiaz egindakoei ere.

Ondasun horiek ere zuzenean erantzun behar diete ezkontideetako batek famili botereaz baliatzean edo irabazizko ondasunak erabili eta gestionatzean, bai eta bere lanbide, arte

edo ogibidean ohi bezala aritzean ere, egindako zorrei. Gainera, irabazizko ondasunek erantzun behar diete ezkontideetako bakar batek hartutako beharrei ezkontideak izatez banatuta daudenean, betebehar horiek seme-alaben mantenu, babes eta heziketari ekiteko hartu badira.

Norberarenak baino ez diren zorrei ezkontide bakoitzak bere ondasunez erantzun behar die, baina norberaren ondasun pribatiboak zor horiek kitatzeko aski ez badira, hartzekodunak irabazizko ondasunak bahitzeko eska dezake; horren berri beste ezkontideari eman behar zaio, eta honek eskatu ahalko du ezkontide zordunaren zatiaz bakarrik egin dadila bahiketa, horrenbestez irabazizko elkartea bertan behera geratuko delarik.

### Behartuta al dago senarra emazteari bere dirusarreren edo jarduera ekonomikoen berri ematera?

Legeak ezartzen duenez, ezkontide biek aldiro-aldiro norberaren egoeraren berri eta norberaren edozein jarduera ekonomikoren etekinen berri eman behar diote elkarri. Beraz, biek dute bestearen soldataren edo beste edozergatik jasotzen diren dirusarreren berri jakiteko eskubidea.

Informatzeko behar hori larriki edo sarritan betetzen ez badu haietako batek, besteak irabazizko elkartea bertan behera geratzeko eskatu ahalko du.

### Ezkontideetako batek bestearen baimenik gabe kreditu bat eskatzerik ba al du?

Bai, baina mailegua eskatu ez duen ezkontidearen irabazizko ondasunek ez lukete erantzungo kreditua ordainduko ez balitz.

### Ba al du emakumeak titulu, balore edota gordailuen (aurrezki libretak, kontu korronteak, etab.) berri jasotzeko Banku nahiz Finantz Etxeetatik?

Bai, baldin eta emaztea senarrarekin batera horren titularra baldin bada. Hala ere, senarrarekin batera titular gisa agertzen ez bada, horri eskatu beharko dio informazioa. Aipatu Entitateek erabiltzen ohi duten araua hauxe da, baliozkotzat jotzen dira ondasunen administrazio ekintzak eta dirua erabiltzekoak titularra den edo horiek dituen ezkontideak burutzen dituenean; era berean, kreditu eskubideak erabiliko ditu kreditu horien titular gisa agertzen den ezkontidea.

## Familiaren etxebizitza

Ezkontideak bizi diren etxea ezkondu aurretik erosia bada, irabazizko ondasuntzat hartu ahalko da?

**Ez, ezkondu aurretik erositako ondasun guztiak pribatiboak dira. Hori horrela izanik, etxea ezkontideetako batek erosia bada, bera izango da jabea; aldiz, ezkondu aurretik bi ezkontideek erosia bada, biak izango dira jabeak. Horregatik, biek erosten badute, oso garrantzitsua da salerosketa izkrituran biak azaltzea erosle gisa.**

Eta etxea ezkondu aurretik ezkontideetako batek epetan erosi, baina epeak ezkondu ondoren ordaindu badira?

**Kasu horretan, ezkongai zelarik etxeabizitza erosi zuen ezkontidea bezala irabazizko elkartea ere izango da jabea, norberak jarritako diruaren arabera.**

Irabazizko elkartearen likidazioari ekin behar izanez gero, familiaren etxebizitza derrigorrez saldu behar al da seme-alabak oraindik adin gutxikoak badira edota ekonomikoki burujabeak ez badira?

**Kasu bakoitzaren nondik-norakoaren arabera, etxebizitza erabiltzeko eskubidea adierazten den arrazoizko epean mantentzeko ebatzi dezakete epaileek.**

## Irabazizko elkartearen deuseztapena

Noiz amaitzen da irabazizko elkartea?

- **Banatzeko, dibortziatzeko edo ezkontza baliogabetzat jotzeko sententzia ematen denean.**
- **Ezkontideek beste erregimen ekonomiko bat ezartzeko ezkontzako hitzarmena egiten dutenean.**
- **Ezkontideetako bat hiltzen denean.**

Gainera, ezkontideetako edozeinek eska diezaieke auzitegiei irabazizko elkartea amaierazteko:

— Elkartearen bidez dituen eskubideei kalterik, iruzurrik edo arriskurik ekarriz beste ezkontideak bere kasa ondarea erabiltzeko edo gestionatzeko ekintzak egiten dituenean.
— Elkarren adostasunez edota etxea abandonatzeagatik ezkontideek izatez urtebetetik gora daramatenean elkarrengandik banaturik.
— Jarduera ekonomikoei buruz informatzeko beharra betetzen ez denean.
— Auzibidez beste ezkontidea gaitasungabetu denean, ausentetzat, porrotean edo hartzekodunen konkurtsoan jo denean.

Noiz bana daitezke irabazizko ondasunak?

Irabazizko elkartea deuseztu ondoren likidazioari ekin behar zaio, eta horretarako elkartearen ondasunak zerrendatu eta baloratu behar dira, eta haren zorrak ordaindu. Soberakina erdibana partituko da senar-emazteen artean.

Auzibidez egin behar al da likidazioa?

Ez, ezkontideak ados jarrita ere egin daiteke. Akordiorik lortzen ez badute, auzibidetik jo dezakete, baina luze eta garestia gerta daiteke.

### 3.4.2. Ondasun banaketa

Zertan datza ondasun banaketaren erregimena?

Erregimen mota honetan ezkontideen ondasunak guztiz banatuta daude, ezkondu aurrean zituzten ondasunen eta gero edozergatik jasotzen dituztenen jabetza bezala ondasun horiek administratzeko eta askatasunez erabiltzeko eskubidea ere haietako bakoitzarena direlarik.

Ezkontide bakoitzak hartzen dituen betebeharrak bere ardurapekoak izango dira soil-soilik.

Kasu honetan, nork lagundu behar du familiaren beharrizanak betetzen?

Bi ezkontideek lagundu behar dute familia mantentzen akordioz erabakitzen duten neurrian edo, akordiorik ez badago, bakoitzaren baliabide ekonomikoen arabera.

Etxeko lanak egitea familiaren eginbeharretan laguntzea bezala hartzen da.

Senar-emazteak bizi diren etxearen jabea ezkontideetako bat bakarrik bada, sal dezake honek beste ezkontidearen baimenik gabe?

Ez, legeak babestu egiten du familiaren etxebizitza kontserbatzeko beharra, eta honelako kasuetan etxea saldu ahal izateko bi ezkontideek ados egon beharra ezartzen du edo, bestela, epailearen baimena.

Alde txarrik ba al du emakumearentzat ondasun banaketaren erregimenak?

Erregimen honetan senarrak ere lagundu behar du familia mantentzen, baina familiaren beharrizanak beteta daudenean bere kasa erabil ditzake bere ondasun eta dirusarrerak.

Etxeko lanak egin dituena emakumea izan bada, trukean ordainen bat jasotzeko eskubidea izango du ondasun banaketaren erregimena bukatzen denean; ordain hori ezkontideek berek finkatu beharko dute edota, akordiorik ez badago, aginte judizialak.

Noiz amaitzen da ondasun banaketaren erregimena?

Akordioz bi ezkontideek ezkontzako hitzarmena egin eta beste erregimen ekonomiko bat ezartzen dutenean.

### 3.4.3. Partaidetza erregimena

Zer da partaidetza erregimena?

Ezkontideek ezkontzako hitzarmenean ezar dezaketen erregimen ekonomiko bat da, non ezkontide bakoitza ezkondu aurreko ondasunen eta ezkondutakoan jasotzen dituenen titularra izan eta haietaz bere kasa balia daitekeen.

Bi ezkontideak behartuta daude biei dagozkien ezkontzaren zamei aurre egitera, horren barnean sartzen delarik etxeko lanak egitea.

Erregimen hau irabazizko elkartearen baldintza berekin amaitzen da eta, gainera, ezkontideetako bat bere ondasunak irregularki administratzen ari bada ere amai daiteke, beste ezkontidearen interesak kolokan jartzen ari denez gero.

Banaketaren erregimena amaitutakoan, ezkontideetako baten ondarea gehitu bada, baloratu eta haren erdia beste ezkontideari eman behar zaio, bestelako kopurua hitzartu ez bada.

### 3.4.4. Erregimen ekonomiko aforatua

Zer da «ondasunen komunikazio forala»?

Irabazizko elkartean senar eta emazteen artekoak ondasun bakan batzuk bakarrik direlarik, komunikazio foralean, aldiz, ezkontideen ondasun guztiak erdibanatuta daude, hau da, %50ean dira elkarrenak edo amankomunak, edozein delarik ondasun horien izaera edo jatorria.

Baldintza bakarra dago: hots, ezkontideetako bat hiltzean ezkontza iraungitzen denean elkarren seme-alaba edo oinordekoren bat egotea, zeren eta honelakorik ez egotekotan, elkartearen likidazioa irabazizko erregimenaren bidez egingo bait da.

Nola gertatzen da «komunikazio forala»?

Ezkon hitzarmenen bidez aukera daiteke erregimen hau, bi ezkontideak aforatuak ez badira ere.

Ezkon hitzarmenik egon ezean, erregimen hau aplikatzen zen senarraren auzotasuna, ezkontza gertatzean, aforatua zenean. Baina Kode Zibila aldatu eta gero, ulertu behar da erregimen hau aplikatuko dela bi ezkontideek aforatuak direnean, bestela bere bizilekua lurralde foralean ezartzen dutenean eta, azken finean, ezkontza foru lurretan egin denean bakarrik.

«Komunikazio forala» ezkontzarekin hasten da indarrean.

Komunikazio forala eta irabazizko ondasunak egotea biak batera gertatzerik badago?

Komunikazio forala ezkontzarekin berarekin hasten den arren, ondasunen banaketa eta likidazioei begira, ezkontza iraungitzean seme-alaba edo oinordekorik egotearen baitan dago erregimen hori finko izatea.

Horregatik, ezkontza bitartean, iraungitzeko orduan seme-alabarik egongo ote den ala ez igertzerik ez dagoenez gero, irabazizko ondasunak eta irabazizkoak ez direnak bereizten dira, azkenean likidazio mota honetaz baliatu behar bada ere.

Emakumeak parte hartu behar al du ondasun higiezin komunikatuen salmentan?

Edozein ondasun higiezin komunikatu inorenganatzeko edo kargatzeko, bi ezkontideen baimena behar da, ondasun hori sortetxezkoa izan zein ez.

Zer gertatzen da ezkontideetako batek zor edo betebeharrik hartzen badu bestearen baimenik gabe?

Kontutan harturik ezkontza bitartean ezkontide bakoitzaren ondasun bereziak eta amankomun edo irabazizkoak bereiztu behar direla, ezkontideetako batek Elkartearentzat baliagarria edo beharrezkoa ez den zor edo betebeharrik hartzen badu (hau da, delitua, jokoa edo ezkondu aurrekoak), hauek ez dira joango amankomuneko ondasunen kontura, baizik eta horiek hartzen dituen ezkontidearen ondasun berezietako erdiaren kontura; beste erdia, aldiz, familiaren behar eta elikadurarako uzten da, eta ezkontide batek ezingo du inolaz ere inorenganatu.

Zer nolako mugak daude sortetxeko ondasunak erosi edo inorenganatzeko?

Sortetxeko ondasunak Bizkaiko foru lurretan kokaturikoak eta aitaren edo amaren partez iritsitakoak diren higiezinak dira.

Norbaitek ondasun horietakoren bat saldu nahi izanez gero, lehenago sortetxekoak diren ahaideei eskaini behar die. Honako hauek dira ahaide horiek: lehenik, seme-alaba edo ondorengoak gradu mugarik gabe. Seme-alaba edo ondorengorik egon ezean, aurrekoek izango dute lehentasuna (aitak edo amak, aitonak edo amonak), eta hauen faltan, on-

dasunaren jatorri bereko aita edo amaren aldeko albokoek (anai-arrebek, osaba-izebek, ilobek, 4. gradura arteko lehengusuek).

Honelako ahaiderik ez badago, edo hauek uko egiten badiote, askatasunez saldu ahalko zaio edozeini.

Ordea, sortetxeko ondasun baten transmisioa heredentziaz edo emaitzaz egin bada, orduan sortetxeko ahaideen alde bakarrik egin daiteke, horrelakorik egonez gero.

Zein da banaketa edo dibortzioa gertatuz gero, komunikazio forala likidatzeko aplikatu behar den erregimena?

Gaurko foru legearen arabera, ondasun guztiak alargun eta seme-alaben artean erdiz-erdi banatzen dira ezkontideetako bat hil eta, gainera, seme-alaba edo ondorengorik dagoenean bakarrik.

Banaketa edo dibortzioa gertatzen denean, aldiz, foru arauak ez du ezer ezartzen; hala ere, bai Euskal Herriko Justizi Auzitegi Gorenak, bai Foru Erreformarako Proiektuak ere ulertzen dute irabazizko erregimena dela aplikatu behar dena. Hau da, irabazizkoak edo elkarren artekoak erdizka banatzen dira, eta norberarenak dagokion ezkontidearen esku geratzen dira.

## 3.5. Ezkontzaren baliogabetasuna, banaketa eta dibortzioa

### 3.5.1. Ezkontzaren baliogabetasuna

Noiz da baliogabea ezkontza bat?

Ezkontza baliogabea da egin zenean ezkontza hori araugabe edo irregular bihurtzen zuten arrazoiak zeudenean, eta, beraz, hasieratik bertatik loturarik ez dagoenean.

Zergatik da baliogabea ezkontza bat?

Egiten den eran egiten dela ere, ezkontza honelakoetan da baliogabea:

— Ezkontzeko baimenik gabe egiten denean.

— Emantzipatu gabeko adin gutxikoren bat ezkontzen denean edota ezkontzen direnak elkarren halako ahaideak direnean.
— Epailearen edo lekukoen partaidetzarik gabe egiten denean.
— Beste ezkontidearen nortasunari edota baimena ematerakoan pisuzkoak ziren ezaugarri pertsonalei dagokien errakuntzaz egiten denean.
— Behartuta edo beldur larriak eraginda egiten denean.

## Baliogabetasunak zer ondorio ditu?

Ezkontzaren baliogabetasuna gerta daitekeela onartzen duen epaiak, ospatu zen une beretik ezkontzak baliorik ez duela besterik ez du adierazten, hau da, benetako ezkontzarik ez dela gertatu.

Hala eta guztiz ere, seme-alaben egoera babestu egiten da, ezkontzako seme-alabatzat hartuko bait dira; hau da, ezkontzaren baliogabetasunak ez die kenduko gurasoei seme-alabekiko betebeharrak betetzeko erantzunkizuna.

Gainera, ezkontza baliogabekotzat jotzen denean fede onez jokatu duen ezkontideak ordainen bat jasotzeko eskubidea izango du ezkon-elkarbizitzarik egon bada.

## Zer alde dago baliogabetasunaren eta dibortzioaren artean?

Baliogabetasuna ezartzen duen epaiak ezkontzarik ez dela gertatu adierazten du; dibortzioa ezartzen duen epaiak, aldiz, aurretik zegoen ezkontzako lotura hausten du. Batean zein bestean, pertsonek berriz ere ezkontzerik badute.

## Baliorik ba al du Elizaren Auzitegiek emandako baliogabetasun epaiak?

Antolamendu zibilean balioa izan dezan, auzibidetik jo eta epaileak estatuaren zuzenbidera egokitzen dela eta erabat eraginkorra dela adierazi behar du.

### 3.5.2. Senar-emazteen banaketa

Ze eragin du senar-emazteen banaketak?

Senar-emazteen banaketak legeak ezkontideei ezartzen dien elkarbizitzeko beharra amaierazten du, ezkontzaren ondorioak bertan behera uzten ditu eta ezkontzaren erregimen ekonomikoaren eta ume-gurasoen arteko harremanaren gainetik gertatzen da, ezkontzak sortutako legezko lotura bere hartan mantentzen bada ere.

Senar-emazteak banatzeko modu desberdinak al daude?

Banatzeko hiru modu daude:

— Kontsentsuz, hau da, senar-emazteen akordioz erabaki eta epaileak berronesten duenean.
— Kausaz, hau da, banatzeko legezko kausarik dagoelarik auzitegiek banaketa ezartzen dutenean.
— Izatez, hau da, ezkontideek elkarrekin bizitzeari utzi eta ezkonbizitza eperik gabe eteteko asmoa dutenean.

Bana daitezke ezkontideak biak ados egonez gero?

Bai, urtebetetik gora badaramate ezkonduta eta biek banatu nahi badute egin dezakete, banatzeko kausarik azaldu behar ez dutelarik.

Zer egin behar dute bien adostasunez banatzeko?

Abokatu baten eta prokuradore baten beharra izango dute; ezkontide bakoitzak bere abokatua izan dezake, baina profesionari berberarekin jardun daitezke biak. Baliabide ekonomikorik izan ezean, ofiziozko txandako profesionariak izendatzeko eska dezakete. (Ikus 5. kapitulua).

Legelariak idazten duen demandaz gain, KOMENIO ARAUTZAILE bat izenpetu behar dute ezkontideek eta epaileari aurkeztu onar dezan. Komenio hori agiri bat da, non ezkontideek hartu dituzten erabakiak jasotzen diren: hots, nor

geratuko den adin gutxiko umeekin bizitzen, nork erabiliko duen familiaren etxebizitza, kustodia ez duen ezkontideak umeei egingo dizkien bisitaldiak, umeentzat eta, bere kasuan, beste ezkontidearentzat finkatu behar diren pentsioak, eta pentsioen urteroko eguneratzea.

## Onartu behar al ditu epaileak ezkontideen akordioak?

Epailea uka daiteke akordioren bat onartzera baldin eta umeentzat kaltegarria edota ezkontideetako batentzat larriki kaltegarria bada. Honelakoetan, ezkontideei beste akordio bat hartzeko eskatuko die, eta, egiten ez badute, edota akordio berria ere kaltegarritzat jotzen badu, epaileak sententzia eman, ezkontideen banaketa onetsi, eta onartu ez zituen akordioei buruz on deritzaion erabakia hartuko du.

## Senarrak nahi ez badu ere banatzerik ba al du emakumeak?

Bai, auzibidean frogatzen badu banatzeko legezko kausarik badela. Auzibide horretan ere abokatu eta prokuradorearen beharra edukiko du, eta prozedura hasteko ez dago gutxienezko denbora batean ezkonduta egon beharrik.

## Zeintzuk dira senar-emazteak banatzeko arrazoiak?

Etxea arrazoirik gabe abandonatzea, ezkontidearekiko fideltasun eza, ezkontideen arteko jokamolde iraingarri edo afruntuzkoa, eta ezkon-betebeharrak nahiz seme-alabekiko betebeharrak larriki edo sarritan hutsegitea.

Banaketarako legezko arrazoiak dira halaber: sei urtetik gorako kartzela zigorra, eta ezkontidearen nahiz horren arbasoen edo ondorengoen bizitzaren kontrako atentatuagatiko epai finkoko zigorra. Bai eta alkoholzaletasuna, drogazaletasuna edo buru-nahasmenduak, baldin eta horrek familiarentzako kalterik badakar. Banaketarako legezko arrazoia izango da halaber ezkontideen elkarbizitza izatez etetea, bakoitzaren zertzeladen arabera ezarriko den deboraldi batez.

Noiz esaten da izatezko banaketa dagoela?

Bien arteko erabakiz edota haietako batek eraginda, ezkontideek elkarrekin bizitzeari uzten diotenean gertatzen den egoera da. Ezkonbizitza betirako edo eperik gabe eteteko asmoa egon behar da.

Ezkonbizitzaren izatezko eten hori etxebizitza bera mantenduz ere gerta daiteke, baldin eta beharragatik, pakezkoak egiteko edo seme-alaben onerako egiten bada hori.

Banaketaren egoera hori agiri pribatu batez edo Notari aurrean arau daiteke.

Zer ondorio eduki dezake izatezko banaketak?

Izatezko banaketak senarraren aitatasun ustea gerarazten du, eta guraso boterea seme-alabekin bizi den ezkontidearen esku bakarrik uztera eraman dezake; garrantzia izan dezake ezkontideetako bat hilez gero (ikus «Oinordekotzak» 3.6... orrialdean). Baldintza batzuekin, legez banatzeko kausa izan daiteke, eta ezkontideek elikadurari dagokionez erabakirik hartu badute, epaileek behar dezakete horiek betetzera (ikus, baita ere, «Alargun pentsioa» 9.2 atalean).

### 3.5.3. Dibortzioa

Zeintzuk dira dibortziatzeko arrazoiak?

Bi ezkontideak bizirik dauden bitartean auzitegien erabakiz haien ezkontzako lotura haustean datza.

Dibortzioa ezkontideak elkarrekin bizi ez direla eta gertatzen da batez ere; elkarrekin bizi gabe egoteko eskatzen den gutxienezko denbora ez da berdina aurretik senar emazteak izatez banatuta —urtebete eta bost urte bitartean— ala auzibidez banatuta daudenean —gutxienik urtebete eta gehienez bi urte—.

Dibortziatzeko kausa da, baita ere, ezkontide batek bestearen, edota haren arbaso edo ondorengoen bizitzari erasotzeagatik Sententzia finkoz emandako zigorra.

Ezkontideetako batek dibortzioa nahi ez badu, onartu behar al dio besteari?

Epaileak dibortzioa onar dezan ez dago bi ezkontideen onespenaren beharrik, aski da eskatzaileak adierazita dagoen denboran elkarbizitza izatez etenda dagoela frogatzea.

Zer egin behar da dibortziatzeko?

Abokatu eta prokuradore baten partaidetza beharrezkoa da, eta elkarren adostasunez bidera daiteke, banaketa bezalaxe, edo ezkontideetako baten eskariz, bestela.

Elkarren adostasunez bideratzen bada, ezkontideen banaketarako behar den Komenio Arautzailea bezalako beste bat aurkeztu behar zaio epaileari onar dezan.

Zer alde dago banaketaren eta dibortzioaren artean?

Funtsean, banaketa egon arren ezkontzako loturak bere hartan jarraitzen du, ez ordea dibortzioan, epaiak bertan behera uzten bait du ezkontzako lotura hori, halako moldez non ezkontide izandako bakoitza berriz ezkon daitekeen.

### 3.5.4. Aurretiazko edo guztiz behin-behineko neurriak

Zer dira aurretiazko edo behin-behineko neurriak?

Banatzeko, ezkontza baliogabetzeko edo dibortziatzeko demanda egin aurretik, epaileari eskatu ahal zaio behinik-behin erabaki dezan nork izango duen seme-alaben kustodia, nork jarrai dezakeen ezkontideen etxebizitza erabiltzen, etxebizitzan geratzen ez den ezkontideak berekin eraman ditzakeen etxeko gauza eta ondasunak zeintzuk diren, eta bisitatzeko eskubidea, pentsio bat eta halako ondasun batzuk administratzeko arauak finka ditzan.

Neurri hauek bere hartan jarrai dezaten, hartu eta ondoko hogeita hamar egunen barruan aurkeztu behar da banatzeko, ezkontza baliogabetzeko edo dibortziatzeko demanda; bestela, indar guztia galduko dute.

Zer egin behar da epaileak neurri hauek har ditzan eskatzeko?

Eskaera idatziz egin behar da, ahalmena duen epaileari egin ere (hau da, ezkontideen bizilekuko Lehen Instantziakoari), eta ez da beharrezkoa, baina bai komenigarria, abokatuak eta prokuradoreak parte hartzea.

Zer dira behin-behineko neurriak?

Banatzeko, ezkontza baliogabetzeko edo dibortziatzeko demanda aurkezten denean, epaileari eskatu ahal zaio behinik-behin halako neurri batzuk har ditzan prozeduraren tramitazioa arautzeko; neurri horiek aurretiazko neurriak bezalakoak dira edukiari dagokionez, hau da, seme-alaben kustodiari, pentsioei eta abarrei dagokienez.

Banatzeko, ezkontza baliogabetzeko edo dibortziatzeko behin-betiko epaia eman arte dute indarra neurri hauek.

Zer egin behar da behin-behineko neurriak har daitezen eskatzeko?

Banatzeko, ezkontza baliogabetzeko edo dibortziatzeko demandarekin batera egin daiteke, abokatuak eta prokuradoreak parte hartzea beharrezkoa delarik.

Larrialdi batean zer nolako neurriak eskatzea komeni da?

Aurretiazko neurriak larrialdietarako pentsatuta daude, eta oso laburra da neurri horiek hartzeko egin beharreko tramitazioa; hala ere, Legeak dioen baino beranduago hartzen dira egiatan neurri horiek.

Jarraitu behar al du emakumeak senarrarekin bizitzen epaileak aurretiazko edo behin-behineko neurriak hartu arte?

Ez, eta gainera emakumeak abandona dezake ezkontideen etxebizitza, bakarrik edo seme-alabak hartuta, eta hogeita hamar eguneko epea dauka aurretiazko neurriak har daitezen eskatzeko edo banatzeko, ezkontza baliogabetzeko edo dibortziatzeko demanda egiteko. Demanda aurkeztu edo neurriak hartzeko eskaria egin ondoren, elkarrekin bizitzeko beharra amaitzen da.

Zer egin daiteke epaileak etxebizitzaren erabilera emakumeari eman arren, senarra etxetik irtetzera ukatzen bada?

Honelako kasuetan, epaileari eskatu behar zaio etxebizitza berehala uzteko errekeritu diezaion senarrari; honek agindua betetzen ez badu, epaileari desobeditzeko delituan erori eta indar publikoek etxetik ateraraz dezakete.

### 3.5.5. Banaketaren, ezkontzaren baliogabetasunaren eta dibortzioaren ondorio amankomunak

Zeintzuk dira banaketaren, ezkontzaren baliogabetasunaren eta dibortzioaren ondorio amankomunak?

Banatzeko, ezkontza baliogabetzeko edo dibortziatzeko epaiak ematean, edo epai horiek gauzatzean, epaileak zehaztu behar du zein ezkontidek izango duen adin gutxiko seme-alaben kustodia, beste ezkontidearen bisita eskubidea, pentsioak eta ezkontzako erregimen ekonomikoaren likidazioa.

Auzi prozedura elkarren adostasunez egina bada, Epaileak onartu ahalko du puntu guzti horiek antolatzearren ezkontideek aurkeztutako Komenio Arautzailea.

### 3.5.6. Adin gutxiko seme-alaben kustodia

Nork eduki behar du adin gutxiko seme-alaben kustodia?

Ezkontideak horri buruz ados ez badaude, kustodia haietako bati edo besteari ematearren Epaileak semealaben onura hartuko du kontutan; horretarako, haien eritzia ere aintzat har dezake ezaguera edo adimen nahikoa badute, eta ezinbestez hartuko du hamabi urte baino gehiago badute. Nolanahi ere, anai-arrebak ez banatzea gomendatzen da, edozein direlarik haien adina eta sexua.

Erabaki al dezakete seme-alabek norekin bizi nahi duten senar-emazteak banatu, dibortziatu edo haien ezkontza baliogabetu ondoren?

Seme-alabek hamabi urte baino gehiago badute, Epailea behartuta dago haiek horri buruz duten eritzia entzutera, baina eritzi horrek ez du behartze indarrik harentzat, eta Epaileak haren ustez seme-alabentzat egokiena den erabakia hartu beharko du.

Seme-alabarik ez badago, babes beharrik handiena duen ezkontideari emango dio etxebizitza.

Seme-alaben kustodia emakumeari ematen bazaio, senarrak eska lezake geroago beretzat?

Seme-alaben kustodiari buruz Epaileak hartzen duen erabakia alda daiteke baldin eta kustodia eman zeneko zertzeladak eta egoera ere aldatu direla, eta egoera berrian seme-alabentzat beste ezkontidearen zaintzapean egotea onuragarriagoa dela frogatzen bada.

### 3.5.7. Familiaren etxebizitza

Nork dauka familiaren etxebizitzan bizitzen jarraitzeko eskubidea?

Ezkontideek bestela deliberatu eta Epaileak erabaki hori onartzen duenean izan ezik, familiaren etxebizitzaren erabilera seme-alabei eta haiekin geratzen den ezkontideari ematen zaie.

Seme-alabarik ez badago, babes beharrik handiena duen ezkontideari emango dio etxebizitza, baita jabe bakarra beste ezkontidea izan arren ere; azken kasu honetan, alabaina, etxebizitza zenbat denboratan erabiltzen jarrai dezakeen ere zehaztuko du.

Kustodia ez duen ezkontideak bisitatu eta berekin eduki al ditzake seme-alabak?

Bai, Epaileak finkatu behar du seme-alaben kustodia ez duen ezkontidearen bisita eskubidea, noiz bisitatu eta berekin eduki ditzakeen zehaztuz; dena dela, eskubide hori aldatu edo bertan behera utzi ere egin dezake baldin eta egoera larriren batek hala kontseilatzen badu, edota ezkontide horrek seme-alabekiko dituen betebeharrak larriki edo sarritan betetzen ez baditu.

Zer gertatzen da familiaren etxebizitza alokatua denean?

Horrelakoetan, etxebizitza erabiltzeko eskubidea erabakitzeko lehengo erizpide berberari jarraituko zaio, baina etxebizitzaren jabe alokatzaileari adierazi beharko zaio zein ezkontideri eman zaion erabiltzeko eskubidea.

### 3.5.8. Seme-alabentzako pentsioa

Behartuta al daude gurasoak beren seme-alabak mantentzen jarraitzera?

Bai, banaketak, ezkontzaren baliogabetasunak edo dibortzioak ez dizkiete kentzen gurasoei seme-alabekiko dituzten betebeharrak.

Zenbat diru ordaindu behar da seme-alaben mantenurako?

Ez dago dirukopuru finkorik; akordiorik ez dagoenean, Epaileak berak finkatuko du ezkontide baten edo bien dirusarrerak eta seme-alaben beharrak kontutan hartuz, eta familiak banaketa, baliogabetasuna edo dibortzioa gertatu aurretik zeukan maila ekonomiko bera izan dezan saiatuko da, ahal den neurrian.

Pentsioaren zenbatekoa ere alda daiteke ezkontideen egoera ekonomikoa edo seme-alaben beharrak aldatzen badira.

Nolanahi ere, pentsioak urtero izango duen eguneratzea ere finkatu beharko da.

Seme-alabak helduak direnean ere ordaindu behar al da pentsioa?

Gurasoak beren seme-alabak mantentzera derrigortuta daude, baita helduak direnean ere, ikasten jarraitzen badute edo lanik ez badute, ez ordea seme-alabek eurei leporatu beharreko arrazoiren bategatik lanik ez badute.

Zer egin daiteke senarrak pentsioa ordaintzen ez badu?

Banaketan ezarritako pentsioa bete dadin eskatzeko, berriz ere epailearengana jo beharko du emakumeak, eta ezarritako diru kopurua senarraren nominatik atxeki edo ondasunik balu horiek bahitu daitezen lortu ahal izango du epaileaginduaren bidez.

Salatu al daiteke pentsioaren ordainketa eza?

Bai. Legezko banaketa, dibortzio edo ezkontzaren baliogabetasunaren kasuetan, auzitegian onartutako komenioan edo auzitegietako ebazpenean ezkontideari nahiz seme-alabei ordaindu beharreko edozein dirulaguntza arrazoirik gabe edo maltzurkeriaz ez ordaintzea, Kode Penalak zigortutako delitua izan daiteke.

Banaketa, baliogabetasun edo dibortzio epaian bere alde nahiz seme-alaben alde pentsioa jasotzeko eskubidea onarturik duen emakumeak, pentsio horiek ordainketa-eza salatu ahal izango du penalki, ordaindu beharreko ezkontideak hiru hilabete segitutan edo tartekaturiko sei hilabetetan ordaintzeari utzi baldin badio. Bere betebeharrak betetzen ez dituen ezkontidearentzako zigorra kasu hauetan atxilotze handikoa eta 100.000 eta 500.000 pezeta bitarteko isunekoa da.

Nolanahi ere, ordainketa eza ez da nahikoa eta zigor daitekeen delitua izan dadin salaketa aurkeztu behar da, horrek esan nahi du emakumeak zorraren erreklamazioa edo erreklamazioak egin dituela frogatu behar duela. Ez da beharrezkoa ez ordaintzeko behin betirako nahia egotea, nahikoa da arrazoirik gabeko edo maltzurkeriazko atzerapena gertatzea.

## 3.5.9. Konpentsaziozko pentsioa

Emakumeak ere ba al du pentsioa jasotzeko eskubiderik?

Bai, senarraren egoeraren aldean, emakumeari banaketak edo dibortzioak halako desoreka ekonomikoa eragin badio eta ezkondu aurrean baino egoera okerragoan gertatzen bada, harentzako pentsio bat finkatzeko eskubidea izango du; pentsioa finkatzeko ondoko erizpideak hartuko dira kontutan: ezkontideek hartutako akordioak, haien adina eta osasun egoera, haien gaitasun profesionala eta lanpostu bat aurkitzeko aukera, familiari iraganean emandako eta etorkizunean eman beharreko arreta, beste ezkontidearen lan jardueran emandako laguntza, ezkontzaren iraupena, pentsioren bat jasotzeko eskubidea galtzen den ala ez, eta ezkontide bakoitzaren baliabide ekonomikoak eta beharrizanak.

Pentsio hori aldatzerik badago?

Finkatzen den pentsioa urtero eguneratu behar da, eta bakar-bakarrik aldatu ahalko da ezkontide baten edo bestearen ondasunetan funtsezko gorabeherarik gertatzen bada.

Senarrak ere ba al du pentsioa jasotzeko eskubiderik?

Emakumeak bezalaxe, senarrak ere jaso dezake pentsioa bera bada desoreka ekonomikoa jasaten duena edo ezkondu aurrean baino egoera okerragoan gertatzen dena.

Konpentsaziozko pentsioa bizitza guztian ordaindu behar al da?

Pentsioa jasotzeko eskubidea eragin zuen kausa desagertzen denean amaitzen da eskubidea ere, hau da, pentsioa jasotzeko eskubidea duen pertsona berriz ezkontzen denean edo beste pertsona batekin senar-emazte bizitza egiten duenean.

Eta pentsioa ordaindu behar duen ezkontidea hiltzen bada?

Orduan ez da besterik gabe galtzen pentsioa jasotzeko eskubidea, hildakoaren oinordekoak behartuta bait daude hura ordaintzera; hala ere, epaileari eskatu ahalko diote pentsioa gutxitu edo bertan behera uzteko halako baldintza berezi batzuetan.

Zer egin daiteke konpentsaziozko pentsioa ordaintzen ez bada?

Seme-alabentzako pentsioa ordaintzen ez denean bezalaxe gertatzen da kasu honetan ere (3.5.8) eta, beraz, erantzunkizun penala egon daiteke, bai eta soldatari kenketa egitea edo ondasunak bahitzea gertatu ere.

### 3.5.10. Ezkontzako ondasunen partiketa

Foru Erregimena

Ezkontideek ezarria duten erregimen ekonomikoaren arabera banatuko dira ondasun horiek.

Begiratu «Ezkontideen erregimen ekonomikoa», 3.4. puntua.

Likidazioa edo partiketa irabazizko sistemaren bidez egin behar denean, ezkontide bakoitzak bere ondasunak eta amankomun edo irabazizkoen erdia ere jasotzen ditu.

Heriotza gertatuz gero, hildakoari dagokion zatia heredentzia bihurtzen da.

Foru Erregimena aplikatzen bada, ondasun guztiak %50ean banatzen dira alargunaren eta seme-alaba edo ondorengoen artean.

## 3.6. Oinordekotzak

### Zer da testamentua?

Pertsona batek hil ondorako bere ondasun guztien edo batzuen helburua erabakitzeko egiten duen ekintza da.

Testamentuan ondareari ez dagozkion adierazpenak ere egin daitezke, ume baten seme-alabatasuna aitortu, esate baterako.

### Testamentua Notari aurrean egin behar da beti?

Notari aurrean egin daiteke, komenigarriagoa bait da, modu irekian, hau da, testamentu egileak bere azken nahia lekukoen aurrean agertuz, eta modu itxian, alegia testamentu egileak bere azken nahia azaldu gabe, hura Notari bati lekuko aurrean ere ematen dion izkribu batean dagoela adieraziz.

Gainera, testamentu olografoa delakoa egin daiteke testamentua egiten duena adinez nagusi bada. Honetan, testamentua egiten duenak berak erabat eskuz idatzitako eta izenpeturiko izkribu batean adierazi behar du bere nahia, testamentua egiten den urtea, hila eta eguna zehaztuta, kasu honetan notaririk eta lekukorik behar ez delarik.

Nolanahi ere, notari aurrean egin beharko da komisari bidezko testamentua; lurralde aforatuan testamentua egiteko dagoen modu berezia da hau, zeinen arabera testamentua egiten duenak komisari bati edo batzuei gomendatu ahal bait die oinordekoa/k izendatu eta ondasunak banatzeko, bai eta ondasun horiek oinordekoen artean banatzeko zereginari dagozkion beste ahalmen guztiak.

## Ba al dago testamentua egiteko beste era berezirik Bizkaiko eta Arabako lurralde aforatuetan?

Auzotasun aforatua daukatenek komisari baten bidez egin ahal dute testamentua. Hau da, pertsona bati ahalmena eman diezaiokete (normalean emazteak senarrari eta senarrak emazteari) haietako bat hil ondotik finkatutako epe baten ondoren, beste ezkontideak testamentua egiterik edo hildakoaren ondasunez baliatzerik izan dezan oinordekoen alde, berak nahi duen une, zenbateko eta moduan.

Esan bezala, komisari bidezko testamentua dago alde batetik, zeinetan ezkontideek komisari izenda bait ditzakete elkar haien ezkontzako hitzarmen idazkian; hartaz aparte, badago «hil buruko» deitzen dena ere, hil hurren eta bizileku batetik eta notari publikoaren bizilekutik urrun dagoenarentzat; haren bidez, hiru lekukoren aurrean egin daiteke testamentua (tradizioaren arabera haietako batek gutxienez emakumea izan behar zuen, gainera), hitzez zein idatziz. Honelako testamentuek balioa izan dezaten Auziperatze Zibilaren Legeak berak aipatzen dituen egiaztatze prozedura guztiak bete beharko dira.

## Senarraren baimena behar al du emazteak testamentua egiteko?

Ez, ez du haren baimenik behar, eta ez du hari testamentua egin duela esan beharrik ere. Emakume zein gizon ezkonduek euren ondasunei buruz bakarrik erabaki dezakete, hau da, ondasun pribatiboei buruz, eta ezkontideen erregimen ekonomikoa irabazizkoarena bada, orduan ondasunen erdiari buruz bakarrik.

## Senar-emazteek batera egin al dezakete testamentua?

Ez, bakoitzak bere aldetik egin behar du.

Hemendik lasterrera, senar-emazteen arteko testamentua edo «anaitasunezko testamentua» ere egin ahalko da; hau da, biek beren ondasunei buruzko erabakiak hartu ahalko dituzte testamentu bakar batean, orain arte egiten den bezala banaka egin ordez.

## Nola jakin daiteke hildakoak testamentua egin duen ala ez?

Hildakoak testamentua egin ote duen adierazten duen ziurtagiri bat eskatu beharko zaio Justizia Ministraritzaren Azken Nahien Erregistroari, eta baiezko erantzuna jasoz gero, testamentua zein egunetan eta zein Notariren aurrean egin zen ere bai.

Ziurtagiri hori posta bidez eska daiteke, estankuetan salgai dauden inprimakiak erabiliz; haiekin batera hildakoaren heriotz-agiria ere erantsi beharko da.

## Zer egin behar da pertsona bat testamentua egin gabe hiltzen denean?

Horrelako kasuetan, testamentugabeko oinordekotza irekiko da, eta hildakoaren oinordekoak bere senitartekoak eta alarguna izango dira, legez ezarrita dagoen hurrenkeran.

Interesatuetako bakoitzak edo denek batera bizilekuko Lehen Instantziako Epaileari eskatu ahal diote legearen aurrean oinordekoak zeintzu diren adierazteko, normalean Abokatu baten partaidetza beharko duen espediente batez.

## Pertsona batek bere erara erabaki al dezake bere ondasunen helburua?

Ez, derrigorrezko oinordekoak dituenean; kasu horretan, senipartea utzi behar du oinordeko horientzat, hau da, Legearen arabera ondasunetatik derrigorrezko oinordekoei dagokien partea.

## Zeintzuk dira derrigorrezko oinordekoak?

— Amankomuneko erregimenean:
- Seme-alabak eta ondorengoak, guraso edo arbasoen aldean.
- Aurrekoen faltan, gurasoak eta arbasoak, semealaba eta ondorengoen aldean.
- Alarguna, legak ezartzen duen modu eta neurrian.

— Foru erregimenean:
- Seme-alaba legitimoak berezko eskubideagatik, eta gainerako oinordeko legitimoak ordezkapen eskubideagatik.

- Seme-alaba natural aitortuak eta legitimatuak berezko eskubideagatik, eta haien ondorengoak ordezkapen eskubideagatik.

Ordezkapen eskubidea ondorengoen lerroan bakarrik ematen da.

Alargundutako ezkontidea sortetxezko ondasunen testamentugabeko oinordekotzara deitua izango da sortetxezko ahaiderik ez dagoenean. Sortetxezko ondasunak ez direnetarako, anai-arreben eta berauen seme-alaben ondoan.

Gainerako kasuetan, seme-alaba edo ondorengo legitimoak ez diren oinordekoekin konkurritzen duenean, ondasunen erdiaren usufruktua edukiko du, xedapen librez oinordekotza testamentuz egin denean.

## Zein da senipartea edo derrigorrezko oinordekotza amankomuneko legerian?

Ondorengoen senipartea zehazteko oinordetzako ondasun guztiak hiru zatitan banatzen dira. Lehen zatia semealaben artean banatzen da zati berdinetan; bigarren partea testamentu emaileak bana dezake bere kasara semealaben artean eta hirugarren zatia bere kasara bana dezake semealaben edo beste pertsonen artean.

## Zein da senipartea edo derrigorrezko oinordekotza foru araudian?

Derrigorrezko oinordekotza testamentua egiten duenaren ondasun guztietatik 4/5ek osatzen dute. Gainerakoa xedapen librekoa da.

## Pertsona aforatuek derrigorrezko oinordekotza ere libreki bana dezakete?

Kausatzaile edo testamentu egileak nahi duen bezala bana ditzake bere ondasunak oinordekoen artean, edota haietako bakar bati eman, gainerako guztiak espreski baztertuta.

Senarra testamentua egin gabe hiltzen bada, bere ondasunetatik zein parte dagokio alargunari?

**Senar-emazteek seme-alabarik badute, alargunari oinordekotzaren herenaren usufruktua dagokio. Seme-alabarik ez badago, baina senarraren gurasoak bizirik badaude, alargunari oinordekotzaren erdiaren usufruktua dagokio.**

**Hildakoaren ondorengorik ez aurrekorik ez badago, oinordekotza osoa dagokio alargunari.**

Zertarako eskubidea ematen du usufruktuak?

**Alargunari usufruktuak ondasun guztiak erabiltzeko eskubidea ematen dio, baina mantendu behar ditu ondasun horiek, eta horren truke usufruktuzko ondasunek ematen dituzten etekinak jasotzeko eskubidea izango du.**

Alargunaren usufruktua amai daiteke beste ondasun batzuk ematearen truke?

**Bai, oinordekoen arteko akordioz edota epailearen aginduz, oinordekoek bizi osorako errenta bat, edo halako ondasun jakin batzuen emaitzak, edota dirukopuru bat emanaz ordain diezaiokete alargunari usufruktuaren haren partea.**

Zer egin behar du alargunak senarra hiltzean haurdun badago?

**Kasu horretan, beste oinordekorik egonez gero, haurdunaldiaren berri eman beharko die, bai eta erditzeko garaia hurbiltzen denean horren berri ere. Haurdunaldia bitartean oinordekotzaren ondasunen kontura mantendua izateko eskubidea dauka, baita bere ondasun bereziak edukita ere. Erditzea gertatu arte atzeratuko da oinordekotzaren banaketa, oinordekotzaren ondasunen asegurua eta administrazioa eskatu ahalko dituelarik.**

Alarguna oinordeko izendatzerik ba al dago berriz ez ezkontzeko baldintzarekin?

**Testamentuan senarrak, haren aurrekoek edo ondorengoek jarria bada bakarrik balio du baldintza horrek. Horregatik, berriz ezkontzen bada, alargunak oinordekotzarako eskubidea galduko du; hala ere, legez egokitu zaion senipartea beretzat gordetzeko eskubidea izango du.**

Senar-emazteak izatez banatuta bazeuden, ba al du emazte alargunak senarraren ondasunen oinorde-eskubiderik?

**Izatez banatuta egon arren alargunak ez du galtzen senipartea jasotzeko eskubidea, baina senarra testamenturik egin gabe hil eta ondorengorik ez aurrekorik ez bazuen, orduan alargunak oinordekotza jasotzeko eskubidea galduko du, izatez eta sinesgarriro jasota dagoen elkarren akordioz banatuta bazegoen.**

Senar-emazteak epailearen aginduz banatuta bazeuden, ba al du alargunak oinorde-eskubiderik?

**Ez, banaketa hildakoaren erruz gertatu denean izan ezik.**

Senar-emazteak dibortziaturik egonez gero, ba al du alargunak oinorde-eskubiderik?

**Dibortziaturiko pertsonak ezkontide-ohiaren ondasunen oinorde-eskubide guztiak galtzen ditu Dibortzio epaia ematerakoan.**



# 4. ETXEAN JASATEN DIREN INDARKERIA ETA ASKATASUN SEXUALAREN AURKAKO ERASOAK

## 4.1. Tratu txarrak

Zer egin dezake senarraren, bizilagunaren edo familiako beste kideren baten tratu txarrak jasaten dituen emakumeak?

Komenigarria da tratu txarrak jasan dituen emakumea osasun zentrura joatea, bertan araka dezaten eta zauririk badu agirietan jasota gera dadin. Agiri horietaz baliatuz salaketa aurkeztu beharko du Goardiako Epaitegian, Ertzaintzan edo Poliziaren Komisaldegi gertuenean, izan ere beti ere salaketa tramitatzeko obligazioa bait dute bertan; salaketa aurkeztu izanaren ziurtagiria eskatu behar da leku horietan.

Zeure integritate fisikoa edo zure seme-alabena arriskutan dagoela uste baduzu, familiaren egoitza utzi eta ondorengo hogeitamar egunen barruan banatzeko eskabidea egin edo aurretiazko neurriak eska ditzakezu; Abokatua eta Prokuradorea ordaintzeko dirurik ez dutenek ofiziokoak izenda daitezen eska dezakete. (Ikus 5)

Prozedura horiek tramitatzen diren bitartean senide edo lagunekin bizi daiteke egoera horretan dagoena, edo Administrazio Foral nahiz Lokalak babesa eta laguntza eskaintzeko sortutako zentruetakoren batetara jo ere egin dezake.

Zauririk gertatu ez bada ere sala al daitezke tratu txarrak?

Bai, tratu txar fisikoengatik zein psikikoengatik zigortzen bait du legeak, hau da, hitzezko tratu txarrak zein egitezkoak.

## 4.2. Askatasun sexualaren aurkako erasoak

### 4.2.1. Bortxaketa

Noiz egiten da bortxatzeko delitua?

Pertsona bati eraso sexuala egiten zaionean haren gogoz kontra, penetrazioa uzkitik, baginatik edo ahotik burututz, eta ekintza hori indarraz edo beldurraz baliaturik egiten denean, erasoa jasaten duena konorterik gabe dagoenean edo hamabi urte baino gutxiagokoa denean, edo erasoa haren ezintasunaz probetxatuz egiten denean, orduan bortxaketa gertatu dela esaten da.

Bortxatzeko delitua kartzelaldi motzeko penaz (hamabi urte eta egun batetik hasi eta hogei urtera bitartean) zigortzen da.

### Zer egin behar du emakumeak bortxatzen badute?

Erasoaren ondoren, garrantzitsua da probak ez suntsitzea, halakorik baldin badago; horregatik, komeni da ez garbitzea eta arroparik ez aldatzea medikuak aztertu arte.

Bortxaketa pairatu duen emakumeak berehala jo behar du osasun zentru batera eta azterketa medikua eta ginekologikoa eskatu, jasota gera dadin zauririk izan ote duen, eta bortxatzailearen hazi hondarrak azter ditzaten, besteak beste. Balizko haurdunaldia ekiditeko «biharamuneko pilula» eta segitu beharreko tratamentua eman diezaioten eskatu behar du edo, horretarako Familia Plangintzarako Zentro batetara jo.

Komenigarria da, halaber, laguntza psikologikoa eskatzea.

Emango dioten ziurtagiri medikua duelarik, Goardiako Epaitegian, Ertzaintzaren, Udaltzaingoaren edo Poliziaren komisaldegietan salatu beharko du bortxaketa, erasotzaileari buruz ahalik eta datu gehien emanez (adina, itxura, jazkera, eta abar).

### Abortatzerik ba al du emakumeak bortxatua izan ondoren haurdun geratuz gero?

Legeari jarraituz egin dezake zentru baimendu batean, baina bakarrik bortxaketa salatu badu, eta abortoa haurdunaldiko lehen hamabi asteen barruan egiten bada.

### Bortxatzeko delitua egiten al du senarrak, emaztea sexu harremanak edukitzera behartzen badu?

Bai. Harreman sexualak norberak nahita eduki behar dira, inor derrigortu edo behartu gabe, baita ezkontzaren barruan ere. Ondorioz, senarrak emaztea behartuz gero, bortxatzeko delitua egingo du, eta salatua eta zigortua izan ahalko da.

### 4.2.2. Bestelako eraso sexualak

Nola zigortzen dira gainontzeko eraso sexualak?

**Indarrez edo behartuz eginiko beste edozein eraso sexual, erasoa jasaten duena konorterik gabe dagoenean, hamabi urte baino gutxiagokoa denean edo haren ezintasunaz probetxatuz egiten denean, kartzelaldi motzeko penaz zigortzen da, hau da, sei hilabete eta egun batetik hasita sei urtera bitarteko kartzelaz. Gainera, zigor handiagorik ere ezarri ahalko da, bortxaketa egiteko bide anker, iraingarri edo afruntagarririk erabiliz gero.**

Nola jokatu behar du emakumeak beste edozein eraso sexual pairatuz gero?

**Honelakoetan ere komenigarria da osasun zentru batera joatea sendagileak azter dezan; era berean, salaketa egin behar da, bortxaketaren kasuan bezala.**



# 5. DOHAINEKO JUSTIZIAREN ONURA: OFIZIOKO ABOKATU ETA PROKURADOREA

**Zer da dohaineko justiziaren onura?**

Auzi prozeduraz baliatzeko dirubide nahikorik ez dutenei Legeak auzitan dohainik aritzeko onartzen dien aukera da.

**Nork dauka onura hori jasotzeko eskubidea?**

Eskubidea eskatzeko unean indarrean dagoen lanbidearteko gutxienezko soldata bi halako izatera iristen ez diren edozein eratako dirusarrera edo baliabide ekonomikoak ez dauzkatenek daukate dohaineko justizia jasotzeko eskubidea.

Kontutan hartu behar da eskubide hori onartzeko, Epaileak familiaren dirusarrera osoak hartuko dituela aintzakotzat.

Beste alde batetik, bizileku gisa erabiltzen den etxebizitzaren jabe izateak ez du eragozten onura hori jasotzeko aukera, etxebizitza hori luxuzkoa ez bada, behintzat.

**Eta senarrak dirusarrera handiak izan arren, emakumeak halakorik ez duelarik, edota dirusarrera nahikorik ez duelarik, senarrarengandik banatu edo dibortziatzeko edo ezkontza baliogabetzeko demanda aurkeztu nahi badu?**

Senarrak lanbidearteko gutxienezko soldata bi halako izatera iristen diren dirusarrerak baldin baditu, emazteari ez zaio onartuko dohaineko justizia jasotzeko eskubiderik, baina, hala ere, aurretiazko edo behin-behineko neurriak eskatzean Epaileari eskatu ahal eta behar zaio auzibidearen kostuak senarrari ordainerazteko.

**Nola eska daiteke dohaineko justiziaren onura?**

Eskabidea idatziz zuzenean edota Abokatu edo Prokuradore baten bitartez aurkeztu behar zaio dohaineko justiziaren onura eskatzera behartzen duen auzi prozeduraz arduratuko den Epaitegi edo Auzitegiari.

**Zer da ofizioko Abokatua?**

Herri edo hiri bateko Abokatuen Elkargoak halako eskaria egin duen pertsonaren interesak defenditzeko izendatzen duen abokatua da.

Noiz eska daiteke ofizioko Abokatua?

Haren beharra dakarren auzibidea hasi aurretik eska daiteke, bai eta dohaineko justiziaren onura eskatzen denean ere.

Auzibidea hasi aurretik eskatuz gero, ofizioko Abokatu lanetan aritzeko izendatu denak berak eskatuko du dohaineko justiziaren onura, horretarako eskubiderik badela uste badu.

Ofizioko prokuradorerik ere eska daiteke?

Bai, Abokatua bezalaxe. Prokuradorea izendatzea eskatu duenaren interesak defendatzeaz arduratuko da.

Ofizioko Abokatuari eta Prokuradoreari ordaindu beharra dago?

Ez, baldin eta Auzitegiak dohaineko justizia jasotzeko eskubidea onartu badu. Hala izan ezik, orduan bai ordaindu behar zaie dagokiena.

# 6. HEZIKETA

## 6.1. Haurren irakaskuntza

Ba al dago 3 urtetik beherako haurren ardura hartzen duen zentru publikorik?

Bai, 40 egun betetzen dituztenetik aurrera izan dezakete lekurik haurrek haurtzaindegietan. Bizi zaren herriko Udaletxeko Gizarte-Ongizateko arloan emango dizute haien berri. Udal haurtzaindegirik ezean, agian izango duzu beste erakunderen batzuren (Aurrezki Kutxen, etab.) haurtzaindegietara jotzerik; horiei buruzko argibideak ere Udaletxean bertan jaso ditzakezu.

Zein adinetan hasten da Eskolaurreko edo Haurren Irakaskuntza?

Haurren irakaskuntzak (aintzineko eskolaurrea) bi ziklo ditu. Lehen zikloa haurrak hiru urte dituenean bukatzen da eta bigarrengoa hiru urtetatik sei urtetara bitartekoa. Haurren irakaskuntzak borondatezko izaera du, baina Administrazio Publikoek bermatu egingo dute, eskolatzea eskatzen duen populaziorako behar hainbat plaza egongo direla.

Ikastoletan haurrak 3 urte dituenetik eskolaratzea eskatzen da, batez ere haur horren familian euskararik hitzegiten ez bada.

Haurren irakaskuntzako zentroek lehen zikloa, bigarrengoa edota biak eman ahal izango dituzte. Horretarako Hezkuntz Administrazioek itunak ezarri ahal izango dituzte Udalekin, bestelako administrazio publikoekin eta irabaz-xederik gabeko erakunde pribatuekin.

## 6.2. Derrigorrezko irakaskuntza

Zer sartzen da derrigorrezko irakaskuntzan?

Oinarrizko derrigorrezko irakaskuntza lehen mailako hezkuntza eta bigarren mailako hezkuntza derrigorrezkoa osotzen dute; Hezkuntz Sistemaren Ordenamendu Orokorreko 1/1990 Legearen arabera 6 urtekin hasten da eta hamasei urterarte irauten du. Oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa izateaz gain dohanekoa da.

Zer da Bigarren mailako Heziketa Graduatua?

Bigarren mailako derrigorrezko heziketa ebaluaketa gaindituz gero lortzen den titulazioa da eta batxilergora eta erdi mailako lanbide heziketa berezira pasatzeko aukera ematen du.

Gauza bera al dira Eskola-graduatu titulua eta Eskola-ziurtagiria?

Ez, OHOko 8. kurtsoko azterketak behar bezala gainditu ez dituztenek ezin dute Eskola-graduatu titulua eskuratu, baina Eskola-ziurtagiria ematen zaie; izan ere, lan bat eskuratzeko orduan agiri hori eskatuko diete.

Eskola-ziurtagiriak Lehen Mailako Lanbide-heziketan sartzeko aukera ere ematen du.

LOGSE-k titulazio bakarra aurrikusten du, etorkizunean Bigarren mailako Hezkuntza Graduazioa ziurtatuko duena, eta horrek aukera emango du batxilergoa eta erdi mailako lanbide heziketa berezira pasatzeko.

## 6.3. Euskaraz edo euskara ikasteko eskubidea

Edozein ikaslek al du irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea?

Bai, izan ere, hezkuntzaren esparruko Hizkuntz Normalkuntzaren abiapuntu diren printzipioak biltzen dituen 10/1982 Legearen arabera, ikasle guztiek dute irakaskuntza —hezkuntz maila desberdinetan— euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea.

Zein irakaskuntz eredu elebidun ditugu aukeran?

*Eskolaurrerako eta OHOrako:*

A eredua. Irakasgai guztiak —euskara izan ezik— nagusiki gaztelaniaz ematen dira. Euskara beste edozein irakasgai bezalaxe ematen da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako orduak eskaintzen zaizkiolarik astean.

Baldin eta ikasleak euskara aski ondo erabiltzera iristen badira, beste irakasgai batzuetako zenbait gai ere euskaraz eman daitezke OHOko goreneko mailetan.

B eredua. Bai gaztelania, bai euskara, beste gai batzuk irakasteko erabiltzen dira. Gaztelania, printzipioz, irakurketa eta idazketa eta matematikak irakasteko erabiliko da. Euskara, berriz, gainerako irakasgaiak emateko: esperientziak, plastika eta dinamika, batez ere. Gainera, euskara zein gaztelania irakasgai bezala ere lantzen dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako zehazten dituen orduak eskaintzen zaizkielarik astean.

D eredua. Irakasgai guztiak —gaztelania izan ezik— nagusiki euskaraz ematen dira, euskara bera ere irakasgai gisa lantzen delarik; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako orduak eskaintzen zaizkio horri astean.

Gaztelania, eskolatzea hasten denetik bertatik, beste edozein irakasgai bezalaxe ematen da.

*BBB, UBI eta LHrako:*

A eredua. Irakasgai guztiak —Euskal Hizkuntza eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzak izan ezik— nagusiki gaztelaniaz ematen dira. Euskara guztiok eta derrigorrez ikasi beharreko irakasgaia da, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako orduak eskaini behar zaizkio astean. Euskara ondo menderatzera iristen diren ikasleekin zenbait gai euskaraz ere lan daitezke.

D eredua. Irakasgai guztiak —Erdal Hizkuntza eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzak izan ezik— nagusiki euskaraz ematen dira. Euskara bera, bai eta gaztelania ere, irakasgai bezala ere lantzen dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako programa eta ordutegiei jarraiki.

## 6.4. Ikasteko dirulaguntzak

Oinarrizko derrigorrezko irakaskuntza dohainekoa al da beti?

Derrigorrezko irakaskuntza dohainekoa da ikastetxe publikoetan, bai eta hitzarmena duten ikastetxeetan ere; horregatik, azken horietan, ikastolak izan zein ikastetxe pribatuak izan, kostua gutxitu egin behar da kontzeptu horretan.

Zer nolako laguntza ekonomikoak eska daitezke ikasteko?

Edozein ikasketa ofizial (Eskolaurrea edo haurrena, Lehen mailakoa, Bigarren mailakoa, egungo OHO, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Unibertsitateko ikasketak edo besterik, hala nola Musika, Hizkuntzak, Arte Dramatikoa, Turismoa, etab.) burutzeko eska daitezke beka edo laguntza ekonomikoak, bai eta eskolako jantokiko gastuei edota dena delako ikastetxera joateko beharrezko den garraioak dakartzan gastuei aurre egiteko ere. Argibide gehiago jaso nahi badituzu, zure herriko udal bulegoetara edota Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Bilbo, Donostia eta Gasteizko Lurralde Ordezkaritzara jo behar duzu.

## 6.5. Irakaskuntza ertainak

Zein ikasketa egin daitezke OHO eta Bigarren mailako Heziketa bukatu ondoren?

Eskola-graduatu agiriak Batxilergo Bateratu Balioanitzera (BBB) zein Lanbide-heziketara (LH) jotzeko aukera ematen du, bai eta Hizkuntz Eskoletan, Arte Aplikatu eta Lanbideen Eskoletan, Arte Dramatiko eta Dantza Eskoletan, eta Musika Eskoletan sartzeko ere. Lehen graduko Lanbide Heziketara sartzeko aukera ere ematen du.

Bigarren Mailako Heziketa Graduatuaren agiriak Batxilergora eta erdi mailako Lanbide Heziketa berezira jotzeko aukera emango du, bai eta Hizkuntz Eskoletan, Arte Aplikatu eta Lanbideen Eskoletan, Arte Dramatiko eta Dantza Eskoletan, eta Musika Eskoletan sartzeko ere.

Eskola-agiriak Lehen mailako Lanbide Heziketara jotzeko aukera ematen du.

Noiz hasi behar da ikastetxe edo kurtso jakin batetarako matrikula egiteaz pentsatzen?

Apiriletik aurrera komeni da egin nahi diren ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeekiko lehenengo kontaktuak izatea, nahiz eta ikastetxe publiko ofizialetan behin-betiko matrikula egiteko epeak irailean izaten diren; unibertsitateari dagokionez, berriz, urriaren 30era artekoa ere izaten da epe hori.

Hala ere, matrikula beranduago egingo bada ere, aurreinskripzioa udaberrian egitea komeni da.

Ba al dago gero hemen konbalidatu ahal izango diren BBB, UBI eta LHko ikasketak atzerrian burutzerik?

Bai, badira gauza guztiez —bidaia, ikaslea hartuko duen familia, ikastetxea, etab.— arduratzen diren iniziatiba pribatuko zenbait erakunde kultural, baina ikasketa horien konbalidazioa Madrileko Hezkuntza Ministraritzak ematen du. Inportantea da Ministraritzak zein irakasgai konbalida ditzakeen aurrez jakitea, guztiek ez bait dute balio berbera; konbalidatu nahi den kurtsoaren arabera doa hori.

Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzak beste herrialde batzuetan onetsita dituen Institutoen bidez ere egin daitezke BBB eta UBIko ikasketak atzerrian. Kasu horietan aski da ikasketa-espedientearen ohizko lekualdaketa egitea, eta ikasketak bukatutakoan ez dago inolako konbalidaziorik egin beharrik.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Madrileko Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzara edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Lurralde Ordezkaritzara jo dezakezu.

## 6.6. BBB eta UBI

Nor sar daiteke BBBen?

Baldintza hauetakoren bat betetzen duena:

Lehenengo kurtsoan sartzeko:

- Eskola-graduaturako azterketak gainditu izana.
- Oinarrizko Batxilergokoak (Laugarreneko Rebalida).
- Batxilergo orokorreko bosgarren kurtsoko edo batxilergo teknikoko seigarreneko ikasle izatea.
- Lehen mailako Lanbide-Heziketako titulua izatea.

Zuzenean 2. edo 3. kurtsora sartzeko modurik ere badago.

Horretarako bete behar diren baldintzei buruzko argibideak Institutoan bertan emango dizkizute.

Ba al dago BBB eta UBIko kurtsoak gauez edo urrutitik egiterik?

Hamazortzi urte beteta dituenak egin ditzake ikasketa horiek gaueko erregimenean, ikastetxe publikoetan, lanean ari dela egiaztatzen badu.

BBB eta UBIko ikasketak urrutitik egiteko aukera ere badago, Urrutiko Batxilergorako Euskal Institutua (UBEI) delakoaren bitartez, hain zuzen ere. Donostian du egoitza instituto horrek.

## 6.7. Lanbide-heziketa

Nola sar daitezke emakumeak Lanbide-Heziketan?

— Inolako titulaziorik eduki ezean, Lehen Mailako ikastetxeetan bertan maiz eskaintzen den egokitzapen-kurtsoa egin daiteke.

— Lehenengo Mailan sartu nahi izanez gero, beti ere, honako titulazio hauetako bat behar da:

- Eskola-graduatua.
- Eskola-ziurtagiria.
- Oinarrizko Batxilergoa.
- «Egokitzapen eta bitarteko ikastaroa» delakoa gainditu izanaren agiria.

— Bigarren Mailan sartu nahi izanez gero, honako baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- BBBko titulua izatea.
- Teknikari Laguntzaile (Lanbide-heziketako Lehen Mailakoa) titulua izatea.
- Goimailako Batxilergoko kurtso guztiak gaindituta izatea, Rebalida egin gabe izanik ere.
- Lehen Mailako Irakaskuntzako Maistra titulazioa edukitzea, batxilergoko 5. eta 6. kurtsoak konbalidatuta izanik.
- Oinarrizko Batxilergo Teknikoa egina eta «Precou» delako kurtsoa gainditua izatea.
- Industriako Ofizial, Laborantzako Kapataz edo Nekazal Instruktore titulua izatea.

— Lanbideren batean badiharduzu beharrezko titulazioa ez duzularik, 18 urte beteta ez badago eskolatua, eta lan horretan, gutxienez ere, urtebete darama egiaztatzerik badu, Hezkuntza Unibetsitate eta Ikerketako

Lurralde Ordezkaritzara jo beharko duzu informazio bila; izan ere, Lanbide-Heziketako Lehen Mailako Teknikari Laguntzaile titulua lortzeko deialdiak egiten bait dira aldizka, eta horiek gainditzeak norberaren lanbidean jarraitzeko ahalmena ematen du, beharrezko den titulazioa eskuratzen delarik.

## Zein balio dute ofizial ez diren irakaskuntzak ematen dituen ikastetxe batean burututako ikasketek?

Ikastetxe batean matrikulatu aurretik ondo informatu beharra dago, zenbait akademiatan ematen diren diplomek ez bait dute, maiz, balio ofizialik izaten. Lanen batetara jotzeko orduan baliorik izango ote duten jakiteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Lurralde Ordezkaritzan eska ditzakezu argibideak, edota ikastetxe horretan bertan eskatu Hezkuntza Sailak edo Ministraritzak irakaskuntza horiek emateko baimena eman zion Agindua.

## Ba al dago Lanbide-Heziketako ikasketak gauez edo urrutitik egiterik? Eta norbere kasa?

Bai, badago ikasketa horiek gaueko txandan egiterik, 16 urte beteta izanez gero eta lanen bat egiten dela eta egunez ezin egin direla egiaztatuz gero.

Lanbide-heziketa ezin da urrutitik egin, ikasketa horien zati handi bat praktikak eginez burutu beharrekoa bait da.

Lanbide-Heziketa «norbere kasa» egiteari dagokionez, Bigarren Mailako Lanbide-Heziketan bakarrik egin daiteke hori.

## Zer dira «Lanbidean Sartzeko Proiektuak»?

Lehenengo enplegua oraindik lortu ez duten eta eskolatu gabe dauden 16 eta 18 urte bitarteko gazteei prestakuntza eskaintzera bideratutako programak dira, eta Udalek garatzen dituzte, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin egindako hitzarmena dela medio. Programa horien bitartez hainbat lanbidetarako prestatzeko tailerretara jo dezakete gazteek: ostalaritza, eraikuntza, elikadura edo artisautzari buruzko tailerretara edo zerbitzuetako laguntzailetarako tailerretara, esate baterako.

Udaletxean, Hezkuntza edota Gazteen Arloan, argibide gehiago lor daiteke programa honi zein beste batzuei buruz, hala nola «Lanaren Bidezko Prestakuntzarako Ikastaroei», «Lanbide Etxeei» edo «Eskola-Lantokiei» buruz; bizilekua gure Autonomi Erkidegoan duten gazteak, edozein adinetakoak, sar daitezke horietan, halako baldintza batzuk betez gero.

## 6.8. Unibertsitateko hezkuntza

### Zer egin behar da unibertsitatean ikasketak egiteko?

Matrikula formalizatu aurretik aurre-inskripzioa egin behar da, ekaina aldera, Errektoregoan, bai eta, behar izanez gero, aukeratutako unibertsitatera espedientea aldatzeko eskatu ere.

Matrikula ofiziala irailaren 1etik 30era bitartean egin behar izaten da; iraileko deialditik datozen ikasleek, ordea, urriaren 1etik 30era bitartean egiten dute.

Unibertsitate pribatuek, Deustukoak esate baterako, beste egutegi bat dute, eta komenigarria da apirilaz gero bertako idazkaritzan argibideak eskatzea, maiatzean egin ohi bait dute aurre-inskripzioa.

### Derrigorrezkoa al da Selektibitate azterketan euskarari buruzko proba gainditzea?

Euskal Herriko Unibertsitateko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira, eta ikasle guztiek dute azterketetan eta ebaluaketa probetan gure Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean zein bestean erantzuteko eskubidea.

Unibertsitateak, bere ardura eta zereginen barruan, bi hizkuntzen erabilpen normala eta ofiziala bermatzen du; beraz, euskara jakitea eta erabiltzea eskubidetzat jotzen da, eta ez jakitea edo behar bezain ondo ez jakitea ez da aski Euskal Herriko Unibertsitatera sartzeko selektibitate azterketan inor baztertzeko.

Egin al daitezke urrutitik unibertsitateko ikasketak?

Bai. Universidad Nacional de Educación a Distancia, UNED delakoak eskaintzen du unibertsitateko karrerak urrunetik egiteko aukerarik. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Lurralde Ordezkaritzan jaso ditzakezu horri buruzko argibide gehiago.

Zer egin behar da espedientea lekuz aldatzeko edo konbalidazio bat lortzeko?

Espedientea unibertsitate batetik beste batera aldatzeko eskabidea ekainean egin behar da, eta horri buruzko erabakia irailaren 1a baino lehenago hartzen da; horretatik salbu geratzen dira eskegilearen edo ikaslearen gurasoek egoitza aldatzearen ondorioz eta eskegilea funtzionari izanik egiten diren eskabideak, honelakoetan epez kanpo ere egin bait daitezke.

Espedientea lekuz aldatzeko eskabidea ukatuz gero, horren berri jaso ondorengo 15 eguneko epearen barruan egin daiteke errekurtsoa.

Irakasgai baten edo batzuren konbalidazioa lortu nahi bada, lehendik egindakoaz beste karrera bat egin nahi dela eta, konbalidazio hori norako lortu nahi den, ikastetxe horretako Dekano edo Zuzendariari zuzendu behar zaio eskabidea.

## 6.9. Helduen hezkuntza iraunkorra

Nola lor daiteke Eskola-graduatu titulua adinez nagusi izanik?

Hamalau urtetik gorako pertsona guztiek lor dezakete Eskola-graduatua «Helduen Hezkuntza Iraunkorra» delakoaren bitartez. Sistema horren bidez, eta prestatzen gutxienez ere urtebeteko epea eman ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate Ikerketa Sailak egiten dituen deialdietara aurkez daiteke; deialdietako probak gainditzen dituzten guztiei ematen zaie titulu hori.

Lau deialditan probak gainditzen ez dituztenek ere Eskola-ziurtagiria eskuratzen dute.

Probak gainditzeko prestakuntza Helduen Hezkuntza Iraunkorrerako ikastetxe publikoetan zein ofizialki onetsita dauden zentru pribatuetan lor daiteke; bai eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lurralde ordezkaritzetan dauden Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzarako Euskal Ikastegien bitartez ere.

Zein baldintza bete behar dira unibertsitatera sartzeko, 25 urtetik gora izanez gero?

Ez da inolako titulaziorik eskatzen, eta unibertsitate bakoitzak egiten du unibertsitateko ikasketak egin nahi dituztenen artean irakaskuntzako aurreko mailak gainditu gabe dituztenei zuzendutako halako proba batzuetarako deialdia.

Unibertsitate bakoitzak bere probak jartzen ditu; beraz, menderatu beharreko gaien edukiei eta azterketa gainditu ondoren egin beharreko iniziazio eta orientazio ikastaroari buruzko argibideak aukeratu den unibertsitatean bertan eskatu behar dira.

UNEDen bitartez egin nahi badituzu ikasketak, urrutitik alegia, UNEDen bertan egin behar duzu 25 urtetik gorakoentzako sarrera azterketa. Sarrera azterketa prestatzeak ikasturte bat hartzen du gutxienez ere.

## 6.10. Osabidezko hezkuntza

Zer da Osabidezko Hezkuntza?

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Euskal Herriko Foru Aldundiek «Consorcio para la Educación Compensatoria-Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa» delakoa sortu dute. Euskadiko udaletxe desberdinekin egindako hitzarmenak medio, zera lortu nahi da horren bidez: eskola-sistema goizegi —14 eta 16 urte bitartean— utzi duen gazte jendeari lanaren mundu aktibora bideratzeko oinarrizko gaitasuna es-

kaintzea, dela ikastetxeetan bertan, ikasgela berezietan, dela hain zuzen ere aipatutako gazte jende horri erantzuteko diren osabidezko hezkuntzarako ikasgeletan.

## 6.11. Hezkuntza berezia

Zer da Hezkuntza Berezia?

Eragozpen fisiko, psikiko edo zentzumenaren alorrekoren bat duten edo denbora igaro ahala inadaptazioren bat agertu duten pertsonei eskaintzen zaien hezkuntza da.

Kasu bakoitzaren ezaugarriak kontutan izanik, Hezkuntzarako ohizko ikastetxeetan edo Ikastetxe Berezietan gauzatzen da hezkuntza hori.

Badira irakaskuntza zein garraioa, jantokia edota egoitza direla eta sortutako gastuei aurre egiteko laguntzak; bai eta pedagogi berreziketarako, lengoaiaren berreziketarako eta abarretarako ere.

Udaletxean emango dizkizute dena delako laguntza tramitatzeko behar dituzun argibideak.

## 6.12. Atzerriko ikasketak eta prestakuntza

Nola egin ditzake unibertsitari batek ikasketak Europako unibertsitate batean eta bere Herrian egin izan balitu bezala haien konbalidazioa lortu?

Lehenik, osorik gaindituta eduki behar da lehen kurtsoa; hori horrela, unibertsitatean bertan eskatu beharko ditu argibideak «Erasmus» europear programari buruz, unibertsitateak berak dituen harremanen eta eskaintzen dituen konbalidazioen berri jasotzeko, eta kurtso bat —osorik edo zati batean— beste zein unibertsitatetan egin daitekeen jakiteko.

Unibertsitateak berak emango dizu horretarako dauden laguntza ekonomikoen berri, bai eta argitu ere zenbateraino jakin behar den eskatzen den hizkuntza.

Denboraz egin behar dira eskabideak, 9 edota 12 hilabete lehenagotik. Unibertsitate karrerako azken bi kurtsoetan errazago izaten da esperientzia horretan sartzea.

Zein aukera dituzte Lanbide Hezkuntzako ikasketak egiten ari diren edo lan egin beharrean dauden gazteek, beren burua Europan prestatzeari dagokionez?

«Langile Gazteen Trukaketa» izeneko programak honako hauek hartzen ditu bere baitan: enpresetan burutzen diren lanbide-prestaketarako iraupen luzeko ikastaroak (4-16 hilabete), iraupen motzeko ikasketa eta prestaketarako ikastaroak (3 aste-3 hilabeteko) eta hizkuntzak ikasteko osagarrizko ikastaroak.

Oinarrizko lanbide hezkuntza edo esperientzia profesional praktikoa duten 18 eta 28 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta, bai eta lanik gabe edo beren ezagutzak lanpostura egokitzeko prestakuntzaren beharrean dauden langileei ere.

Argibide gehiago jasotzeko Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte-Seguntza Sailera jo dezakezu.



# 7. LANA

## Zein lanbide eduki dezake emakumeak?

Gai delarik, edozein, inolako salbuespenik gabe:

- Besteen kontura, enpresa pribatu edo publiko baten menpe.
- Bere kontura enpresa bat sortu, eta bertan edozein jarduera ekonomiko, nekazaritzako, industriako edo zerbitzuetako, eskulangintzako, edo bestelako gauzatzen duelarik.
- Berak langileak kontratatzen dituelarik.
- Beste langile batzuekin batera Merkatal Elkarte edo lan Kooperatibaren bat sortzen duelarik.
- Funtzio publikoan sartzeko, hots, Estatuko, Eusko Jaurlaritzako edo Udaletxe edo Aldundiren bateko funtzionari izateko oposaketa eta lehiaketa-oposaketetan parte hartuz.
- Publikoki eskaintzen diren lanpostuetako bat betetzeko aukera izan dezake, Segurtasun Indarren baitakoak (Ertzaintza, etab.) barne, bai eta bertan agintea bereganatu ere, ofizial edo subofizial gisa, gizonak dituen baldintza berberetan.
- Duela gutxitik, Indar Armatuetara ere jo dezake, Akademia Militarretan sartuz.

## Zein adin izan behar du emakumeak lan egiteko?

16 urte betetzen dituenetik lan egin dezake. Gurasoen edo tutorearen baimena baino ez du behar lan-kontratu bat izenpetzeko, beraiekin eta beraiekiko menpekotasun ekonomikoan bizi bada.

Hala ere, Administrazioko lanposturen batetarako oposaketan parte hartu ahal izateko 18 urte beteta edukitzea eskatu ohi da, hots, adinez nagusi izatea.

## Ezkondutako emakume batek izenpetu al dezake lan-kontraturik, lan egiteko duen nahiarekin senarra ados ez badago ere?

Bai.

Ba al dago emakume bat lanpostu batetik bazter uzterik, haurdun dagoelako?

Horrelakorik egitea Legeak debekaturiko bereizketa burutzea da. Hala ere, gertakari hau suertatuz gero, bestelako itxurazko bazterketa-arrazoirekin argudiatuko da kanporaketa, enpresaritzak kontratatzeko duen askatasun zabalaren barruan.

Kaleraketa lan kontratua indarrean dagoela gertatzen bada eta arrazoia emakumearen haurdunaldia izanez gero, horrela azaldu ahal izango du Epaitegi Sozialaren aurrean eta honek kaleratzearen itxurazko arrazoiak egiaztatzea eskatuko dio enpresariari, eta horrelakorik egingo ez balu kaleraketa guztiz baliogabekotzat joko du eta enpresaria zigortu inolako aringarririk gabe.

Nola aurki daiteke lana?

Enpresa pribatuan: lan eskabidea enplegu bulego batean inskribatuz, hori bait da horretarako gaiturik dagoen legezko erakunde bakarra. Kolokaziorako bulego pribatuak debekatuta daude. Enplegua beste bitarteko ezagunen batetik lortuz gero prentsa-iragarkiak, pertsonal aukeraketa pribatuak idatzizko lan kontratua izenpetzea komenigarria da nolanahi ere, enplegu bulegoak oneritzia.

Administrazioan edo Funtzio Publikoan: enplegu eskaintza publikoaren bidez, lan kontratazioz, oposaketa batetako probak gaindituz; horietarako deialdiak Estatuko Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Lurralde Historikoetako Aldizkarietan argitaratu ohi dira, bertan adierazten direlarik titulazioari eta prestakuntzari dagokienez bete beharreko baldintzak, bai eta eskabidea egiteko epea eta aukeraketa probetan parte hartzeari buruzko gorabeherak ere.

Beharrezkoa al da beti idatzizko lan-kontratua?

Ez, hitzez ere egin daiteke kontratua, idatzizko kontraturik izenpetu beharrik gabe. Enpresa eta langilearen arteko erlazioan beteko da edukiz kontratu hori, nahiz eta abantaila gehiago dituen idatzizko kontratua egiteak.

Aldibaterako lanetarako kontratuek idatzizkoak izan behar dute.

Zeintzuk dira idatzizko lan-kontratu batetako edukin garrantzitsuak?

— probaldia
— kategoria profesionala
— soldata
— lanaldia, lan ordutegia
— oporrak, etab.

Eta beti ere zigilatutako kopia bat eskatu enplegu bulegoan.

## 7.1. Aldibaterako lan-kontratuak

Aldibaterako lanetarako zein kontratu mota daude?

Lan kontratua denbora mugarik gabe egiten dela suposatzen da, baina Legeak iraupen mugatuko kontratuak egiteko aukera ematen du.

Aldibaterako lanetarako hainbat kontratu mota daude. Guztiak ere idatziz egin beharrekoak. Ez badira idatziz egiten plantilako langile finko bihurtuko da kontratatua. Salbuespena izango da idatzizko aldibaterako lan kontratua egin zuen enpresariak behar bezala ziurtatzen duenean eskeinitako kontratua aldibaterakoa zela.

Legeari iruzur eginez burututako aldibaterako kontratuek plantilako langile finko bihurtuko dute kontratu horren bidez hartutako langilea. Aldibaterako kontratuak izan daitezke:

— Enpresan lana pilatu delako aldibaterakoak: Arrazoia enpresan lana pilatzea da. Kontratu honek ezin du sei hilabeteko iraupena gainditu.
— Lan jakin baterako: Lan hori bukatzen denean amaituko da kontratua.
— Gaisotasuna, haurra jaiotzea edo eszedentzia dela medio laneko baja egoeran dagoen langile bat ordezkatzeko, bajak dirauen artean.
— Enplegu sustapenekoa: langabezian apuntatuta daudenentzat. Iraupena kontratuan bertan zehazten da beti.
— Iharduera berri bat martxan jartzekoa: Legeak salbuespen gisa baimendutakoak eta enpresa, lantoki edo produkzio-lerro berri bat ezarri ondorengo hiru

urtetan hitzartu ahal izango dira 6 hilabete eta 3 urte bitarteko iraupenarekin. Indarraldia ezin izango da iharduera berria hasi eta hiru urte pasa ondoren luzatu.

Bestelako lan-kontraturik ba al dago emakumeentzat interes berezia duenik?

— Praktikaldiko edo prestakuntzarako kontratua. Unibertsitateko ikasketak edo lanbide hezkuntzakoak aurreko lau urteen barruan bukatu izana eskatzen da (praktikaldiko kontraturako). Prestakuntzarako kontratua eginez gero, lan egitearekin batera ikasketak jasotzen dira, gerorako lanerako prestatzearren.

— Lanegun partzialez: Langileak egunean edo astean zehar gutxieneko orduak ematen ditu lanean, edo gutxineeko egunetan hilean zehar, nolanahi ere, denbora hori ohizkoa den lanaldiaren hirutatik bi baino laburragoa izan behar du.

  Lanegun partzialeko kontratua izango da, halaber, lanaldia eta soldata erdira gutxitzen direnean langilea jubilazio partziala lortzen duelako. Kasu horietan kontratua egin daiteke langaberen batekin eta, lanaldia, gutxienik jubilatu partzialari jubilazio adinera heltzeko egiten zaion gutxitzearen hainakoa izango da. Kontratu honi «errelebu kontratua» izena ematen zaio.

— Etxean egindako lana: etxean egiten da, enpresari batentzat. Kontratuan honako hauek zehaztu beharko dira: egin beharreko lana zein den eta zenbat egin behar den denbora unitate bakoitzean, zenbat ordaintzen den eta zernolako materialeak entregatu eta itzuli behar diren; lana egiteko tresneria beharrezkoa bada, nork jarriko duen eta mantenua nork ordainduko duen ere zehaztu beharko da.

— Denboraldiko lana: urteko garai batean bakarrik egiten dena da; esate baterako:

  · Udaldiko instalakuntzetan, hondartza eta igerilekuetan...
  · Kontserbetako industrian.

Mugarik gabekoak izan daitezke edo lanpostu finko bilakatu, denboraldi batean baino gehiagotan deitzen badizute lanerako («aldikako lan finkoa» deitzen zaio horri). Beharrezkoa ez bada ere, seguruagoa da denboraldiko kontratua idatziz egitea, eta bertan kategoria, lanaldia eta soldata adieraztea, besteak beste.

Zein eskubide ematen ditu aldibaterako kontratu batek?

Aldibaterako lanak edozein lan finkok ezartzen dizkion betebehar berberak ezartzen dizkio enpresariari; hala ere, horietaz baliatu ahal izateko, baldintza batzuk bete beharra dago.

Zernolako baldintzak bete behar dituzte aldibaterako kontratuek?

Kontratuak idatzizkoa izan beharko du, eta enpresari —duen egoitzaren arabera— dagokion enplegu bulegoan ontzat emana egon beharko du.

Gizarte-Segurantzan afiliatu eta kotizatu beharra dago lanean hasi ondorengo 5 egunen barruan.

Kategoria profesionala, soldata, lanaldia, oporrak, etab. zehaztu beharko ditu.

## 7.2. Soldata

Zeri deitzen zaio soldata eta «lanbidearteko gutxienezko soldata»?

Lan zerbitzuak eskaintzearen truke langileak hartzen dituen diru ordainketa guztiak, eskudirutan edo bestela, dira soldata, horren barruan sartuz lanaldi gisa har daitezkeen deskantsualdietako ordainketa (oporrak, jaiegunak, etab.)

Gobernuak finkatzen du urtero Lanbidearteko Gutxienezko Soldataren (LGS) zenbatekoa, 16-18 urte bitarteko langileak eta 18 urtetik gorakoak bereiztuz. Beste baten kontura lan egiten duen edozein langilek gutxienik soldata hori jasotzeko eskubidea du.

Kopuru hauek hilero jasotzen dira, gehi aparteko ordainketak (urtean bi, uztailean eta abenduan, besteen kopuru berekoak).

Horrez gain langileak legez ezarritako osagarriak kobratzeko eskubidea izango du, esaterako, aintzinekotasuna, nekagarritasuna, toxikotasuna, etab.

Soldataren zenbatekoa ezartzerakoan oso garrantzitsua da zein komenio kolektibo erabili behar den eta horrek, nolanahi ere, LGSaren pareko edo goragoko bat finkatuko du. Kontratu indibidualen bitartez konbenio kolektiboaren gaineko soldatak itundu ahal izango dira.

## Nola jakin daiteke jaso beharreko soldata jasotzen den ala ez?

Kasu bakoitzean zera jakin behar da: zein sektoretan lan egiten den, estatu edo lurralde mailan indarrean dagoen konbenioa zein den zehaztatzeko, konbenio horretan kategoria profesional bakoitzerako ezarrita dagoen soldaten taula, horrelaxe ezagutuko da norberari dagokion benetako soldata eta ezarrita dauden ohiz kanpoko ordainketen kopurua.

## Zer da nomina?

Hileroko ordainketa jasotzen denean entregatzen den ziurtagiria da eta etorkizunean egin litekeen edozein erreklamaziorako gorde egin behar da.

Honako datu hauek agertu behar dute nominan:

— Enpresaren izena, egoitza eta Gizarte-Segurantzako zenbakia.

— Langilearen izena, aintzinatasuna, kategoria eta soldataren zenbatekoa.

— Ordainketa zein aldiri dagokion.

— Ordaindutako soldata eta, baldin badagokio, osagarriak (aintzinatasuna, sariak...).

— Gizarte-Segurantzari ordaintzen zaionaren kenketak eta errentaren gaineko zergaren (PFEZ) atxikipen aldagarria urteko soldataren zenbatekoaren eta familiako kargen araberakoa.

— Jasotzen den soldata garbia, hots, benetan kobratzen dena.

Zernolako garrantzia dute nominaren erreziboek?

Nominaren erreziboek lan egin izanaren frogagarri dira. Beti eskatu behar dira, baita gorde ere; izenpetu egin behar dira gainera, nahiz eta izenpetzeak ez duen adierazi nahi inolako adostasunik, baizik eta soil-soilik bertan ageri den kopurua jaso dela.

Zer esan nahi da «lan berak balio bera» esaten denean?

Lan berbera egiten duten gizonak eta emakumeak soldata eta osagarri berberak jaso behar dituztela, lanpostuaren izena edozein izanik ere.

## 7.3. Kategoria profesionala

Zer da kategoria profesionala?

Lanpostu bakoitzeko zeregin eta funtzioen multzoa da. Laneko Ordenantzetan eta indarrean dauden konbenio kolektiboetan zehazten dira kategoria horiek, bertan egiten delarik sailkapena eta baita horietako bakoitzeko soldata zein izango den adierazten ere.

Kategoria profesionalak berdina izan behar du gizonarentzat eta emakumearentzat, edukiari eta izenari dagokienez. Ez dago emakumeentzat baino izango ez diren lanpostuetara zuzendutako kategoriarik egiterik. Ezta lana egiten duena gizona edo emakumea den soldata desberdinak ematerik ere. Aurreko guztia Administrazio Publikoaren esparruan ere kontutan hartzekoa da, hau da, funtzionari edo kontratupeko langile izanez gero.

Zalantzarik edo ezadostasunik izanez gero zer egin?

Komenigarria da, oso, Enpresa Batzordearekin edota Sindikatuarekin kontsultatzea; demanda ezarri daiteke Gizarte Epaitegian.

Emakumeak frogatu behar al du enpresak diskriminatu egiten duela?

Ez, Lan Prozedurako Lege berriko 96. artikuluak, lan auzietan emakumearen diskriminazioa salatzen denean, enpresak frogatu behar du horrelakorik ez dagoela.

## 7.4. Lanaldia

### Zeri deitzen zaio «lanaldia»?

Indarrean dagoen legeriaren arabera eska daitekeen zerbitzu-emaitza kontratatuaren iraupena da eta Konbenioetan finkatzen da.

Lanaldia Konbenio Kolektiboetan finkatzen da normalean besteen ardurapeko langileentzat, eta Administrazio Publikoaren esparruan, Akordio eta Itunetan.

Nolanahi ere, Langileen Estatutuak ezartzen du lanaldia gehienez ere astean 40 ordutakoa izango dela eta gainera debekatu egiten du egunean 9 orduz baino gehiago lan egitea.

Lanaldi hori enpresak edo administrazioak finkatzen dituzten ordutegi desberdinen arabera gauza daiteke, jarraiko lanaldian, etenik egin gabe, 8etatik 3etara, esate baterako, edo zatitutako lanaldian, lanaldia eten eta bazkaltzeko gutxienez ere ordu bete hartuz.

## 7.5. Lan kontratuak etetea

### Nola ematen da etentzat lan kontratu bat?

— Aldibaterako enplegu-erregulazio espedienteagatik. Enpresak eskaturik eta lan agintaritzak onarturik, azken honek zehaztuko ditu baldintzak —horien artean denbora— eta enplegatuak desenplegurako eskubidea izango du.

— Enpresariak emandako baimenagatik, heziketa kasuetan, baldin eta edozein motatako ikasketak burutzen badira eta horretarako beharrezko denboran zehar. Kasu honetan ez dago soldatarako eskubiderik.

— Gaisotasunagatik, gehienik ere 18 hilabetetako baja, eta lan ezgaitasun iragankorra deitzen zaio; kasu horietan %75a edo zenbateko handiagoa hartzen da, %100era ere hel daiteke horretarako itun berezia egonez gero.

— Eszedentziagatik, lanpostuaren erreserbarekin:
  - Amatasunagatik, urtebete.
  - Kargu politiko nahiz sindikal publikoa betetzeagatik, irauten duen bitartean.

Ez da soldatarik hartzen eta ez du enpresako aintzinekotasun eraginik sortzen (kargu publikoen kasuan izan ezik, aintzinekotasuna horietan kontutan hartzen bait da.

— Lanpostuaren erreserbarik gabe, oro har, bi eta bost urte bitarteko eszedentzia-aldia lor daiteke. Epeei dagokienez aldaketa ugari daude sektore bakoitzeko konbenio kolektiboetan.

  Kasu honetan, zaila izaten da gehienetan lanpostura itzultzea, gehienetan, lehengo lanpostua edo antzerakoren bat hutsik egotea eskatzen bait da.

## 7.6. Lan kontratuak amaitzea

### Nola ematen da amaitutzat lan kontratu bat?

— Langilearen borondateagatik: borondatezko baja da. Hamabost egunetako aurreabisua eskatu ohi da, hau da, 15 egun lehenago enpresari jakinaraztea lana utziko dela. Kitapena edo lan egindako urte naturalaren aldiari dagozkion aparteko ordainketa eta oporren zatia kobratzeko eskubidea ematen du.

— Denbora amaitzeagatik, aldibaterako kontratuetan; borondatezko bajaren ondorio berberak ditu.

— Obra edo lan jakin bat amaitzeagatik; adierazitako eran jasoko da kitapena.

— Enpresak erabakita, despidoaren bidez.

## 7.7. Despidoa

### Noiz gertatzen da despidoa?

Despidoa enpresariak bere aldetik lan kontratua bukatutzat jotzeko hartzen duen erabakia da. Idatziz egin behar da eta erabaki horren kausak eta eragin-data zehaztu behar dira. Hala ere despidoa hitzez egin daiteke baina, kasu horretan baliogabea da despidoa.

## Despidoa emateko arrazoi ez diren kausak

Despidorako kausak berberak dira gizonarentzat eta emakumearentzat. Berariaz debekatzen du Legeak emakumea, emakume izateagatik, edonola ere diskriminatzea: esate baterako, haurdun dagoelako. Lan bat lortu edo mantendu nahi duela-eta, inork ezin dio emakume bati alderdi pertsonal eta intimoei buruzko galdeketarik egin, nola bait dira egoera zibila, seme-alaben kopurua, etab.

## Zer egin behar du despidoarekin ados ez dagoenak?

Abokatu bati edo, erakunde sindikalen bateko kide izanik, horri eskatu beharko dizkio aholkuak, despidoaren baliorik ezari edo bidezkotasunik ezari buruzko erreklamazioa egiteko Gizarte Epaitegian. Erreklamazioa despidoaren berri jaso ondorengo hogei eguneko epearen barruan egin beharko da nahitanahiez.

## Zernolako ondorioak ditu despidoagatik egindako auzi batek?

Despidoa idazkirik gabe edo arrazoiak nahiz eragin data azaldu gabe burutu bazen, baliogabekotzat joko da eta kasu horretan enpresak langilea berronartu beharko du eta despidoa gertatu zenetik kobratu gabeko soldatak ordaindu beharko dizkio. Nolanahi ere enpresak erabakia errefusa dezakete eta orduan Gizarte Epaitegiak kontratoa etentzat joko du eta kalteordain osagarria finkatuko, hau da, 15 egun zerbitzu urte bakoitzeko eta gehienik ere hamabi hilabeteko.

Baliogabekotzat joko da halaber sindikatoren batetako kidea den langilearena baldin eta bertako ordezkariak entzun gabe egiten bada. Azkenik, bereizketa kasuaren batetan oinarrituriko despidoa —esaterako langilearen haurdunaldia— baliogabekotzat joko da, eta nolanahi ere berronartu egin beharko du.

Despidoa bidezkoa ez dela deklaratzen bada, aintzinatasun urte bakoitzeko 45 eguneko soldataren adinako kalteordaina ezarriko da. Enpresak aukeran izango du langileari kalteordain hori ordaindu edo langilea berriro hartzea, despidoa baliorik gabekotzat deklaratzen den kasuetan bezalaxe.

## 7.8. Lana eta amatasuna

Ohiz kanpoko zein eskubide ditu lan egiten duen emakumeak?

— Haurra egiteagatik 16 astetako atsedenaldia hartzeko, baita behar aurretik gertatuz gero eta haurra hilez gero ere. Seme-alaba bat baino gehiago jaioz gero, 18 astetara luza daiteke.

— Bederatzi hilabetetik beherako seme edo alabaren edoskialdirako, lanetik ordubeterako alde egiteko eskubidea, bi zatitan banatu ahal izango dena.

Era berean, bere borondadez, eskubide horren ordez lanaldia ordu erdian murriz dezake xede berdinarekin, kasu horretan aitak nahiz amak erabil dezake eskubidea, baldin eta biek lan egiten badute.

— Martxoaren 3ko 3/89 Legeak, seme-alaba (bai naturala bai adopzioan hartutakoa) zaintzeko dauden hiru urtetatik gutxienik lehendabizikoan lanpostua erreserbatzeko eskubidea ezartzen du, adin txikikoaren jaiotzatik kontaturik, eta eskubide hau bai enpresetako bai Administrazioko langileei aplikatzen zaie.

— Seme-alabaren baten edo seniderен baten gaisotasun larriagatik bi egunez lanera joan gabe egoteko.

— Haurdun dagoen emakumearen kasuan, lanean ardura bereziak hartzeko eta giroa kaltegarria bada eta haurrari kalterik ekar badiezaioke (zenbait irradiazio, toxikoak, gehiegizko kargak, jarrera desegokia, etab.) lanpostuz aldatzeko.

— Eskolan dabiltzan seme-alabak baldin baditu, bere oporraldia eskoletakoekin bat etortzeko moduan finkatzeko lehentasunezko eskubidea.

Aita ere balia al daiteke eskubide hauetakoren batez?

Bai, haurra jaio ondorengo asteez balia daiteke aita, ama haurra egitean hiltzen bada, eta edonola ere, aitak lau asteak har ditzake amaren ordez. Haurra seme-alabatzat hartzen den kasuetan ere baditu aitak zenbait eskubide.

## 7.9. Haur txikiak seme-alabatzat hartzea

Zein eskubide sortzen dira haur bat seme edo alabatzat hartzean, lanari dagokionez?

Seme edo alabatzat hartutako haurra bederatzi hilabetetik beherakoa bada, zortzi astetako atsedenaldia izango da, eta sei astetakoa, berriz, haurra bederatzi hilabetetik gorakoa eta bost urtetik beherakoa bada. Haurra hartzen duen ama nahiz aita balia daitezke eskubide horretaz.

## 7.10. Familia baten etxean lan egiten duten emakumeak

Zer da etxeko enplegatu bat?

Etxeko langiletzat familia baten etxean lan egiten duenari deitzen zaio. Familiaren titularrak ordaintzen dio eta etxea zaintzen edo aurrera ateratzen, edo familiako kideei edo bertan bizi diren bestelako pertsonei laguntza ematen lan egiten du, etxeko lanak egiteaz gain.

Nolakoa izan behar du kontratuak?

Idatzizkoa zein hitzezkoa izan daiteke. Idatzizkoa izatea gomendatzen da, ahal izanik. Lehenengo 15 lanegunak probalditzat jotzen dira.

Zein da legezko soldata?

Lanbidearteko gutxienezkoa da soldata, baina familia horrek zenbait prestazio eskaintzen baditu, janaria edo bertan lo egitea, esate baterako, soldataren %45era arte ken daiteke.

Indarrean dagoen arautegiaren arabera, ohiz kanpoko bi ordainketa sartzen dira soldatan, uztailean eta abenduan egin beharrekoak, 15 eguneko soldataren adinakoak; era berean, 30 eguneko oporrak hartzeko eskubidea ere badu langileak, horietatik gutxienez ere 15 jarraikoak izango direlarik.

Aintzinatasunagatik, hots, lanean egindako denboragatik ordaintzen dena %3koa da hirurteko bakoitzeko, lanaren arlo guztietako bajuena behintzat.

Zein lanaldi eta zenbat atseden ordu ditu?

Legezko lanaldia asteko 40 ordukoa da, baina presentzia orduak deitzen direnak ere badaude; hitzartu egiten dira ordu horiek.

Asteko atsedenaldia 36 ordukoa da, horietako 24 bakarrik jarraikoak; bi lanegunen artean 8 atseden ordu izango ditu internoak.

Eta kontratua ordukakoa bada?

Kasu horretan kontratatuariko lanorduen proportziokoa izango da soldata.

Nola amaitzen da kontratu hori eta zein ondorio legal ditu?

Kontratua bi parteak bat datozelarik, hitzartutako epea bete delako edo enplegatzaileak nahi duelako amaitu daiteke, beste arrazoirik gabe. Ez dago aurrez abisatu beharrik, aintzinatasuna urtebetekoa bada. Langileari, aldiz, 7 egun lehenagotik abisatzea eskatzen zaio.

Kalteȯrdaina 7 eguneko soldata baino ez da. Internoen kasuan, jasotako zerbitzuengatik, jateagatik, lo egiteagatik etab. kentzen den portzentaia kenduko da; eta baldin eta auzibidez despidoa ez dela bidezkoa deklaratzen bada, 20 eguneko soldata izango da kalteordaina.

Dagokion arautegia betetzen ez denean, ba al du etxeko enplegatuak salaketarik egiterik?

Bai, arautegia betetzen ote den ala ez Lan Ikuskaritzak berak ziurtatu behar izaten du, langileak salaketa aurkeztu ondoren. Dena delako familiaren intimitatearen kaltetan izan gabe, beharrezko egiaztapetak egin daitezke.

Derrigorrezkoa al da Gizarte-Segurantzako alta?

Bai. Bete beharreko koitzazioari dagokionez bereiztu beharko da denbora osoko edota denbora partzialeko lanegun betetzen dituztenen artean.

Nork ordaindu behar du Gizarte-Segurantzako kuota?

**Denbora partzialeko enplegatuak, hots, familia bat baino gehiagoren etxeetan lan egiten duenak, berak ordaindu behar du Gizarte-Segurantzako kuota.**

Ba al du etxeko enplegatuak langabezi ordaina jasotzeko eskubiderik?

**Ez, Gizarte Segurantzako Erregimen Bereziak ez dio onartzen langabeziagatiko inolako ordainketarik jasotzeko eskubiderik.**

## 7.11. Emakume enpresaria

Izan al daiteke emakumea enpresari?

**Bai, edozein emakumek sor dezake bere enpresa. Ez du horretarako senarraren baimen garbirik behar, ezkonduta baldin badago. Kredituak eskuratuz gero, eta ustiaketak sor ditzakeen zorren ordainketari begira, kontutan hartu beharko da senar-emazteen erregimen ekonomikoa (ikus 3.4 puntua).**

Zein baldintza legal bete behar ditu?

**Enpresa edo negozio bat *norberak* ustiatzeko, alta eskatu behar da Foru Ogasunean, Lizentzia Fiskalean —dagokion jardueraren epigrafearen arabera— eta Gizarte-Segurantzako Autonomoen Erregimen Berezian afiliatu behar da.**

**Merkatal liburuak zilegiztatu behar dira Epaitegian, eta errotulu, merkatal izen, marka, patente edo diseinurik baldin badu, Industri Jabegoaren Erregistroan erregistratu behar da.**

**Negozio lekua zabaldu ahal izateko, edozein obra eginez gero horri dagokion hirigintz baimenaz aparte, Udalak zabaltzeko baimena eman behar du; baimen hori Udal Ogasun zerbitzuen administrazio sailetan eska daiteke.**

**Badira jarduera mota batzuk beste erakunde publiko batzuren baimena behar dutenak; horiek, kasu bakoitzaren arabera, udal baimenekin batera tramita daitezke.**

**Lan eta Gizarte-Segurantzarako Lurralde Ordezkaritzan ere eman behar da lantegi berrien zabalkundearen berri.**

Eta zenbait pertsonaren artean ustiatzeko negozio bat?

**Merkatal elkarte bat era daiteke, Komertzioko Kodeak biltzen dituenetako edozein eratan, edo lan elkartuko kooperatiba baten bidez, bertan kapitalik nagusiena kooperatibako bazkideen lana delarik.**

Zer abantaila eskaintzen du Lan Elkartuzko Kooperatibak?

**Lan kooperatibek aukera ematen diete bazkideei ustiapenaren hasierako instalakuntzarako kreditu onuragarriak eskuratzeko.**



# 8. ERRENTAREN AITORPENA

Nork egin behar du Errenta aitorpena?

Urtean 900.000 pezetatik gorako dirusarrerak dituzten pertsona guztiek dute hurrengo urtean horien aitorpena egiteko obligazioa, edozein delarik ere dirusarrera horien jatorria (norberaren lana, enpresako jarduerak, denda bat edo lanbide libreren bat, edota jabegotik edo kapitala edukitzetik sortuak badira), beharrezkoa bada, NUIZ (erdaraz IRPF) delako Zerga ordaintzeko dagokion probintziako Foru Haziendari.

Soldatari hilero kentzen zaionak ez al du betetzen NUIZa?

Dirusarrerak soldata bidez jasotzen direnean, kenketa batzuk egin beharra dago, eta enpresak berak izaten dira langileei haien soldatatik deskontatu eta Foru Haziendari ordaindu behar dizkiotenak. Horrela ordaintzen dena deklarazioa egitean dirusarreratzat aitortzen den kopurutik deduzituko da. Hileko kenketa handia denean, gerta daiteke langileak behar baino diru gehiago aurreratu izatea: orduan, haren aldeko diferentzia itzuli beharko dio Haziendak.

Pentsioak ere aitortu behar dira dirusarreratzat?

Bai, jubilazio eta alargun pentsioak, eta besteak ere aitortu behar dira, NUIZ aitorpenari dagokionez ezarrita dagoen urteko dirusarreren gutxienekoa gainditzen denean.

Nola egin behar du aitorpena emakume ezkonduak?

Konstituzio Auzitegiak 1989ko otsailaren 20an emandako sententziaren ondorioz, emakume ezkonduak senarrarekin batera egin dezake aitorpena, hau da, bien dirusarrerak batuz, edota bakarka, batzuetan komenigarriagoa izango bait da berarentzat.

Eta emakume banatu edo dibortziatuak?

Auzitegiak banatzeko edo dibortziatzeko sententzia eman badu edo eman ez badu ere, errenta aitorpenak ezkontide bakoitzak banaka egin behar du, bere ardurapean dituen seme-alabak sarturik elkarren arteko aitorpena egin nahiago badu (seme-alabekin), edo sartu gabe banakako aitorpena nahiago badu.

Zer gertatzen da banatu edo dibortziatzearen ondorioz senarrak ordaintzen dituen pentsioekin?

Gaur egun seme-alabekin bizi ez den gurasoek ezin dituzte haientzako pentsioak gastu bezala atxikitu.

Emakume ezkongabea gurasoekin bizi bada, haien aitorpenean sartu behar al ditu bere dirusarrerak?

Hamazortzi urte baino gutxiago baditu, bai. Aldiz, 18 urte baino gehiago baino 25 urte baino gutxiago baditu, gurasoekin batera egin ahal du aitorpena, haien kontura bizi bada eta urtean 130.000 pezetatik gorako dirusarrerarik ez badu.

Nola egin behar dute errenta aitorpena ama ezkongaiek?

Beren dirusarreren kopuruagatik aitorpena egitera behartuta baldin badaude, ama ezkongaiek beren aitorpena egin beharko dute beren seme-alabak sartuz, edozein adinetakoak izanda eta gurasoekin bizi badira ere. Aitorpenean seme-alabak sartu beharko dituzte, haiekin elkarren arteko aitorpena egin nahi izanez gero.

Zernolako baldintzak daude amarekin bizi diren seme-alabengatik dedukziorik egin ahal izateko?

Seme-alabengatik desgrabatzeko eskubidea haiekin bizi denak dauka, ume horiek 18 urte baino gutxiagokoak badira eta deklarazioa egiten duenaren ardurapean badaude. Beste horrenbeste gertatzen da baldin eta 18 urte baino gehiago baina 25 baino gutxiago izanda haren ardurapean bizi badira, ezkongai badaude, eta haien dirusarrerak urtean 130.000 pezetatik beherakoak badira.

Zertan datza «etxekoandrearen dedukzioa» deritzana?

Euskal foru arautegiaren arabera, famili unitate batean bi ezkontideek batera egiten dutenean aitorpena, errendimendu edo jardueretako dirusarrerak jasotzen dituena haietako bat bakarrik bada, 20.000 pezetako dedukzioa egiten da Araban, eta 10.000 pezetakoa Gipuzkoan eta Bizkaian; dedukzio horri «etxekoandrearena» esaten zaio, emakumeari dagokiolako, ez ordea harentzat jarri delako, gizartearen errealitatearen poderioz baizik.

Adin txikikoen zaintzarako pertsonalaren gastuetarako kontsiderazioren bat ba ote dago bai aita bai ama lanean ari direnean?

**Arabako Foru arauak, 1990eko apirilaren 24ean argitaratua, 20.000 pezetatako gehienezko dedukzio finkoa ezartzen du baldin eta adin txikikoek 13 urte baino gutxiago badute, enplegatuarekin idatzizko kontratua badute eta besteak beste, Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa egiaztatzen bada.**



# 9. AURRIKUSPEN SOZIALA

## Zer da «aurrikuspen soziala»?

Langilea babesten duen izaera publiko nahiz pribatuko prestazio sozialetarako sistema da. Bere barruan sartzen dira Gizarte Segurantzako gutxienezko maila derrigorrezkoa, borondatezko bigarren maila, hau da Borondatezko Gizarte Aurrikuspeneko Elkarteak eta Pentsio Fondoak eta azkenik hirugarren maila, aseguro pribatu hutsa.

Zentsu hertsian eta izaera publikoko prestazio sozialei dagokienean, laguntza medikua, jubilazio-pentsioa jasotzeko aukera edo lanagatiko ezintasun edo gaisotasun kasuetarako dirukopurua hartzen ditu, besteak beste.

Prestazio horiek «Gizarte-Segurantza» deitutako erakundeak eskaintzen ditu. Honako entitate hauek osatzen dute erakunde hori Euskal Autonomi Elkartean:

— Gizarte-Segurantzaren Institutu Nazionalak,
— Osakidetza, edo Euskal Osasun Erakundeak, eta
— Enplegurako Institutu Nazionalak (INEMek).

## Zein da ordainketazko prestazioen eta ordainketazkoak ez diren edo prestazio asistentzialen arteko desberdintasuna?

«Gizarte Segurantzaren» sistema, 1990etik aurrera, ordainketazko prestazioek eta ordainketazkoak ez diren edo prestazio asistentzialek osatzen dute. Lehendabizikoak legez ezarritako epealdian kuotak ordaindu izanak sortzen ditu eta kuota horien zenbatekoaren eta ezarri denboraren arabera langileari dagokion pentsioa finkatzen da. Bigarrengoak sortzen dira baliabide eta beharrezko familia laguntzaren ezagatik beharrean egonik, jubilazio edo ezgaitasunagatiko pentsio ordaiketazkoa jasotzeko eskubidea lortzeko nahiko denboran kotizatu ez denean.

## Zeintzu dira ordainketazkoak ez diren edo prestazio asistentzialak eta zein baldintza bete behar da?

Gizarte Segurantzako sistemak izaera unibertsalez jubilazio edo ezgaitasun pentsioa ezagutzen die emakumezko eta gizonezko guztiei, horren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura ezarriko da urtero eta hurrengo baldintzak bete beharko dira:

— Hirurogeitabost urteak beterik izatea edo lana ekiditen duen ezintasuna eta 18 urte baino gehiago izatea.
— Estatu Espainoleko lurraldean gutxienik bost urtez bizi izatea eta pentsioa eskatu aurreko garaian bi urtez.

Nork jasotzen ditu Gizarte-Segurantzaren onurak eta zerbitzuak?

Inoren kontura lan egiten duen edozein langilek, hots, inork enplegatuta lan egiten duenak, hala nola langile autonomoek eta zenbait enplegatu publikok. Gizarte Segurantzako onuradunak dira halaber langilearen menpe egon eta horrekin Legeak ezarritako elkarbizitza edo senitarteko harremanik dutenak.

Onuradun izateko nahitanahiezko baldintzak

Gizarte-Segurantzan afiliatuta egotea. Horretarako epea bost egunetakoa da, lanean hasten denetik. NANaren fotokopia eman behar zaio enpresari, hori egin dezan, bai eta kartila sinatu ere, egin beharreko izapidetarako. Inskripzio zenbakia mantendu egiten da beti, nahiz eta lanez aldatu; NANaren berbera izango da, hain zuzen ere. Eta gutxieneko kotizazio epea ziurtaturik izatea.

Ba al du lan egiten duen emakumeak Gizarte-Segurantzan afiliatzerik, lehendik senarraren kartilan onuradun gisa ageri bada?

Etxetik kanpo lan egiten duen emakumeak (norberaren etxeko lanak ez du Gizarte-Segurantzan sartzeko eskubiderik ematen), osasun laguntzaren ondorioetarako senarraren kartilan sartuta badago ere, beti eskatu egin beharko du Gizarte-Segurantzan afiliatzea eta altan mantentzea.

Nork ordaintzen ditu Gizarte-Segurantzako kuotak?

Gizarte-Segurantzan afiliatzea eta hileroko kotizazioa egitea nahitanahiezkoa da, eta enpresariak egin behar du hori, langileen kontura.

Eta lanaldi erdia egiten bada edo orduka lan egiten?

Ez da beharrezkoa lanaldi osoa egitea Gizarte-Segurantzan afiliatzeko. Lanaldi erdiagatik edo denbora zatika ere kotiza daiteke, eta zenbait enplegutako zatikako kotizazioekin lanaldia osatu.

Nola jakin daiteke parte enplegatzaileak langilea inskribatu eta altan mantentzeari buruzko betebeharrak betetzen ari ote den?

Gizarte-Segurantzako Institutu Nazionalak probintzia bakoitzean dituen zuzendaritzetan ematen dute inskribapenari eta altan mantentzeari buruzko informazioa; enpresariak hilero kotizatu edo ordaintzen ote duen jakin daiteke horrela.

Zein aurrikuspen sozial dute funtzionariek?

Badute gizarte-segurantzarako sistema propio bat, mutualitateak alegia, esparru guztietarako (estatala eta lokala); antzeko prestazioak eskaintzen dituzte.

Zer da ELKARKIDETZA?

Borondatezko aurrikuspen sozialeko erakunde bat da, irabazte xederik gabekoa, eta Euskal Instituzio eta Elkarte Publikoetako enplegatuei zuzendurik dagoena. Izendatutako fondoen bidez erakundeei derrigorrezko izaerako prestazioen osagarri batzuk eskaintzea du helburutzat. Euskal Autonomi Erkidegoaren esparruan dago indarrean erakunde hori, 1986ko urtarrilaren 1etik.

Ba al dago aurrikuspen sozialerako bestelako sistema pribaturik?

Bai, «pentsio planak» deitzen diren horiek eta aseguru pribatuak daude. Borondatezkoak eta pribatuak dira, eta aurrezki-pentsio sistemak izaten dira; Aurrezki Kutxetan edo Aurrikuspen Elkarteetan ematen dituzte horien edukiari eta kostuari buruzko argibideak.

Zein aurrikuspen sozial dute norberaren edo familiaren negozioa duten langileek?

Norberaren negozioan lan egiten bada, alta eskatu behar da Gizarte-Segurantzako Autonomoen sisteman. Senarraren negozioan lan egiten duen emakumea ere egon daiteke sistema horretan afiliatuta, era zuzen eta pertsonalean, eta prestazio berberak jasotzeko eskubidea izango du. Lana aldiba-

terako eteten bada, hitzarmen berezi bat egin daiteke ordainketak egiten jarraitzeko eta eskubideak —laguntza medikua, gaisotasun baja eta pentsioa— ez galtzeko.

Autonomoen erregimen berezian ez dago langabezi laguntzarik.

## Eta zein aurrikuspen sozial dute emakume nekazariek?

Beren kontura, beren edo familiaren ustiaketa gestionatzen badute, edota beste inoren kontura, nekazaritzan lan egiten duten emakumeek Nekazaritzarako Gizarte-Segurantzan hartu behar dute alta, eta Erregimen Orokorrerako adierazitako eskubide berberak izango dituzte horrela.

Nekazaritzako langileei ez zaie onartzen langabezi laguntzarik.

## Etxeko enplegatuek aurrikuspen sozialik ba al dute?

Familia baten etxeko edo garbiketarako enplegatuari, finkoa izan ala ez, familiaren etxean bizi ala ez, alta eman behar zaio Gizarte-Segurantzako Etxeko Enplegatuentzako Erregimenean. Alta hori gauzatzeko obligazioa enplegatzailearena da kontratu finkoetan, hau da langileak aldi osorako eta bakarrik etxebizitza batean egiten duenean lan, horretarako ez da beharrezkoa bertan lo egitea.

Enplegatzaileak ez badu alta ematen enplegatuak berak eskatu behar du alta Gizarte Segurantzako Instituto Nazionalean.

Langileak ordukako lanaldia egiten duenean edo egun desberdinetan etxebizitza batean nahiz gehiagotan, beti ere hilean 72 ordutik gora eta gutxienez ere hileko 12 egunez lan egiten, enplegatuak berak eskatu behar du alta eta lanorduak eta lanegunak ziurtatu horretarako Gizarte Segurantzako Instituto Nazionalean emango dizkioten inprimakietan.

Gizarte-Segurantzako kuota bi partetan ordaintzen da: parte bat, %75, enplegatzaileak ordaintzen du, eta bestea, %25, langileak berak. Kuota Administrazioak finkatzen du, eta gaur egun Erregimen Orokorrekoaren %10ekoa da.

## 9.1. Gizarte segurantzako prestazioak

Zein prestazio eskaintzen ditu Gizarte-Segurantzak eta zein baldintzatan?

Gizarte-Segurantzan afiliatuta egoteak eta urteko 12 hilabeteetan kotizatzeak —hilero kobratzen dena eta jaso beharreko ohiz kanpoko ordainketak oinarritzat hartuz—, soldataren parte bat jasotzeko eskubidea ematen du honako kasu hauetan:

— Gaisotasun edo Lanerako Aldibaterako Ezintasunagatik hartzen den baja: Sei hilabetez kotizatu bada, edo 1.800 egunez azken bost urteetan, soldataren %75 jasotzen da lehenengo hogei egunak igaro ondoren, eta laugarren egunetik hogeigarrenera bitartean, berriz, %60. Enplegatzaileak kotizatzen jarraitu behar du, 18 hilabetera bitartean jarraitu daitekeelarik baja egoeran, gaisotasunak bere hartan badirau. Epe hori igaro ondoren, soldataren portzentaia berbera jasotzen jarraituko da, baina Gizarte-Segurantzaren kontura, Aldibaterako Ezintasun egoeran, guztiz sendatu arte, edo ezintasun iraunkorrari buruzko espedientea hasi arte.

— Lan istripuagatik: Lantokian bertan nahiz etxetik lanerako joan-etorrian gertatzen bada istripurik, soldataren %75 jasotzen da, istripua gertatu deneko egunaren biharamunetik bertatik.

— Ama izateagatik: Amatasunari dagokion baja haurra egin ondorengo atsedenaldiari ekiten zaion egunetik kobratzen da; erditu aurreko bederatzi hilabeteetan afiliatuta egon beharra dago, hala ere.

Gizarte-Segurantzak ordaintzen du amatasun baja, ez enpresariak.

— Ezintasun iraunkorra: Gaisotasun baten, laneko istripu baten edo gaitz zenbaiten pilaketaren ondorioz, lana, zati handi batean edo oso-osoan, ezin egitera edo inolako lanik egiterik ez izatera helduz gero, Ezintasun Iraunkorra, Neurri batekoa, Guztizkoa edo absolutoa eska daiteke.

## Zein eskubide ematen ditu lanerako ezintasuna deklaratzeak, edozein gradutan delarik ere?

Ezintasun iraunkorra lau multzotan banatzen da ezgaitasun mailaren eta erakarritako prestazioen arabera.

Ezintasun iraunkor partzialak suposatzen du langilearen errendimendu normala, bere ohizko lanbidean, gutxienik %33an gutxitu dela baina ez diola lanbide horren funtsezko lanak burutzea ekiditen. Hogeitalau hilabeteko kalteordainerako eskubidea ematen du.

Ohizko lanbiderako ezintasun iraunkorrak ez dio langileari bere ohizko lanaren funtsezko zereginak burutzen uzten. Kasu horrek %55eko pentsiorako eskubidea ematen du, eta porzentaia burutzeko oinarria gaisotasun arruntaren ondoriozkoa baldin bada, aurreko 96 hilabetetako kotizazioa 112an zatituz gero lortzen da. Lan istripuaren ondoriozkoa baldin bada, oinarri arautzailea bajaren aurreko hilabetekoa izango da.

Edozein lanetarako ezintasun iraunkor erabatekoak, langilea guztiz ezgaitzen du, edozein lan edo lanbiderako. Aurreko pasartean aipatu oinarriaren %100eko pentsiorako eskubidea ematen du.

Ezintasun Handia, bizitzarako ekintzarik oinarrizkoenak burutzeko beste pertsonen laguntza behar duen ezintasun iraunkor erabatekoa duen langileari onartzen zaio. Honek ezgaitasun iraunkor erabatekoaren pentsioa %50ean igotzeko eskubidea ematen du.

## Lanerako Ezintasunaren deklarazioa iraunkorra al da?

Ez, ezintasun iraunkorreko egoera, deskribatu diren graduetako edozeinetan ere, berraztertu daiteke, okerragora edo hobera jotzen badu, ezinduak berak edo Gizarte-Segurantzak hala eskatuz gero.

## Soldataren portzentaia berbera jasotzen al da beti, gaisotasun bajan eta amatasun bajan?

Ez, zenbait hitzarmenetan zertzelada horietan kopuru handiagoak jasotzen dira, bai eta lanean arituz jasoko litzatekeen soldata bera ere. Adierazitako portzentaiak derrigorrezko gutxienekoak baino ez dira.

## 9.2. Pentsioak

### Zer dira pentsioak?

Gizarte-Segurantzan sartzen den Aurrikuspen Sozial Orokorrerako sistemak edo funtzionarien Mutualitateek legez ezarritako zertzeladetan aldian aldiko halako dirukopuru batzuk jasotzeko eskubidea aitortzen dute.

### Zernolako pentsioak daude?

— **Alargunentzakoa:** Ezkontidea —senarra edo emaztea— hilez gero, bataren zein bestearen adina edozein izanik ere, heriotza gertatzen den unetik —oraingoz, eta SOVI delakoaren pentsioak salbu—, hildako langileari legokiokeen pentsioaren %45ekoa da, oro har. Hala ere, urtero finkatzen da pentsioaren gutxieneko zenbatekoa; inolaz ere ezin da jaso hortik beherako dirukopururik, egindako kalkulutik halako emaitza ateratzen bada ere.

Alargunak lan egiten badu ez du gutxienezko osagarri horiek jasotzeko eskubiderik izango. Dena dela, ezkontideak elkarrekin bizi izana derrigorrezkoa izaten da, edo bestela legez banatuta egotea, baina orduan pentsioa eskatzen duenak ezin du izan banaketaren erruduna.

· Emakumea banatzeko tramiteak egiten ari bada: Pentsioa jasotzeko eskubidea izango du heriotza gertatzen den unean banatzeko tramiteak egiten ari zenak. Geroago dibortzioa gertatuz gero, elkarrekin bizi izandako urteengatik parte proportzionala jasotzeko eskubidea izango du ezkontide-ohiak.

· Izatezko bikotearen kasua: Elkarrekin bizi izanagatik, ez da inolako eskubiderik edukitzen.

— **Umezurtzentzakoa:** 18 urtetik beherako seme-alabek, lan egiten duen ama edo aita hilez gero, oinarriaren %20ko pentsioa jasoko dute.

— **Jubilaziokoa:** Pentsio hau 65 urte bete inguruan hasten da jasotzen, 60 urte betetzen denetik ere eska badaiteke ere, langile autonomoen kasuan izan ezik; azken hauek bai bete behar dituzte derrigorrez 65 urte.

## 9.2. Pentsioak

### Zer dira pentsioak?

Gizarte-Segurantzan sartzen den Aurrikuspen Sozial Orokorrerako sistemak edo funtzionarien Mutualitateek legez ezarritako zertzeladetan aldian aldiko halako dirukopuru batzuk jasotzeko eskubidea aitortzen dute.

### Zernolako pentsioak daude?

— **Alargunentzakoa**: Ezkontidea —senarra edo emaztea— hilez gero, bataren zein bestearen adina edozein izanik ere, heriotza gertatzen den unetik —oraingoz, eta SOVI delakoaren pentsioak salbu—, hildako langileari legokiokeen pentsioaren %45ekoa da, oro har. Hala ere, urtero finkatzen da pentsioaren gutxieneko zenbatekoa; inolaz ere ezin da jaso hortik beherako dirukopururik, egindako kalkulutik halako emaitza ateratzen bada ere.

Alargunak lan egiten badu ez du gutxienezko osagarri horiek jasotzeko eskubiderik izango. Dena dela, ezkontideak elkarrekin bizi izana derrigorrezkoa izaten da, edo bestela legez banatuta egotea, baina orduan pentsioa eskatzen duenak ezin du izan banaketaren erruduna.

- Emakumea banatzeko tramiteak egiten ari bada: Pentsioa jasotzeko eskubidea izango du heriotza gertatzen den unean banatzeko tramiteak egiten ari zenak. Geroago dibortzioa gertatuz gero, elkarrekin bizi izandako urteengatik parte proportzionala jasotzeko eskubidea izango du ezkontide-ohiak.
- Izatezko bikotearen kasua: Elkarrekin bizi izanagatik, ez da inolako eskubiderik edukitzen.

— **Umezurtzentzakoa**: 18 urtetik beherako seme-alabek, lan egiten duen ama edo aita hilez gero, oinarriaren %20ko pentsioa jasoko dute.

— **Jubilaziokoa**: Pentsio hau 65 urte bete inguruan hasten da jasotzen, 60 urte betetzen denetik ere eska badaiteke ere, langile autonomoen kasuan izan ezik; azken hauek bai bete behar dituzte derrigorrez 65 urte.

Zenbatekoa kotizatutako soldaten eta urteen araberakoa izango da. Gaur egun, beti ere, gutxienez 15 urtez kotizatu izana eskatzen da, eta oinarria azken 8 urteen arabera zehazten da.

Bada gutxienezko pentsio bat; luze gabe, urtero finkatzen den lanbidearteko gutxienezkoa adinakoa izatea nahi da.

— **Guraso eta anai-arreben aldekoa**: Gizarte-Segurantzak onartzen du, umezurtzei onartzen dien portzentaia berean, hiltzen den langilearekin bizi ziren guraso eta anai-arreben aldeko pentsioa, haren menpe bizi baziren ekonomiari dagokionez.

Oso kasu gutxitan bada ere, onartu daiteke 45 urtetik gorako seme-alaben eta anai-arreben aldeko pentsioa ere, baliabiderik ez badute, lanerako ezinduta badaude eta hildakoa zaintzera dedikatu izan badira.

## Zer dira SOVI delakoaren pentsioak?

Desagertutako Gizarte-Segurantza sistema baten izena da hori, derrigorrezko zahartzaro eta ezintasun aseguroa. Bi pentsio mota onar daitezke horretan, baldintzak betez gero:

— **Alargun geratzeagatik,** 65 urte betetzen dituzten emakumeentzat, baldin eta senarra 1956az geroztik hil bazitzaien eta hil zenean 50 urte beteta bazituzten, eta senarrak 1939 baino lehenago Retiro Obreroari kotizatu bazion, edo 1.800 egunez kotizatu bazuen, bost urtetan, 1940 eta 1967ko urtarrilaren 1a bitartean.

— **Jubilatzeagatik,** 65 urtetik gorako emakumeentzat, baldin eta ezkondu zirelako edo seme-alabak zaintzeko utzi bazioten lan egiteari, eta 1939 baino lehenago Retiro Obreroari kotizatu bazioten, edo 1.800 egunez kotizatu bazuten, bost urtetan, 1940 eta 1967ko urtarrilaren 1a bitartean.

## 9.3. Lanik eza edo langabezia

Zer da langabezi laguntza?

Gizarte-Segurantzari kotizatuz lortzen den eskubidea da. Lanik ezagatik eskaintzen du Gizarte-Segurantzak laguntza hori, lana galtzen denean, dela despido arrazoituagatik, dela epai judiziala duen arrazoi gabeko despidoagatik (ikus 625/85 Errege Dekretoa), aldibaterako zen kontratua amaitzen denean, enpresa bat itxi egiten denean eta abar.

Zein baldintza bete behar dira «langabezia» kobratzeko?

— Gizarte-Segurantzan afiliatuta egotea eta lana galdu aurreko sei hilabeteetan gutxienez kotizatu izana.
— Enplegu bulegoan inskribatuta egotea eta lana galdu ondorengo hamabost eguneko epearen barruan egitea laguntzarako eskabidea.

Zenbat iraun dezake langabezi ordainketak, zenbatekoa da dirulaguntza?

Laguntza horrek gehienera 24 hilabete bete arte iraun dezake, 42 hilabetez lan egin bada, etenik gabe; iraupenik motzena hiru hilabetekoa izango da, baldin eta sei hilabetez lan egin bada. Laguntzaren zenbatekoa azken 180 egunetan, hots, azken sei hilabeteetan kotizatutakoaren bataz bestekoari dagokiona izango da; lehenengo sei hilabeteetan %80 jasotzen da, %70 hurrengo sei hilabeteetan eta %60 azken hamabi hilabeteetan.

Ba al dago langabezi laguntzaren osagarrizko ordainketarik?

Bai, famili betebeharrak dituzten emakumeentzako laguntzak; baldin eta hiru hilabetez kotizatu badute, enplegu bulegoan inskribatuta badaude eta hilabeteko epean lan eskaintzen bati uko egin ez badiote onartzen zaie eskubide hori.

Zer lotura dago familiaren laguntzarako «puntuen», eta prestazio asistentzialen edo ordainketazkoak ez direnen artean?

Gizarte-Segurantzak familiaren laguntzarako «puntuak» direlakoak ordaintzen zituen, hots, 250 pta. hileko eta seme-alaba bakoitzeko, eta 3.000 pta., garrantzizko elbarritasunen bat duen seme-alabaren bat izanez gero (gormutuak, down sindromedunak, etab.).

Ordainketazkoak ez diren prestazioen gaineko Abenduaren 20ko 26/1990 Legea onartu zenetik jubilazio edo ezgaitasunagatiko pentsioak ezartzen dira baliabide eta familia laguntza nahikorik ez dagoelako behar egoera gertatzen denean edo ordainketazko pentsiorako eskubidea izateko nahikoa denboran zehar ordaindu ez denerako (Ikus 9.3).



# 10. OSASUNA ETA OSASUN LAGUNTZA

Nork du osasun laguntzarako eskubidea?

Euskadiko Autonomi Elkartean, estatutuak emandako konpetentzien ondorioz, OSAKIDETZAk, hau da, Euskal Osasun Zerbitzuak osasun laguntza eskaintzen die bertoko herritar guztiei, Gizarte-Segurantzaren barruan daudenei zein horren barruan ez daudenei.

Zein eskubide ematen ditu Gizarte-Segurantzan afiliatuta egoteak, osasunari dagokionez?

Gizarte-Segurantzan afiliatuta egonez gero, langileak berak nahiz ekonomikoki bere menpe dauden senitartekoek jasotzen dute osasun laguntza, bere bi alderdietan jaso ere, hau da, osasun publikorako anbulategi eta ospitaleetan eskaintzen den medikuntza prebentiboari zein sendaketarako medikuntzari dagokionez; gainera, sendagaiak eta botikak %40ko merkapenaz eskuratzen dira.

Zer egin behar da osasun laguntza publikoa jasotzeko Euskadiko Autonomi Elkartean?

Gizarte-Segurantzan afiliatu gabe egonez gero, eta baliabiderik izan ezean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Foru Aldundien Gizarte-Ongizateko Departamenduetan eskatu behar da Osasun Identifikazioko txartela (gazteleraz T.I.S.).

Txartel hori indibiduala da eta bertan agertzen dira jaiotze data eta titular nahiz onuradunaren Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia.

Zer gertatzen da adinez nagusi diren seme-alabekin?

Familiako seme-alabek, adinez nagusi izanda ere, eta 26 urte bete bitartean, aitaren edo amaren Gizarte-Segurantzako kartilan jarraitzeko eskubidea dute, familian bizi badira. Era berean Norbanakoen Osasun Identifikazio txartela eskuratzeko eskubidea dute.

Nor da eskola-aseguruaren onuradun?

Ikasleek, adinez nagusi baldin badira, eskola-aseguruaren bidez ere lor dezakete medikuaren babesa, 28 urte bete ez dituzten sektore publikoko ikasle guztiak babesten bait ditu aseguru horrek, OHOko —Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko— ikasleak izan ezik.

«Eskola aseguruak» medikuntza orokor eta berezituko zerbitzuak betetzen ditu, laguntza tokologikoa eta neuropsikiatrikoa barne. Hainbat laguntza ere baditu bitarteko ezagatik ikasketak utzi behar ez izateko.

Zer eskeintzen du osasun laguntzak oro har?

Medikuaren babesa eta farmaziek eskaintzen dutena eskaintzen du, oso-osoan: norberaren etxean eskaini beharrekoa, ospitaleetan eskaini beharreko edo larrialdietakoa; ezkondu gabe baina era egonkorrean lagunarekin bizi den emakumeak ere jaso dezake, ekonomikoki haren menpe baldin badago.

Zer egin behar du banatu edo dibortziatu egin den emakumeak osasun laguntza izateko?

Banatu edo dibortziatu egin den emakumeak bere senarrak duen osasun laguntzarako kartilaren bikoizkiaren ordeko norbanakoaren Osasun Identifikaziorako Txartela egin diezaioten eskatzeko eskubidea du, berarentzat eta berarekin bizi diren 26 urtera bitarteko seme-alabentzat. Osasun Zentruetan egin behar du eskabidea, banaketari edo dibortzioari buruzko sententziaren kopia aurkeztuz.

Nola zaintzen da osasuna lanean?

Laneko Segurtasun eta Higienerako Batzorde bat eta enpresako mediku bat izateko baimena ematen du Legeak, bai eta batzuetan horretarako obligazioa ezartzen ere. Horren helburua zera da, instalakuntza higienikoei, lantokietako egoerari, jantziei eta burutzen den lan-jarduera jakin bakoitzaren arabera erabili beharreko tresnei eta lan-jarduera horrek osasunari dagokionez berarekin dituen arriskuei buruz dauden arau ugariak betetzen diren zaintzea.

Haurdun dagoen langileak, ardura berezirik behar al du, bere osasunari buruz?

**Bai, ardura berezi horren ondorioz lanpostuz aldatzeko eska dezake haurdun dagoen emakumeak, baldin eta bere ohizko lanpostuan irradiapen ionizatzaileekin edo zenbait gai kimiko edo toxikorekiko kontaktuan egon beharra gertatzen bazaio.**

Nori zuzendu behar zaio laneko osasunari buruzko arautegia betetzeko eskabidea?

**Lan Ikuskaritzari eta Laneko Medikuntza eta Higienerako Zentruei, horiek kontrolatzen bait dute arautegia betetzen den ala ez; ikuskaritza horretan egin daiteke salaketa, enpresak bere eginbeharrekoak betetzen ez baditu.**

Ba al dago osasunari buruzko bestelako zentru berezirik, anbulategi eta ospitalez gain?

- **Bai, izan ere Familia Orientabiderako Zentroetan familiplangintzari buruzko informazioa eskeintzen dizute, hala nola antisorgailu, basektomia eta tronpa loturei buruzko kontsulta eta tramitazioak, bai eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko informazio eta orientazioa.**
- **Era berean, Euskadiko Autonomi Elkartean dauden Modulo Psiko-sozialek, laguntza psiko-psikiatrikoa eskeintzen dute, hala nola toxikomania eta drogomenpekotasunen tratamentu anbulatoriorako laguntza, alkoholzaletasuna barne.**

Non jaso daiteke esterilizazioari buruzko informazioa?

**Bai emakumeak bai gizonak, esterilizazioa egiteko eska dezakete, hau da, beren borondatez ugaltzeko ahalmena kentzeko, emakumeari tronpen loturaren bidez eta basektomiaren bidez gizonari; famili-plangintzarako zentru batera jo behar izaten da horretarako.**

**Horretarako interbentzioa dohainik baino ez da egiten, eta medikuntza publikoaren bidez, preskripzio fakultatiboa bitarteko.**

**Lagunduriko ernalketarako teknikak erabiltzen dituen zentru publikorik badago?**

Bai, hainbat zentru pribatuz gain, Osakidetzaren menpeko zentru publiko batzuek Lagunduriko Ernalketarako edo Ernalketa Artifizialerako teknikak erabiltzeko aukera ematen dute, giza bikotearen antzutasunari aurre egiteko; erabiltzen diren teknikak Inseminazio Artifiziala (senarraren edo bikoteko gizonezkoaren haziarekin edo emailearen haziarekin), In Vitro Ernalketa eta Tutubarneko Gametoen Transferentzia dira.

Tratamendu guztiz berezitu hauek sortzen dituzten gastuak, arrazoi terapeutikoak edo osasunarekin lotutakoak daudenean soilik hartzen ditu bere gain Gizarte Segurantzak.

**Zein kasutan eten daiteke borondatez haurdunaldia legearen arabera?**

Haurdunaldiaren Borondatezko Etena edo abortoa hiru kasutan bakarrik onartzen da legearen arabera:

- Haurdun dagoenaren osasuna edo bizitza arrisku bizian jarriko bada, haurdunaldiarekin aurrera jarraituz gero.
- Haurdunaldia bortxaketaren ondorio bada.
- Umekiak akats fisiko edo psikikoak izatea gerta daitekeenean.

**Zein oinarrizko baldintza behar da abortoa legezkoa izan dadin?**

Abortoarentzako baimena eman dadin, hiru kasutatik edozeinean, hurrengo baldintzak bete beharko dira:

- Abortoa sendagile batek edo sendagile baten zuzendaritzapean egina izan behar du.
- Kreditaturiko osasun zentru batetan egin behar da, publikoa nahiz pribatua.
- Emakumearen adostasun espresuaz egin behar da.

**Bestelako zein baldintza bete behar da haurdunaldiaren borondatezko etenaren kasu bakoitzerako?**

Haurdun dagoenaren bizitza edo osasun fisiko nahiz psikiko arrisku bizian jartzen denean abortatzeko baimena eman dadin, espezialitate bereziko sendagile baten txostena behar da eta horrek ziurtatu beharko du abortoa justifikatzen duen arrisku bizia dagoela. Sendagile hori eta abortoa egin edo

zuzenduko duena pertsona desberdinak izan beharko dute. Nolanahi ere eta larritasuna medio, haurdunaren bizitza arriskutan egonez gero, txostenik eta adostasun espresurik gabe egin ahal izango da.

Bortxaketaren kausaz egiten den abortoan, galerazketa haurdunaldiaren lehen hamabi asteen barruan egin beharko da eta aldez aurretik bortxaketaren salaketa aurkezturik egon behar du.

Abortoa umekiak akats fisiko edo psikiko larriekin jaioko delako egiten denean, galerazketa haurdunaldiaren lehenengo hogeitabi asteen barruan gauzatu beharko da eta, eragiketa egin aurretik, abortoa gauzatuko duen medikuak ez beste bi mediku espezialistak emandako aldezko adierazpenak behar da. Mediku horiek berezi kreditaturiko osasun zentru batetakoak, publikoa nahiz pribatua, izango dira.

Legeak baimentzen dituen hiru aborto kasuetan, haurdun dagoenaren jokaera ez da zigorgarria izango nahiz eta abortoa kreditaturiko zentru edo eritetxe publiko nahiz pribatuan ez burutu, eta beharrezko txosten medikoak aurkeztu ez badira ere.

## Zeintzuk dira baimena duten Osasun Zentru publiko nahiz pribatuak?

Legeak haurdunaldien borondatezko etenak burutu ahal izateko osasun baldintza guztiak betetzen dituztelako Osasun Administrazio Publikoak abortoak burutzeko baimen emandako osasun zentruak dira.

Autonomi Elkarte guztietako bulego publiko eta osasun zentru guztietan, hala nola Zentruen ardura duten gainerako Osasun Administrazio Publikoetakoetan, haurdunaldien borondatezko etenak burutzeko baimen emanda dauden zentruen zerrenda eguneratua egon behar du erakusgai.

## Zer da haurdunaren intimitaterako eskubidea?

Emakumeak zentru batetara jotzen duenean tratamenturen bat burutzeko, abortoa barne, osasun pertsonalak kontsulta eta tratamentuaren sekretua bermatu behar du. Betebehar hori hausteak salaketa erakar dezake.

Zein eskubide du osasun laguntzarako txartelaren tituluduna den emakumeak berarekin bizi diren beste pertsona batzuk onuradun gisa sartzeko?

Emakumearen ezkontideak, arbasoek, ondorengo eta anai-arrebek dute onuradun gisako Osasun Identifikaziorako Txartela izateko eskubidea, beti ere berarekin bizi eta ekonomikoki bere menpe badaude eta bestelako osasun laguntzarako eskubiderik ez badute. Gauza bera gertatzen da ondorengo, seme-alabatzat hartutako eta anai-arrebekin hogeitasei urte bete artean, bai eta adin hori gainditurik lanerako guztiz ezgaitzen dituen ezintasun iraunkor eta erabatekoa dutekin.

Noiz da emakumea Osasun Identifikaziorako Txartelaren onuraduna?

Hori bakarrik gertatzen da lanaren kausaz emakumea bera txartel horren tituluduna ez denean.

Sendagilea eta sendagaiak edukitzeko eskubidea gorde daiteke langabezi-laguntzak bukatu ondoren?

Bai, hala tituludunak nola bere menpeko senitartekoek eskubide hori erabiltzen segi dezakete baldin eta Enplegu Bulegoan inskribaturik segitzen badu, lanposturako eskeintzarik errefusatzen ez badu eta lanbidearteko gutxieneko soldataren gaineko errentarik ez badu.

# 11. BALIABIDEAK

## 11.1. Gizarteratzeko gutxienezko dirusarrera

### Zer da gizarteratzeko gutxienezko dirusarrera?

«Familiaren gutxienezko soldata» edo «gutxienezko soldata soziala» izenez ere ezaguna den prestazio edo laguntza hau Euskal Herriko Autonomi Elkartearen barruan ematen zaie bizitzeko funtsezko beharrizanak —etxebizitza, jantziak, janaria— betetzeko adina baliabide ekonomikorik ez dutenei, euren gizarteratzeari begira.

### Emakumeen artetik, zeintzuek jaso dezakete gizarteratzeko gutxienezko dirusarrera?

Eskabidea egin aurretik gutxienez hiru urte Euskal Autonomi Elkartean bizitzen daramatzaten biztanleek eska dezakete, baldin eta aldez aurretik familia independiente bat osatzen badute pertsona bakarra edo gehiago ohiz bizi badira, alegia-urtebetez, eta dagokion legearen garapen arauek Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera gisa ezartzen duten kopurua baino gutxiagoko baliabiderik badute.

Gainera, 25 urtetik gorakoa, eta zahar saria jasotzeko eskubidea eduki ahal izateko eskatzen den adina baino gutxiagokoa izatea ere beharrezkoa da.

Adin gutxikoek ere jaso dezakete, gainerako baldintza guztiak betez gero, familia independientea osatzeko urtebeteko epearena salbu, baldin eta haien ardurapean beste adin gutxikorik edo elbarririk badute.

### Zein da Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarreraren zenbatekoa?

Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarreraren zenbatekoa familia osatzen duten pertsona kopuruaren arabera doa, eta urtero zehatzen da; onuradunak eskubidea dauka bere dirusarreren eta Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarreraren artean dagoen aldeari dagokion dirua jasotzeko.

Nolanahi ere den, familia bakoitzeko Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera bana emango da, gehienez ere.

## 11.2. Interesgarriak diren bestelako laguntza sozialak

### Zertan datza etxerako laguntza zerbitzua eta nola lor daiteke?

Zerbitzu sozial bat da, langile profesionalen bidez ematen zaiena 65 urtetik gorakoei, elbarrituei, arazo sozialak dituzten familiei, arrisku handiko haurdunei, gaiso hilurrenei, etab., alegia, euren kasa baliatu ezinik dabiltzanei; zerbitzuaren helburua pertsona horien ongizate fisiko, psikologiko eta soziala hobetzea edo maila egokira eramatea da, ahal duten bitartean euren etxean bizitzen jarraitzerik izan dezaten.

Laguntza noiz, nola eta zenbat diruz —halakorik eman beharra egonez gero— egin behar den udal gizarte-laguntzaileak zehaztu behar du eskatzailearen beharrizanak kontutan harturik. Zerbitzua eperik gabe ematen da, behar fisiko, psikiko edo sozialik dagoen bitartean, behintzat.

Udal gizarte-laguntzailearen beraren bitartez eskatu behar da etxerako laguntza zerbitzua.

### Zer da «Tepa» edo tele-alarma deitzen dena?

Telekomunikazio sistema bat da, adineko jendeak, gaisoek edo ezinduta daudenek laguntza eskatu eta berehala jaso ahal dezaten, okerren bat edo larrialdiren bat gertatzen denean.

Horretarako, pultsagailu bat jartzen da telefonoaren ondoan, eta domina bat ematen zaio dagokion pertsonari lepoan edo poltsikoan jartzeko, pultsagailu bat duena eta, botoia sakatuz gero, larrialdirako deia bidaltzen duena. Dei horri egunaren edozein ordutan erantzungo zaio, zentralak senideekin, erakundeekin, etab. edota, beti ere noski, afektatuarekin berarekin harremanetan jarriz.

Eskatzailearen bizitokiari dagokion Udal gizarte-laguntzailearen bitartez eskatu behar da.

## 11.3. Orientazio zentruak

Non aurkitu informazio gehiago Euskadin emakumeen esku dauden baliabideei buruz?

EMAKUNDEk «Euskal Autonomi Elkarteko Emakumeentzako baliabideei buruzko gidaliburua» prestatu du, eta bertan honako hauei buruzko argibideak biltzen dira:

- Emakumeentzako suztapen edota sorospidetzarako organismo publikoak
- Informazio alorra
- Harrera baliabideak
- Kultur alorra
- Lanbide, enplegu eta lan prestakuntza
- Osasun alorra
- Emakumeen eskubideak suztatzeko eta babesteko elkarteak
- Emakumeentzako suztapen eta sorospidetzarako elkarteak

Non lortu osasunari buruzko argibideak?

- Famili Orientabiderako Zentruek famili plangintzari buruzko argitasunak ematen dituzte, bai eta haurdunaldia eragozteko moduei buruz dauzkazun zalantzak argitzen; antisorgailuak lortu, edo basektomia egin edo tronpak lotu nahi dituztenei ere dena prestatzen dizkiete; eta abortoari buruz ere informazioa eta laguntza ematen dute.
- Euskadin dauden Modulu Psiko-Sozialek, Udal eta Foru Aldundien Gizarte-Ongizate Sailekin elkarlanean, laguntza psiko-psikiatrikoa eta drogazaleentzako laguntza (alkoholzaleentzat ere bai) ematen dute.

Nora jo enplegua bilatzeko?

Famili-erantzunkizunak dituzten emakumeen kontratazioroko laguntzei eta lanari buruzko beste edozein gaiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Lurralde Ordezkaritzetan har daitezke argibideak.

Lanik gabe egonez gero INEMera jo behar da, Enplegu Bulegora, eta enplegu eskatzaile gisa inskribatu. Txartela aldiro berriztu behar da aintzinekotasuna gordetzeko.

Bai INEMen bai Udal handitan, informazio kartelak daude lan eskeintza publikoekin eta gainera, lanbide heziketarako ikastaroak, etab. antolatzen dira.

Enpresa bat sortu edo berritzeko SAGAZDEra jo (hiru hiriburuetan ditu bulegoak), edo bestela Diputazioko Sustapen eta Garapen Sailera. Aurreko bietan dohaneko zerbitzu publikoak eskeintzen dira, bai eta laguntza eta subentzioei buruzko informazioa. Enpresa osatzen den bitartean aholkularitza ere eskeintzen da.

## 11.4. Emakunde/ Emakumearen Euskal Erakundea

### Zer da Emakunde?

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Idazkaritzaren menpe dagoen Erakunde Autonomoa da, eta honen xedea sexuen arteko benetako berdintasuna lortzeko baldintzak bultzatzea da Euskal Herriko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren esparru guztietan; hala nola Euskadiko Autonomi Elkarteko emakumeen bazterketa mota guztiak desagertaraztea.

### Zeintzuk dira Emakundek burutzen dituen ekintzak?

— Emakumeentzako ekintza positiboko interbentzio politikorako plangintzak landu, bultzatu eta koordinatzen ditu, Euskadiko Autonomi Elkarteko Botere Publikoek burutu ditzaten.
— Aholkularitza eta laguntza eskeintzen die Eusko Jaurlaritzako, Diputazioetako eta Udaletako Sailei emakumeekin zerikusia duten esparruetan.
— Azterketak burutu eta sustatzen ditu Euskadiko Autonomi Elkarteko emakumeen egoera sakonki ezagutzeko.
— Indarrean dagoen legeriaren eta horren aplikazioaren segimendua egiten du eta lege-aldaketarako proposamenak egiten ditu.

— Eusko Jaurlaritzak eta Foru Diputazioek erabaki eta emakumeengan eragina duten xedapen orokorrei buruzko ebazpenak ematen ditu.
— Sexua dela eta emakumeen kontrako bereizketa, gehiegikeria edo eskubideen hausteari buruzko salaketak bideratzen ditu.
— Emakumeen aldeko zerbitzuen eskeintza sustatzen du.
— Dirulaguntzak ematen ditu emakumeen partehartzea bultzatzeko euskal gizartearen esparru guztietan.
— Euskal Elkartean, Estatuan eta Nazioarteko Elkartean antzerako xedeak dituzten bestelako Elkarte eta Erakundeekiko elkarlanerako bideak ezartzen ditu.
— Emakumeen arazo berezien gaineko sensibilazio eta informazio kanpainak antolatzen ditu. Lau hilabetetan behin «EMAKUNDE» aldizkaria argitaratzen du.
— Dokumentazio Zentrua du, emakumeekin zerikusia duten gaietan bereziturik eta bertan biltzen dira AutonomiElkarteko, Estatuko nahiz Nazioarteko esparruko materialak: aldizkariak, txostenak, ikusentzunezkoak, kartelak, agiriak, etab. Horiek kontsultatzeko postaz egin daiteke eskaria edo pertsonalki bertara joan.

## Nola jarri harremanetan EMAKUNDErekin?

Egoitza sozialera joz:
Manuel Iradier kalea, 36
01005 GASTEIZ
Tfnoa.: 945 132613
Faxa: 945 231891